

# EGAN



*Euskal literatura aldizkariak  
eta periferiak*

**2024 - 1/2**

# EGAN



LITERATURA ALDIZKARIA  
EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



**ORAIN  
GIPUZKOA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta  
Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
lagundutako aldizkaria

Idazkaritza eta harpidetzak:  
Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea. Gipuzkoako Saila.

Peña y Goñi 5, 2. ezk. – 3.263 posta-kutxa – 20002 Donostia

Posta elektronikoak: [egan.bascongada@gmail.com](mailto:egan.bascongada@gmail.com)  
[comisiongipuzkoa@bascongada.e.telefonica.net](mailto:comisiongipuzkoa@bascongada.e.telefonica.net)

Webgunea: <https://www.rsbap.org/ojs/index.php/egan>

ISSN: 0422 - 7328. EGAN

Legezko Gordailua: S.S. 289/1958

Inprimategia: FASPRINT-IGARA -Donostia



## EGAN LITERATURA ALDIZKARIA

### ZUZENDARIA

KORO SEGUROLA AZKONOBETA

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte

### ERREDAKZIO ARDURADUNA

IZARO ARROITA AZKARATE

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

### ERREDAKZIO KONTSEILUA

ANE ARRASTOA VILLAGRAN

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

AMAIA ELIZALDE ESTENAGA

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

IZARO ARROITA AZKARATE

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

JOSEBA SARRIONANDIA URIBELARREA

Idazlea

JUAN LUIS ZABALA ARTETXE

Idazlea. Itzultzailea

### BATZORDE ZIENTIFIKOA

IÑAKI ALDEKOA

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

IBON EGAÑA ETXEBERRIA

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

AMAIA ALVAREZ URIA

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

XABIER ETXANIZ ERLE

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

LARRAITZ ARIZNABARRETA

Center for Basque Studies.

University of Nevada, Reno

ESTIBALITZ EZKERRA VEGAS

Arizona State University

AURELIA ARKOTXA

Bordeaux-Montaigne Unibertsitatea

ALEX GURRUTXAGA MUXIKA

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

MIKEL AYERBE

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

JOSE MANUEL LÓPEZ GASENI

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

JOSU BIJUESCA

Deustuko Unibertsitatea

GORKA MERCERO ALTZUGARAI

University of Liverpool

JON CASENAVE

Bordeaux-Montaigne Unibertsitatea

MARI JOSE OLAZIREGI

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

BEÑAT SARASOLA SANTAMARIA

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

*Egan* literatura aldizkaria da, eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkartek 1948. urtetik argitaratzen du. 1953. urtean hasi zen euskara hutsez argitaratzen, Antonio Arruek, Aingeru Irigaraik eta Koldo Mitxelena aldizkariaren zuzendaritza hartu zutenean. Ordutik *Egan* euskara hutsezko aldizkaria da. Sei hilabetekaria.

*Egan* aldizkariaren aro berriko xede nagusia literatura arloko ikerketa-artikuluak argitaratzea da. Sail horretan aldizkariak leku egin nahi die saiakera eiteko idazlanei ere. Orobat argitara emango dira literaturaz diharduten liburuen aipamenak. Beste diziplina bati atxikiak izan arren, literaturarekin ageriko lotura izan dezaketen lanak ere aintzat hartuko dira. Literatura azterketen lerroa ez ezik sorkuntzarena ere zabalik du *Eganek*, eta poesia, narrazio laburrak eta itzulpenak biltzen ditu, aldizkariaren ibilbideari jarraituz.

Ikerketa-artikuluak argitaratzeko, binakako ebaluazio sistema (itsu bikoitza) erabiliko da, eta kanpoko bi aditu izango dira aztertzaile.

Artikuluen gaineko erantzukizun osoa egileena da.

*Egan* aldizkaria honako zerrenda, aurkibide eta datu-base hauetan dago: Aurkinet-Euskaldok; Dialnet; Euskal ondare bibliografiko digitalizatua; ÍNDICES-CSIC; Inguma, Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basea; LATINDEX (2.0 Katalogoa. 2018-); MIAR; REBIUN; ROAD, Directory of Open Access scholarly resources; SUDOC; WorldCat.

Webgunea: <https://www.rsbap.org/ojs/index.php/egan>



## “Euskal literatura aldizkariak eta periferiak” mintegia **EGAN aldizkariaren 75. urteurrenean**

Noiz: 2024ko urtarrilaren 10ean

Non: EHUren Carlos Santamaria liburutegian (4. gelan), Donostian

9:00-9:15 Aurkezpena. “EGANen sorrera eta bere testuingurua”

**Koro Seguro** (EGANeko zuzendaria)

9:15-9:30 “Euskal literatura 1950eko hamarkadan”

**Amaia Elizalde** (EHUko irakaslea), **Juan Luis Zabala** (idazlea)

9:30-10:00 “Iragan garaiak hobeak iruditzen zaizkigu beti. Euskal literatura aldizkariak 80etan”

**Mari Jose Olaziregi** (EHUko irakaslea)

10:00-10:30 “Erdigunearen ertzen bila. Kongsentsuak eta desakordioak XXI. mendeko euskal literaturan”

**Ibon Egaña** (EHUko irakaslea)

10:30-11:00 Etena

11:00-13:00 Mahai-ingurua: **Edurne Azkarate**, **Itxaro Borda**, **Harkaitz Cano** eta **Beñat Sarasola**

Moderatzailea: Juan Luis Zabala

# EGAN

# EUSKAL LITERATURA ALDIZKARIAK ETA PERIFERIAK

## AURKEZPENA

*Egan* literatura aldizkariaren 75. urteurrena ospatzeko ekitaldien artean, *Euskal literatura aldizkariak eta periferiak* mintegia egin zen Donostian, EHUren Carlos Santamaria liburutegian, 2024ko urtarrilaren 10ean, *Egan* aldizkariaren erredakzio batzordeak antolatuta.

Koro Seguroлак, Amaia Elizaldeк, Juan Luis Zabalak, Mari Jose Olaziregik eta Ibon Egañak hitzaldi bana egin zuten, eta ondoren Juan Luis Zabalak gidatutako mahai-inguru batean parte hartu zuten<sup>1</sup> Itxaro Bordak, Harkaitz Canok eta Beñat Sarasolak. Mintegiaren aurkezpen lanetan Iza-ro Arroita aritu zen.

Mintegiaren emaitzak eta aldizkariak bere sorreratik bultzatu dituen sortze lanak ere bildu dira ale berezi honetan, hiru ataletan banatuta.

Lehenengo atalean hitzaldien testuak datoz, eta XX. mendearen erditik XXI. mende hasiera arteko euskal literatura aldizkariaren funtzio, ibilbide eta ezaugarriak aztertzen dira. “Gerraosteko euskal literatura aldizkariak” dute gai nagusi lehenengo hiru testuek: “*Eganen* sorrera. 50eko hamarkadako euskal literaturaren agertoki” Koro Seguroла, “*Egan*: egoitzen jakitean oinarritutako biziraupena” Juan Luis Zabala, eta “Lehen literatura aldizkari heterodoxo autonomoa: *Igela*” Amaia Elizalde; hurrengo biek 70eko hamarkadatik aurrerako egoera azaltzen dute: “Euskal literatura aldizkariak 1970eko eta 1980ko hamarkadetan” Beñat Sarasola<sup>2</sup>, eta “XXI. mende hasierako euskal literatura aldizkariak eta politika kulturalak: sarrera bat” Ibon Egaña.

[1] Azken orduan Edurne Azkaratek ez zuen mahai-inguruan parte hartzerik izan.

[2] Hitzaldia Mari Jose Olaziregik (UPV/EHU) eman zuen, “Iragan garaiak hobeak iruditzen zaizkigu beti. Euskal literatura aldizkariak 80etan”, baina ezin izan du bertsio idatzia garaz bidali erredakziora. Haren ordeez, Beñat Sarasolaren artikulua dakargu, M.J. Olaziregik mintzagai izan zuen garai berari buruzkoa.

Bigarren atalean, Juan Luis Zabalak zuzendutako mahai-inguruan Itxaro Bordak, Harkaitz Canok eta Beñat Sarasolak esandakoen laburpena jaso da: *Euskal literatura aldizkariak eta periferiak. Gauzak ez dira horrela, gauzak horrelaxe daude.*

Euskal idazleen plaza izan da beti *Egan*, eta oraingoan ere horren testigantza jaso nahi izan da. Azken atalean, berariaz eskatutako sei lan bildu dira: Josu Jimenez Maia, Iñigo Astiz, Itziar Ugarte, Garbine Ubeda, Xan Idiart eta Eva Perez-Pons Andrade. Euskal literaturaren etorkizunari buruzko gogoeta egiteko ahaleginean, “euskal literatura *Egan* aldizkariaren lehen mendeurrenean, 2048an” dute ardatz edo gai nagusi sei lanok.

Lerro hauen bidez ere eskerrak eman nahi dizkiegu mintegi hartarako gonbita onartu zuten hizlarietara eta mahai-inguruko parte-hartzaileei. Orobat eskertu nahi ditugu hara hurbildu ziren entzuleak. Mila esker sortzaileei, gure deiarri erantzun eta ale berezi honetarako egindako ekarpenengatik. Eskerrik asko denei!

\* \* \* \* \*

Koldo Mitxelenaren zuzendaritzapean *Egan* aldizkariak kultura arloa euskararena ere bazela erakutsi zuenetik, bide luzea egin du. Horregatik, eta “euskararen zabalkunde, zaintza eta modernizazioarekin duen konpromisoagatik eta euskarazko literatura sustatzeko egindako lanagatik” saritua izan zen joan den urtean. *Eganek* Bikaintasunaren saria jaso zuen euskararen kategorian, Radio San Sebastián-en eskutik.

Gaur egun *Eganen* ardura daramagunok jakitun gara *Eganek* ez zuela hegaldi luze hau egingo gure aurreko gidarien ahaleginik gabe, eta horien zordun sentitzen gara: Koldo Mitxelena, Antonio Arrue, Aingeru Iriarai, Juan San Martín, Iñaki Zumalde, Guillermo Etxeberria eta Luis Mari Mujika. Era berean, aurrean ditugu idazleak, ikertzaileak eta irakurleak ere. Guztiak gogoan eta gure aitzindarien oroimenez argitara ematen dugu aldizkariaren 75. urteurrenean antolatutako mintegiaren emaitzak eta idazleen ahotsak biltzen dituen ale berezi hau.

*Egan* aldizkariaren erredakzio kontseilua



## AURKIBIDEA

2024 1/2

### HITZALDIAK

Koro SEGUROLA AZKONOBIEA. <i>Eganen</i> sorrera. 50eko hamarkadako euskal literaturaren agertoki .....	13
Juan Luis ZABALA ARTETXE. <i>Egan</i> : egokitzen jakitean oinarritutako biziraupena .....	27
Amaia ELIZALDE ESTENAGA. Lehen literatura aldizkari heterodoxo autonomoa: <i>Igela</i> .....	29
Beñat SARASOLA SANTAMARIA. Euskal literatura aldizkariak 1970eko eta 1980ko hamarkadetan .....	35
Ibon EGAÑA ETXEBERRIA. XXI. mende hasierako euskal literatura aldizkariak eta politika kulturalak: sarrera bat.....	57

### MAHAI-INGURUA

Itxaro BORDA, Harkaitz CANO, Beñat SARASOLA, Juan Luis ZABALA .....	87
---	----

### SORTZE LANAK. Euskal literatura *Egan* aldizkariaren lehen mendeurrenean, 2048an.

Josu JIMENEZ MAIA. Ehun urte zer dira, finean, zer mende bat? .....	121
Iñigo ASTIZ. Hilberriak .....	123
Itziar UGARTE. Etorkizuna II .....	127
Garbine UBEDA. Eta azkenean, gerra .....	129
Xan IDIART. Sendagailuak orain .....	133
Eva PEREZ-PONS ANDRADE. Poesiari utopian leku bat .....	135
Idazlanak aurkezteko jarraibideak .....	139

HITZALDIAK.  
EUSKAL LITERATURA ALDIZKARIAK

## Gerraosteko literatura aldizkariak

1. *Eganen* sorrera. 50eko hamarkadako euskal literaturaren agertoki.
2. *Egan*: egokitzen jakitean oinarritutako biziraupena.
3. Lehen literatura aldizkari heterodoxo autonomoa: *Igela*.



# **Egan aldizkariaren sorrera. 50eko hamarkadako euskal literaturaren agertoki**

Koro SEGUROLA AZKONBIETA  
*Egan aldizkariaren zuzendaria*

*Egan* literatura aldizkariaren sorreraz hitz egitean, hainbat galdera datozkigu burura: *nor izan ziren bultzatzaileak? Zein zen euskal argitalpenen egoera 50eko hamarkadan? Zertarako sortu zen Egan? Nola? Zer testuingurutan? Aldizkari bakarra al zen? Nork eta nola idatzi zuen Eganen? Nork zuzendu zuen? Zer eragin izan zuen?*, beste batzuen artean. Behar den sakontasunez guztietei erantzuteko saio mugatua denez, erantzun labur batzuk emango ditugu.

## **Aldizkariaren sortzaileak eta gerraosteko argitalpenen testuingurua**

*Egan* aldizkaria XVIII. mendeko bigarren erdian jaio zen Euskalerrian Adiskideen Elkartek sortu zuen, 1948an. Elkartearen sorrerako arrazoietakoa bat kultura lana izan zen, eta etengabeko kezka XVIII. mendeko jarduera handienaren garaian: “es acaso el hecho más trascendental de la historia vasca en el orden cultural. [...] Lo que importa sobre todo lo señaló ya el mismo Urquijo: «Exámínese... la labor de la discutida Sociedad Económica Bascongada con anteojos ortodoxos o con gafas librepensadoras, nunca podrá negarse al conde de Peñafiorida y a sus amigos el mérito de haber sido los promotores de la cultura en nuestro país»” (Mitxelena, 2011 [1960b], 153. or.). Orduan ez zen akademiarik, baina horietatik hurbilen egon zitekeen erakundea zen (Areta, 1976, 365. or.; Bijuesca, 2010, 882-883. or.). Adiskideen Elkartearen sorreratik agertu zen

euskara lantzearen alde, eta euskarazko testugintza sustatu zuen, 1765eko lehen estatutuetan erakusten den bezala (*Estatutos*, 1765, 7-8. or.). Besteak beste, eta Xabier Munibe Elkarteko lehen zuzendariak egin-dako lanez gain, XVIII. mendearen amaieran (*Extractos...* 1781, 89-105. or.) euskal hiztegi bat egitea bultzatu zuen, Jose Ignacio Maria Aizpitarteren ardurapean utzi zuena (Segurola, 2023, 66-88. or.). Halere, Adiskideek akademia literario batenak baino egitasmo zabalagoak eta sakonagoak zituzten (*Estatutos*, 1765, 1. or.).

Xehetasun gehiagotan sartu gabe, Adiskideen Elkartek 260 urteko historian garai ezberdinak ezagutu ditu, eta XIX. mendeko gatazka politikoak zirela-eta ia desagertu egin zen. Labur esateko, XX. mendeko 40ko hamarkadan (1943an) suspertu zen berriro, euskalduntasunarekiko susmo txarrak nagusi ziren giroan eta hainbat oztopo gainditu ostean (Martínez, 2014, 20. or.). Garai berri honetako lehen ekitaldi akademikoa 1944ko ekainean egin zen, Julio Urkixo euskaltzaina Adiskideen Elkarteko presidente zela (Martínez, 2014, 22-23. or.; Ugarte, 2019b, 3. or.). 1945ean Elkartea Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiko (CSICEKO) Gipuzkoako Ordezkarri Ofiziala izendatu zuten. J.M. Urkiaren hitzetan, lorpen erabakigarria izan zen hura urte haietako zentsura zorrotza saihesteko; era berean, aukera bakarra euskaraz idazteko eta *Egan* aldizkaria sortzeko (in Aycart, 2006, 172 or.; 183. or.). Hala adierazten du Parisko *Euzko Deyak* ere 1949ko artikulu batean, gerraosteko jazarpen faxistaren eta hamar urte ondorengo euskararen egoera funtsean ezberdinak ote ziren galdetzean:

La situación es hoy algo distinta [...]. Conforme, replicarán otros. Pero se trata de actividades suscitadas o toleradas por el régimen con propósito de propaganda política y, por lo tanto, estrechamente controladas. *El Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País y su suplemento «Egan» no son publicaciones libres, desde el momento en que dicha entidad es delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas (Euzko Deya 1949-12-15, in Ugarte, 2019a, 173-174. or.). [Letra etzana gurea].*

Adiskideen Elkartek izan zituen beste laguntzaile batzuk ere gerraosteko hamarkada horretan euren argitalpenetarako, ikusiko dugun moduan, eta uste izatekoa da haien esku-hartzerik gabe ez zirela, noski, garai hartan kaleratuko. Gogora dezagun, izan ere, Espainiako Gerra Zibilak bat-batean eten zuela kultura- eta literatura-jarduera, azpiegitura desegin eta hizkuntza jazarpen bortitza gertatu zela. Euskaraz idatzitako edo euskal gaien inguruko argitalpenak bertan behera gelditu ziren. Erbestera joan behar izan zuten idazle askok. Erbesteko eragileen artean,

nabarmentzekoak dira Ekin argitaletxea, gerraondoko lehena, 1942an Buenos Airesen sortua, eta Jokin Zaitegik 1950ean Guatemalan abiarazi zuen *Euzko-Gogo*a aldizkaria, 1956an Miarritzera aldatu zena.

Barruko edo Hego Euskal Herriko euskal literaturari dagokionez, eta Joan Mari Torrealdaik euskal liburuaren zentsuraz egindako azterketaren arabera, 1941-1945eko epealdia izan zen gogorrena, zentsura irizpideak gogortu eta aurretiaz emandako baimenak ere gainbegiratu egin zirelako (1995, 141. or.; Joan Mari Torrealdaik Karlos Otegiren [1985] irizpideak eta sailkapena jarraituz [1995, 571. or.], hiru aldi nagusi zehazten ditu azterketarako [1936-1955, 1956-1975 eta 1976-1983], Francoren erregimenaren jarrera eta ekintzak testuinguru soziopolitikoaren arabera aldakorrak izan zirelako).

40ko hamarkadaren erdi aldera, badirudi aurreneko hamar urteetako gogorkeria samurtu egin zela aldaketa politikoak tarteko. Giroa baratzen hasi zen, falangistek boterea galtzarekin eta Francoren hirugarren gobernuan Pedro Rocamora Propagandako delegatu nazionalaren sarrerarekin 1945ean (Torrealdai, 2000, 70. or., 85. or.; Rocamora 1945etik 1951 arte izan zen Propagandako zuzendari orokorra). Garai berri bat abiatu zen euskarazko liburuentzat. Literatura-lana erbestetik barnealdera pasatu zen *Egan* aldizkariari eta lehen argitalpenei esker. Hala, Pedro Rocamoraren bitartekaritza esker (liburuen alorrean [eta zentsuran] arduradun nagusia baitzen), hainbat liburu argitaratu ziren: Salvatore Mitxelearen *Arantzazu. Euskal sinismenaren poema* (1949), Orixeren *Euskaldunak* (1950) eta Jon Etxaideren *Alos Torrea* (1950). Uste izateko da, Joan Mari Torrealdaik dioen moduan, liburu horiek ez zirela baimenduak izango Pedro Rocamoraren laguntzarik gabe. Antza denez, ez dago zalantzarik hark izan zuen eragina euskal argitalpenen berrikuntzan. *Egan* eta *Arantzazu* aldizkarien euskarazko atalen argitalpenean ere erabakigarria izan zen Rocamoraren esku-hartzea, gero zehaztuko dugun moduan.

Badirudi sentsibilitate ezberdinak agertzen hasiak zirela, eta euskaren txikiziotik asimilaziora pasatzen da zentsura. Euskara ere Espainia handiaren aberastasun bat gehiago zen, baina tradizioaren elementu moduan (Torrealdai, 2000, 70. or.). *Euzko Deyak* 1949an argitaratutako artikuluan (goian aipatu dugun horretan) adierazi zuenez, zenbait esparrutan euskararekiko tolerantzia ez zen frankismoaren liberalizazio zantzua, euskal gizarteak, erbestekoak barne, eragindako presioaren garaipen mugatua baizik (in Ugarte, 2019a, 173. or.).

## Gerraosteko Hegoaldeko lehen agerkariak: Egan, lehen literatura-plataforma (1948)

Euskal argitalpenentzat abiatu zen garai berri horretan, Hego Euskal Herrian euskal gaien inguruko lehen argitalpenak Adiskideen Elkartearen eskutik heldu ziren, Jon Etxaidek “Francotar euskaltzaleak(?)” izendatu zituen horiengandik. Elkarteak Pedro Rocamoraaren —Propagandako buruaren— eta Antonio Tovarren —falangista eta euskaltzalearen(?)— laguntzaz egin zituen lehen argitalpenak (Torrealdai, 2000, 77. or.), batik bat zientziaren bidetik: 1945ean *Boletina* sortu zuen (ikus Aycart 2006. Manso de Zuñiga —Arabako Falangekoa— zen *Boletineko* zuzendaria eta Tovar kolaboratzailea), 1947an argialetxe bat, Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, eta 1949an *Munibe*, natura zientzien aldizkaria. Antonio Tovarrek Joan Mari Torrealdairi idatzitako gutun batean, honela zioen *Boletineko* kolaborazioaz, argitalpenerako eskainitako laguntzaz eta *Eganen* sorreraz:

Salí del Ministerio de Gobernación y me desligué de la política activa. [...] Surgió entonces[?] la Real Sociedad Vascongada, impulsada por Areilza y el Conde Peñaflorida, y otras personas, y desde el primer número fuí colaborador del Boletín. Los restos de mi antigua influencia política (fuí Consejero del Movimiento hasta 1958) me permitían apoyar ante los gobernadores, sobre todo de Guipúzcoa, la existencia de la revista. Esta fue tomando fuerza y yo fuí desapareciendo de esta labor [...]. Salvo para las publicaciones eclesiásticas, donde la censura era más abierta, la apertura para la literatura comenzó, me parece, con el suplemento *Egan* del Bol. de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País. En su aparición me parece que tuvo mucha parte Michelena, como él mismo ha contado (in Torrealdai, 2000, 77-78. or.). [Letra etzana gurea].

*Boletineko* lehen alean argitaratu zuen Antonio Tovarrek, hain zuzen, “Notas sobre el vasco y el celta” artikulua. Bestalde, ezaguna da Tovarrek Koldo Mitxelenari eskaini zion babeseta eta laguntza Urkixo Mintegitik Salamancako katedraraino. Koldo Mitxelena 1956an izendatu zuten *Boletineko* erredakzio batzordeko kide, nahiz eta 1951n proposatua izan.

Adiskideen Elkarteak lehen saioak zientziaren alorretik egin bazituen ere, literatura ez zuen baztertu nahi izan, sorreratik adierazitako eran, eta José Miguel Azaolaren eta beste batzuen ekimenez 1948an *Egan* sortu zuen Donostian. Hiru urte lehenago sortutako *Boletinare*n literatura gehigarri gisa argitaratzen hasi zen, gaztelaniaz eta euskaraz. Geroko bilakae-  
ra bestelakoa izan bazen ere, garai hartan argitalpenerako baimena eman



zuten agintari frankisten aldetik, bederen, aldizkariaren sorrerak helburu bikoitza zuen: euskara antisabindarra bultzatu, euskara nazionalisten bandera ez zela frogatzeko, eta erbesteko erresistentziak zeraman kultura lana oztopatu (Torrealdai, 2000, 75. or.). Baimena eskatzeko garaian, Manso de Zuñiga *Boletineko* zuzendariak Pedro Rocamora Propagandako delegatu nazionalari honela idatzi zion:

Habremos de publicar en él, estudios literarios y poesías y cuentos en castellano y en vascuence, tanto para *combatir el vascuence de laboratorio que hicieron en su día los separatistas vascos* como para no dejarles esta lengua como bandera política pues tal es el uso que quieren hacer de ella, en sus publicaciones, los emigrados políticos que viven al otro lado del Pirineo (in Torrealdai, 2000, 74. or.). [Letra etzana gurea].

Beraz, zentsura hizkuntza motari zegoen lotua aldi horretan. Jarrera bera erakutsiko zuen geroago zentsurak euskara batuarekin. Urte hartan, 1948an, amaitu zuen Koldo Mitxelena bigarren kartzelaldia, eta handik hiru urtera, 1951n, *Eganen* argitaratu zuen euskaraz lehen lana, “Euskal literaturaren etorkizuna” (Mitxelena, 2011 [1951]). *Egan* literatura gehigarria gazte-jendeari begira jaio zen, gazteriaren kezka literarioak biltzeko, eta euskal idazleen lanak plazaratzeko lehen plataforma gertatu zen, gerraosteko Hego Euskal Herrian. 1948ko *Boletineko* 2. zenbakian (262-263, Miscelánea sailean) eman zen *Eganen* sorreraren berri. Aldizkariaren 1948ko lehen aleko sarreran ere literaturaz ariko den eta sorkuntzari helduko dion argitalpen elebiduna izango dela adierazten da: “haremos literatura simplemente [...]. EGAN viene, pues, a decir poesías y cuentos; y a hablar algún rato, de literatura [...]. Las poesías las diremos, unas veces en castellano y, otras, en vascuence; y los cuentos, también. [...] EGAN aldizkari’choan argitaratuko dira, tarteka bada ere, Ipui zaarrak eta kantak eta neurtizak, denen atsegiñerako eta idazle berrien erakusgarri bezela” (1948, 1-2. or.). Elkarteko Gipuzkoako Sailak 1948ko uztailaren 23an egin zuen batzarraren agirian, *Egan* argitaratzeko baimenaren zain direla adierazten da:

No habiendose recibido aun de la Dirección General de Prensa la autorización indispensable para la publicación del naciente suplemento del Boletín, se acuerda esperar a su llegada para distribuir el cuaderno 2º año IV, al que irán unidos los dos números aparecidos. Como se hizo la oportuna gestión por escrito y de palabra cerca de dicho organismo del Estado, por los señores Conde de Peñaflores y Ciriquiain, manifestaron estos que confían en una pronta y favorable resolución (1948. Batzar agiria. Batzarkideak: D. Julio de Urquijo, Fernando del Valle, Conde de

Peñaflorida, Mariano Ciriquiain, Amadeo Delaunet, Joaquin M. Baroja eta Jose M<sup>a</sup> de Azaola. 1943an Julio de Urquijo presidente izendatu zuten, eta agiria sinatzen du Delaunet idazkarariarekin batera).

*Egan* “aldizkaritxoa” izango zen, *Boletin*arekin batera argitaratuko zen literatura koadernoan. Garai horretan Prentsako zuzendari orokorra Tomás Cerro zen, eta aldizkariak horren mende zeuden; itxura denez, oso itxia zen euskararekiko, eta ez zuen inolako baimenik eman nahi euskaraz argitaratu ahal izateko. Pedro Rocamorak, Propagandako delegatu nazionalak, aldiz, euskara onartzen zuen, eta bera izan omen zen *Egan* faszikulu gisa ateratzea proposatu zuena, gero *Aránzazu* aldizkariarekin egin zuen bezala; izan ere, faszikuluak Propagandaren mende zeuden (Torrealdei, 1995, 135. or.). Horri dagokionez, José Lizarralde Kantabriako Frantziskotar Probintziako idazkariaren testua argigarria da, *Aránzazu* aldizkariaren zuzendariari idatzia: “La misma solución que para *Aránzazu* ha debido sugerir el Sr. Rocamora a los “Amigos del País” y amigos suyos, según dicen para la publicación, con partes en vasco, de los fascículos *Egan* que ha debido levantar una polvareda en Madrid y por aquí [...] (in Torrealdei, 1995, 135. or.).

*Egan* izena asmatu zuen Fausto Arozena arduratu zen hasieran gehigarriaren euskarazko atalaz, Aingeru Irigarairen laguntzarekin (Ugarte, 2019b, 30. or.). Gero argitalpen lan hori Jose Artetxek egin zuen, Gipuzkoako Aldundiko liburuzainak, baina oso lanpetuta zegoenez, 1953an euskara hutsean argitaratu zen zenbaki bakarra Koldo Mitxelena-ren arduraz izan zen.

Garai hartan, idazlerik garrantzitsuenen lanak argitaratu zituen *Eganek* gaztelaniaraz eta euskaraz: Blas de Otero, Gabriel Celaya, Jose Migel Azaola, Mariano Ciriquiain...; Manuel Lekuona, Salvatore Mitxelena, Emerico Arrese, Federiko Krutwig, besteak beste.

### ***Eganen* “asmo berria” (1953)**

50eko hamarkadan Adiskideen Elkarteko kideen jarduerak aurrera jarraitu zuen. 1953. urtean heldu zen *Egan* aldizkariaren aldaketa: gaztelaniari ere leku eginez abiatu zena, bost urteren buruan erabat euskarazko aldizkari bihurtzea. *Egan* izan zen 40ko hamarkadan elebidun sortu eta elebakartasunera aldatu zen euskal aldizkari bakarra (San Martín, 1984, 5. or.). Aldaketa adierazgarri honen ingurukoak Adiskideen Elkarteko 1952ko eta 1953ko batzar agirietan jasotzen dira. Elkarteko Gipuzkoako Sailak 1952ko abenduaren 6an egindako batzarrean, *Eganen* argi-

talpena etetea erabaki zuen, inprimatze lanak garestiak zirelako (EAE 161 Batzar agiria. 1952an 3 ale argitaratu ziren). 1953an, eta Donostiako Julio Urkixo Mintegia sortzearekin batera, Elkarteko Gipuzkoako Sailak 1953ko azaroaren 6ko batzarrean *Boletinaren* gehigarri gisa argitaratzen jarraitzea eta urte horretan ale bakarra kaleratzea erabaki zuen. Ez zen zehazki esaten euskara hutsean izango zenik, baina literatura lanak eta euskaltzainen hitzaldiak argitaratuko zirela adierazten zen:

publicándose en un volumen los dos últimos trimestres de este año, insertándose en ella los trabajos literarios y las Conferencias que los profesores de la Academia Vasca celebran en el último jueves de cada mes, los cuales están dispuestos con sumo gusto a colaborar, con lo cual se dará nueva vida a la revista que seguirá en calidad de suplemento del Boletín. [...] Egan debiera convertirse en órgano de divulgación de los temas euskéricos [...] (EAE 192 Batzar agiria).

1953an, adierazi bezala, ale bakarra kaleratu zen (1953, 1-4), euskara hutsean eta Koldo Mitxelenaren ardurapean (idazlanen artean, A. Irigarai 1953an P. Axularri buruz emandako hitzaldia). Ale hori, halere, ez zen 1954ko udaberri arte argitaratu. Julio Urkixo Mintegiko hiru kideek eta euskaltzainek, Antonio Arruek (1903-1976), Aingeru Irigaraik (*Apat Etxebarne*, 1899-1983) eta Koldo Mitxelenak (1915-1987) hartu zuten *Eganen* ardura, eta *Boletinaren* gehigarri literario xumea zena, aldizkari duina bilakatu zuten. Bestalde, hiru arduradunak euskaltzainak izanik, ez zen harritzekoa Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala etenda egon zen bitartean *Eganek* bete izana zeregin hori, neurri batean, goiko aipamenean aditzera ematen den gisan. *Egan* aldizkarian 1953an hasitako aldiak 1987 arte iraun zuen, hau da, Koldo Mitxelena zendu zen urte arte, hain zuzen.

*Egan* aldizkarirako zituzten “Asmo berri”ak 1954ko 2-4 alean plazaratu zituzten. Ale hori, ordea, ez zen 1955eko otsail arte argitaratu, nahiz eta 1954ko data eraman (Ugarte, 2019b, 31. or.). Aldizkarian argitaratzeko baldintza bakarra euskaraz izatea zen, eta kultura esparrua euskararena ere bazela erakutsi zuten. Garai horretarako, halere, Koldo Mitxelenak bere asmoak adierazi zituen —hizkuntza indarberritzea, eredu berria lantzea, munduaz ere euskaraz aritzea, euskal kultura modernizatzea...— 1951n *Eganen* argitaratu zuen “Euskal literaturaren etorkizuna” gogoetalan jakingarrian (Mitxelena, 2011 [1951], 78-79. or.). Euskal literatura ez ezik, euskal kultura eta euskal gizartearen etorkizuna ere hizpide hartzen ditu, bederatzi urte geroago *Eganeko* “Asaba zaharren baratza” lanean dioen bezala: “Eta euskal literaturari begiratu nahi nioke, batez ere gaurko, gure arteko gogo-giroaren ezaugarri eta salatari den aldetik” (Mitxe-

lena, 2011 [1960a], 97. or.). *Egan* aldizkaria izan zen, hain zuzen, XX. mendaren erditik aurrerako *gogo-giroa* plazaratzeko bidea. Aldizkariaren sorrerako lehen helburu hartatik urruntzen dira oraingo zuzendariak, Lizardiren bidetik hizkuntza larrekoa noranahiko bihurtzea baitzuten xede.

Antonio Arruek —zuzendarikideak eta euskaltzain karlistak— 1955eko Donostiako Euskal Astean “euskeraren batasuna”z hitz egin zuen, eta han euskal literaturaren historia ondo ezagutzen zuela agerian utzi zuen (Zavala, 2008, 31-43. or.). Besteak beste, euskara berri beharraz hitz egin zuen Arruek ere; euskararen batasunerako ereduaz: “Lapurdikoz izkeraren gañetik Gipuzkoakoari eman bear zaio aurreratasun gutxi bat bederik”, eta Euskaltzaindiaren gidaritzapean eredu hori euskal aldizkari guztiek jarraitu beharko luketela adierazi zuen, *Eganen* ahalegin hori egiteko asmoa ere agertuz:

Baldin orain arte bezalako arrera ona aurrera ere gure «Egan»-i euskal irakurleek egiten ba-die, denbora asko bano len zertxobait saiaturko gera, bear-bada, «Egan»-en orrialdeetan lanbide ontan. Ez gaude beintzat asmoa galduta (Zavala, 2008, 40. or.).

Horren berri eman zuen Aingeru Irigaraik, *Eganeko* zuzendarikide nafarrak, aldizkariko *Naas-Maas* sailean, “berri jakingarriak” izenburupean: “Aurtengo itzaldia Antonio Arrue gure lankide jaunak egin zuen Literatur-euskera batasunari buruz: arlo korapilotsua eta gai sakona, errez azaldu ez daitekena” (*Egan*, 1955, 5/6, 42. or.).

Koldo Mitxelena idazle berrien bultzatzaile ez ezik euskararen batasunaren eragile nagusia ere izan zen. *Eganen* aldaketa, bada, norabide batean baino gehiagotan eman zen. Mitxelenak 1955ean Orixeri idatziko gutun batean azaldu zionez, *Egan* berrituak saiakera, literatura, zinemakritika eta euskarari eta euskal literaturari dagozkion gaiei buruzko elkarriketak bildu nahi zituen aldizkaria izan nahi zuen, eta, hortaz: “Datorren zenbakia ezker, izenez ala badarrai ere, izanez aldatuxea ateratzeko asmotan gera” (in Urkizu, 2004, 43. or.). Berritasun hori zen frankismoak borrokatzen zuena, hau da, kultura tresna gisa erabili nahi zen euskara, euskara jaso. Antonio Arrue, besteak beste, agintari frankisten baimen eta laguntza ofizialak lortzeaz arduratu zen (Zavala, 2008, XIV-XV. or.). Haren eta probintzia-agintari batzuen babesari esker, *Eganek* zentsura ofizialarekiko zenbait pribilegio izan zituen.

Garai hau ikertu zuen Joseba Intxaustiren hitzetan, *Egan* eta *Euzko-Gogo* aldizkariak euskal kulturara berritasuna zekarten, kultura jaso eta

eskolatua euskaraz ere egin zitekeela baieztatu zutelako: “Esperientzia berri hau ezinezkoa zen 1940ko hamarkadan, baina egingarria gertatu zen hurrengoan” (Intxausti, 2014 [2007], I, 356. or.). Gaia ikertu ez ezik garaiko lekukoa ere izan zen Intxausti, eta zer-nolako giroa sortu zuten azaldu zuen honela: “Garaiko gazte euskaltzaleok adi-adi geunden Euzko-Gogoari zein Egani, aldizkari bakoitzak baitzituen bere xarma eta erakarmena, elkarren osagarri edo kontrajarriak zirenak” (Intxausti, 2014 [2007], I, 358. or.). Izan ere, ezberdinak ziren bi argitalpenetako kultura egitasmoak. Era berean, *Euzko-Gogoak* (Zaitetik 1950ean Guatemalan sortuak) urruntasunaren desabantaila zuen; *Egan*, berriz, Donostian argitaratzen zen, zentsurak ezarritako mugak pairatzen zituen. Egoera horrek barnealdeko eta erbesteko eragileen artean liskar gorra ere eragin zuen, Koldo Mitxelenak aitortu zuen moduan: “Existía la idea de que, al no existir libertad de expresión en el interior, la gente del exilio representaba mejor al País; los del exterior consideraban que no reflejábamos con autenticidad la realidad vasca. Naturalmente, nosotros pensábamos exactamente lo contrario” (in Ugarte, 2019b, 31. or.).

Ordura arte euskaraz landu gabeko gaiak zabaldu zituen *Eganek*, eta egile gazteak hurbildu ziren gai berriak erakarrita. Alde horretatik, aitzindari aitortu zuen bere burua Koldo Mitxelenak *Denbora bateko zinema paperak* (1954-1961) bildumako aitzinsolasean: “*Egan* izan da, nik dakidanez, gure artean eta euskaraz lehenbiziko aldiz zinema-gaiak jarraikiro astindu dituen aldizkaria” (Mitxelena, 2011 [1954-1961], 395. or.).

Hainbat belaunalditako idazleen bilgune izan zen *Egan*: Koldo Mitxelena, Jon Mirande, Txomin Peillen, Txillardeggi, Gabriel Aresti, Antonio Maria Labaien, Nemesio Etxaniz, Piarres Larzabal, Jon Etxaide, Piarres Lafitte, Bitoriano Gandiaga, Eusebio Erkiaga, Federiko Krutwig, Juan San Martín, beste batzuen artean. Jon Miranderen lana *Euzko-Gogo*a eta *Igela* aldizkarien bidez ere ezagutzera eman zen, ondoren Amaia Elizalde azalduko duen moduan. Aro horretako azken hamarkadan ere, idazle, poeta gazteek baliatu zuten *Eganen* plaza: Bernardo Atxagak, Anjel Lertxundik, Mikel Lasak, Daniel Landartek, besteak beste.

“50eko literatura-taldea” osatzen zuten aldizkariaren hiru arduradunek, Etxaide eta Erkiagarekin batera, Jon Kortazarren iritziz: “Esango nuke gune horri 50eko literatura-taldea dei geniezaiokeela. ‘Asmo berri’ manifestuak taldearen aurkezpena egiteko balio dezake” (2000, 130. or.). Belaunaldi baten ezaugarriak ere bazituen *Eganen* inguruan bildutako idazle taldeak (Krutwig, Irigoien, Aresti, San Martín, Txillardeggi, Peillen,

Mirande). Haien helburuen artean, euskal literatura berritzea edo eguneratzea zen, baina batik bat morrontza politikotik, erlijiosotik edo folklorikotik askatzea, literaturan zeregin estetikoa nagusitu zedin (Olaziregi, 2002, 68. or.). Adierazi ditugun *Eganen* asmoekin bat eginez, euskara kultura bideratzeko tresna izatea lortu nahi zen.

### Urte mugarrria: 1956

Euskal kulturarentzat urte mugarrria izan zen 1956a: Euskaltzaindiak antolatu zuen Arantzazuko I. Biltzarra eta Eusko Jaurlaritzak deituta Parisen egin zen Euskal Batzar Orokorra gertakari esanguratsuak izan ziren, bietan ere euskararen etorkizuna izan zen eztabaidagai nagusi (ikus *Egan*, 1956, 5/6, 123-127. Arantzazuko batzarrerako baimena Antonio Arrueren laguntzaz lortu zen: Zavala, 2008, XIV-XV. or.). Bestalde, argitalpen berriak sortu ziren eta aurrekoek gorakada nabarmena egin zuten: *Jakin* aldizkaria sortu zen, eta Arantzazuko batzarkide haien artean zabaldu zen lehenengoz; *Euzko-Gogoa* orduan heldu zen Guatemalatik Iparraldera; *Euskera* aldizkariak ere gerraosteko lehenengo ale trinkoa kaleratu zuen, eta *Eganek* biderkatu egin zituen bere orrialdeak, orduko eta hurrengo hamarkadako Mitxelenaren kritika-lanek ahalbidetu zuten gorakada hori (Intxausti, 2014 [1981], 315-316. or.).

Garai hori edo orduko giroa aztertuz, Jean Haritzelharrek ere *Eganek* zuen arrakastaren eta zabaltzen zituen lanen berri eman zuen (orduan euskaltzainburu zela eta Koldo Mitxelenari eskainitako mintzaldi batean):

*EGAN* aldizkariak bazuen arrakasta eta han irakur daitezke Mitxelenaren kritika artikulua, bai berrargitalpenak, hala nola Lizardi-ren “*Biotz-begietan*”, Txomin Agirrerren *Garoa*, bai berrikitan kaleratu ziren obrenak, Yon Etxaide-ren *Joanak joan*, Txillardegiren *Leturia'ren egunkari ezkutua*, Peru Leartza'ko, Villasante-ren *Nere izena zan Plorentxi*, Larzabal eta Labayen-en antzerkiak eta bertze, horiek guziak 1954-1962-ren artean (Haritzelhar, 1992, 10. or.).

*Eganek*, bada, ez zituen garaiko idazleak bertan idaztera bakarrik bultzatu, haien idatziek oihartzuna izan zezaten ere ahalbidetu zuen. Era berean, aldizkaria hizkuntzaren historian eta euskal literaturan eman ziren gertakari eta aldaketen lekuko ez ezik, esku-hartzaile ere izan zen (Mitxelenaren *Denbora bateko zinema paperak* bildumako goiko aipamena gogoan). Alde horretatik, *Eganeko* orrialde haiek baliagarriak eta ezinbestekoak ere badira garai hura berreraikitzen laguntzeko.

## Berritasunari eutsiz

Aldizkariaren bi zuzendarikideak —Antonio Arrue eta Aingeru Irigarai— zenduta, Koldo Mitxelena eta Juan San Martin euskaltzainaren ardurapean egon zen *Egan* 1983tik 1987 arte: “Berria eta berrikeria ondo bereizten genizkien, eta emaitza onaren jabe zen tradizioari eutsi nahi genion. Edonola ere, portu onera eraman nahi genuen ontzia iduritzen zitzaigun Mitxelena eta biori, eta zela-hala aurrera jokatuz jarraitu genuen” (San Martin, 1990, 7. or.). Berriro, ordea, “bizitzaren legeak” markatzen du beste aldi baten hasiera aldizkariaren ibilbidean, 1987an Koldo Mitxelena hil ondoren, hain zuzen, baina ordurako aldizkaria periferikoa izatera pasatua zela ere esan daiteke, Juan Luis Zabalak zehatzago azalduko duen gisan. Juan San Martin euskaltzainak orotara sei urtez izan zuen *Egan*en ardura, nahiz eta aldizkarian 60ko hamarkadatik parte hartu zuen. *Otsalar* poetarentzat *Egan* literatura-lanen erakusleihu gertatu zen: “EGAN-ek bere orriak lau haizetara zabaldurik eduki ditu” (San Martin, 1990, 7. or.).

Halaxe erakusten dute 50eko hamarkadan euskara hutsezko *Egan* hura sortu eta hartan idatzi zuten egileen izenek, aldizkaria euskal literaturaren “erdigunean” zela, alegia. Ia etenik gabeko ibilbide luze honetan, gainera, *Egan*ek hainbat aldizkari ikusi ditu bere aldamenean jaiotzen eta desagertzen: *Euzko-Gogo*a (1950-1959), *Olerti* (1959-1969, 1980-1995), *Igela* (1962-1963), *Ustela* (1975-1976), *Pott* (1978-1980), *O! Euzkadi* (1979-1983), *Susa* (1980-1994), *Pamiela* (1983-1993), besteak beste, nahiz eta batzuek argialetxea sortu eta jarraipena izan duten; *Egan*ek, aldi berean, egitasmo berri haiek eta ondotik sortutakoek eraginda, itzalean jardun zuen, hurrengo hizlariek azalduko duten moduan.

## Bibliografia

- Areta Armentia, L.M. (1976). *Obra literaria de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*. Gasteiz.
- Aycart Orbegozo, J.M. (2006). El nacimiento de un Boletín. *Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País-Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte*. BAP, 62-1, 171-192.
- Bijuesca, K.J. (2010). Praktika literarioaren esparru sozialak eta XVIII. mendeko euskal literatura penintsularra: *Naissance de l'écrivain?*. *Euskera*, 55-2, 877-914.



- Estatutos de la Sociedad Bascongada de los Amigos del País, según el Acuerdo de sus Juntas de Vitoria. Por Abril de 1765.* San Sebastián: L.J. de Riesgo.
- Extractos de las Juntas Generales celebradas por la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País en la villa de Bilbao por setiembre de 1781.* Vitoria: Tomás de Robles.
- Haritxelhar, J. (1992). Baina nik, (izkuntza larrekoa) nai aunat ere nora-naikoa. *Egan*, 7-18.
- Intxausti, J. (2014 [1981]). 1956: urte mugarri bat. In *Euskara eta Hizkuntzak Gizartean. I. Aitorpenak. Ekinbideak* (315-330. or.). Bilbo: Euskaltzaindia, Etxeberri Bilduma. [Jat. ed. (1981). *Jakin*, 21, 35-49].
- Intxausti, J. (2014 [2007]). *Jakin* (1956), aurreko eta berehalako testuinguruan. In *Euskara eta Hizkuntzak Gizartean. I. Aitorpenak. Ekinbideak* (351-375. or.). Bilbo: Euskaltzaindia, Etxeberri Bilduma. [Jat. ed. (2007). *Jakin*, 53-76].
- Kortazar, J. (2000). *Euskal literatura XX. mendean*. Zaragoza: Las Tres Sorores.
- Martínez Ruiz, J. (2014). Memorias de La Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. BAP, 70-1/2, 5-43.
- Mitxelena, K. (2011 [1951]). Euskal literaturaren etorkizuna. In J. A. Lakarra & I. Arzalluz Ruiz (arg.), *Obras Completas XIV* (75-80. or.). Donostia / Gasteiz: ASJU / Gipuzkoako Foru Aldundia-Diputación Foral de Gipuzkoa / UPV-EHU. [Jat. ed. (1951). *Egan*, 3, 17-21].
- Mitxelena, K. (2011 [1954-1961]). Denbora bateko zinema paperak. In J. A. Lakarra & I. Arzalluz Ruiz (arg.), *Obras Completas XIV* (395-461. or.). Donostia / Gasteiz: ASJU / Gipuzkoako Foru Aldundia-Diputación Foral de Gipuzkoa / UPV-EHU. [Jat. ed. 1954-1961 bitartean *Egan* literatura aldizkarian argitaratuak. Guztiak liburu batean 1981ean, eta horren edizio berria egin du Inazio Mujika Iraolak: (2006). Denbora bateko zinema paperak (1954-1961). Irun: Alberdania].
- Mitxelena, K. (2011 [1960a]). Asaba zaharren baratzea. In J. A. Lakarra & I. Arzalluz Ruiz (arg.), *Obras Completas XIV* (97-111. or.). Donostia / Gasteiz: ASJU / Gipuzkoako Foru Aldundia-Diputación Foral de Gipuzkoa / UPV-EHU. [Jat. ed. (1960). Asaba zaarren baratza. *Egan*, 3/4, 121-134].
- Mitxelena, K. (2011 [1960b]). *Historia de la literatura vasca*. In J. A. Lakarra & I. Arzalluz Ruiz (arg.), *Obras Completas XIII* (81-205. or.). Donostia /



- Gasteiz: ASJU / Gipuzkoako Foru Aldundia-Diputación Foral de Gipuzkoa / UPV-EHU. [Jat. ed. (1960). Madrid: Minotauro].
- Olaziregi, M.J. (2002). *Euskal eleberraren historia*. Bilbo: Labayru Ikastegia; Amorebieta-Etxanoko Udala.
- Otegi, K. (1985). Euskal sorketa literarioa (1939-1984). In J. Intxausti (arg.), *Euskal Herria, II: Errealitate eta egitasmu / Realidad y proyecto* (434-448. or.). [Oñati] / Arrasate: Jakin / Lankide Aurrezki Kutxa.
- San Martin, J. (1984). *Egan* aldizkaria 30 urte euskal literaturagintzan. *Egan*, 5/6, 5-7.
- San Martin, J. (1990). *Egan*-en berraurkezpena (Donostian 1990eko uztailaren 28an). *Egan*, 1/3, 6-8.
- Segurola, K. (2023). Letra Ederrak eta euskara Euskal Herriaren Adiskideen egitasmuetan. *Nuevos Extractos*, 58-98. RSBAP.
- Torrealdai, J.M. ([1995] 2024). *La censura gubernativa y el libro vasco (1936-1983)*. *Análisis de los informes del lectorado*. Jakin. [1995: Deustuko Unibertsitatea. 1991n irakurritako doktore tesia].
- Torrealdai, J.M. (2000). *Artaziak: euskal liburuak eta Francoren zentsura, 1936-1983*. Susa.
- Ugarte Muñoz, A. (2019a). *Gerraosteko Euskaltzaindiaren Historia Kulturala (1936-1954)*. Euskaltzaindia (Iker 35); Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Ugarte Muñoz, A. (2019b). Luis Michelena (Koldo Mitxelena) y la creación del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo (1947-1956). *ASJU*, 1/2, 1-38.
- Urkizu, P. (2004). Koldo Mitxelenaren euskal gutunak (1951-1984). *Bilduma* (Errenteriako Udal Artxibo Zerbitzuko aldizkaria), 18, 13-215.
- Zavala, A. (arg.) (2008). *Antonio Arrue: Idaztiak eta hitzaldiak*. Bilbo: Euskaltzaindia.



## **Egan: egokitzen jakitean oinarritutako biziraupena**

Juan Luis ZABALA ARTETXE  
Idazlea. Itzultzailea

36ko gerraren ondorengo urteetatik gaur arte, literatura aldizkariak oso zeregin eta eragin desberdinak izan dituzte euskal literaturaren tes-tuinguruan, garaiaren arabera, eta *Egan* aldizkaria aldaketa eta bilakaera horien lekuko eta, neurri batean, protagonista izan da 1948an sortu zene-tik gaur arte.

Desertuan oasi eta ilunpe gotorrean argi zirrinta esperantzarri izaten hasi bazen ere, euskal literaturaren erdigunean kokatua, erdigune hori artean ere ezinbestean txikia eta ahula zenean, erreferentzialtasun murriztagoa izan zuen eta periferikoa izatera igaro zela ere esan daiteke 1970, 1980 eta 1900eko hamarkadetan, idazle eta joera berrien leherketa gertatu zenean.

XX. mendearen azken laurdenean, 1975eko urtarrilean *Ustela* aldizka-riaren lehen zenbakia kaleratu zenetik —*Panpina Ustela*, Bernardo Atxaga eta Koldo Izagirreraren lanekin osatua, 24 urte bete gabea lehena, 22ra iritsi gabea bigarrena—, 2000. urtera arte, euskal literatura aldizkari ugari pla-zaratu ziren, gehienak idazle gazte eta hasiberriek bultzatuta, eta unean uneko oihartzuna eta erreferentzialtasuna izan zuten horietako askok. Zerrenda —erabat osatu gabea halabeharrez— esanguratsua da: *Ustela, Oh! Euzkadi*, *Pott*, *Xaguxarra*, *Maiatz*, *Susa*, *Idatz & Mintz*, *Garziarena*, *Korrok*, *Porrot*, *Ttu-ttuá*, *Literatur Gazeta*, *Plazara*, *Txortan*, *Txistu y Tamboliñ*, *Pamiela*, *Mazan-tini*, *Kandela*, *Enseiucarrean*, *Zintzhilik*, *Stultifera Navis*, *Ostiela!*, *Putz*, *Zantzoa* eta *Vladimir*.

Eklosio horren erdian, *Egani* itzalean irautea —edo bizirautea— egokitu zitzaion, neurri handi batean behintzat, korronte berriekiko gutxieneko harremanak izanda baina haienezat erreferentziala izan gabe. Koldo Mitxelena zen garai horren hasieran aldizkariaren zuzendari, eta hura hil zenean etenaldi labur bat izan zuen aldizkariak, harik eta Juan San Martinek eta Iñaki Zumaldek berriro plazaratzeko ardura hartu zuten arte, 1989an. Hiru urteren buruan, 1992an, Luis Mari Mujikak eta Guillermo Etxeberriak hartu zieten erreleboa.

Meritu handiko eta esker txarreko lana egokitu zitzaion bi adiskideei, idazle gehienak aldizkari gazte, errebelde, fresko eta apurtzaileei begira bizi zen garaian *Eganen* bide pausatuko eta asentatuagoari eutsi baitzioten, motor nagusi borondatezko inurri lanean oinarritutako egoskortasuna zutela.

XXI. mendea hasi zenerako, literatura aldizkarien eklosioa apaltzen hasita zegoen, begien bistako bi motibo nagusirengatik: batetik, aurreko hamarkadetan sortutako argitaletxe nagusiak sendotuta zeuden, idazle berriei plaza eskaintzeko moduan; bestetik, literatura urgentziaz plazaratzeko eta sozializatzeko beste bide batzuk nagusitzen hasi ziren, Interneten eskaintza gero eta oparoagoaren barruan.

XX. mendearen azken laurdenean sortutako aldizkarien errepasso eginenez gero, esanguratsua da zein gutxi diren horietatik gaur egun plazara iristen segitzen dutenak —*Maiatz* eta *Idatz & Mintz* besterik ez—, eta zein aspaldi desagertuak diren gehienak.

*Eganek*, aldiz, itzalean eta kostata izan bazen ere, bi adiskideren borondatezko lanean oinarrituta funtsean, bizirik iraun zuen XXI. mendearen hasierako urteetan.

Luis Mari Mujikaren heriotzak, 2017an, aro berri baten atarian jarri zuen *Egan* aldizkaria. Koro Seguroolari eman zion erreleboa, eta haren zuzendaritzapean, garaira egokitzeko, aldizkari zientifikoa bihurtu da gaur, sormenari eta kritikari ere lekua ematen dion literatura aldizkaria izateari utzi gabe.

Garai bakoitzeko egoera, joera eta beharretara egokitzen jakitea izan da orain arte *Eganen* biziraupenerako giltza, eta aurrerantzean ere hala izango dela ez dago dudarik.

## Lehen literatura aldizkari heterodoxo autonomoa: *Igela*

Amaia ELIZALDE ESTENAGA  
Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

XX. mendearen bigarren erdian aurrera egin ahala eta euskal literatura arnagune zenbaitetan biziberritzen hasia zenean, *Igela. Euskal heterodoxoen errebista* (1962-1963) sortu zuten Parisen Jon Mirandek (1925-1972) eta Txomin Peillenek (1932-2022). Euskal literaturaren historiek jasotzen duten bezala (Olaziregi, 2002; Aldekoa, 2008), Hego Euskal Herrian frankismoak euskal letrei ezarritako errepresioaren ostean, lehenik erbestean eta geroago Hego Euskal Herrian hasi ziren literatura berpizteko egiturak eraikitzen. Horietan erabakigarrienak literatura aldizkariak izan ziren, Donostiako *Eganez* gain Guatemalako *Euzko-Gogoa* (1950-1959) izan zen bereziki garrantzitsua, ‘50etako literatura taldea’ edo ‘heterodoxoen belaunaldi’ izendatu denaren (Olaziregi, 2002; Kortazar, 2003; Aldekoa, 2008 eta abar) literatura periferikoaren agerleku izan baitziren. Orduan hasi ziren idazten gerora euskal literaturaren izen garrantzitsu bilakatuko ziren zenbait, hala nola, Jose Luis Alvarez Emparanza “Txillar-degi” (1929-2012), Gabriel Aresti (1933-1975), Federico Krutwig (1921-1998), Txomin Peillen eta Jon Mirande. Horien asmoa euskal literatura berritzea zen, forma nahiz funtsari zegokionez eta bakoitzak bere modura eta utzi zitzaion heinean egin zuen.

Aipatutako literatura aldizkariak euskal literatura berpizte eta berritzeko asmoz martxan jarri baziren ere, horrek ez du esan nahi argitaratu zitekeenak mugarik ez zeukanik. Euskal Herri kontinental nahiz penintsularrean zentsura ideologikoaren mugak ugariak ziren eta horren erantzuleetako bat baino ez zen Espainiako estatuaren aparatu zentsore instituzionala (Elizalde, 2018a, 2018b, 2020). Ipar Euskal Herrian baziren

aldizkariak, baina Elizarekin lotura zuzena izanik, bertan argitaratu zitezkeenek moral kristau katolikoaren muga moralarekin bat egin behar zuten. Horiek horrela, garaian sortu ziren aukera berrien jantziek ez zieten idazle heterodoxoei beti ongi ematen eta oihaletan ezin kabituta, horiek hautsi eta patroï propiotik abiatzea erabaki zuten Jon Mirandek eta Txomin Peillenek *Igela* aldizkaria sortuz. Azken horrek garaiko idazlearen begiradatik egoera hertsia haren testigantza utzi digu:

Parisen 1962ko otsailean argitaratu zen *Igela* aldizkaria. Bi paristarrek, bi hiritarrek, humorezko aldizkari bat sortu zuten Jon Mirandek eta Txomin Peillenek. Jon, garaiko ausartegiz, beste aldizkarietan libreki ezin argitaratuz, errebista heterodoxo horretan bi urteez idatzi zuten. Urte haietan *Euzko Gogoa*, *Jakin*, *Karmel* eta *Egan*, ez zen beste aldizkariarik? Hegoaldean aldizkarien erredakzioa, euskaldunen, frankisten eta elizaren zentsurengatik oso hertsia zen. Iparraldean, garai haietan ezkertiarrek ez baitziren euskaraz arduratzen, euskal aldizkariak apai-zen eskuetan zeuden (*Gure Herria*, *Herria*, *Ezkila*). Baionara etorri zenean *Euzko Gogoan* Mirande eta bioi artikuluak baztertu zizkiguten; Donostian Mitxelenak idatzi ezin zela edozer argitaratu hala nola zatika ere Jon Miranderen eleberria *Eganen*, bestela akabo aldizkaria (Peillen, 2014, 185. or.).

Peillenek denborak ematen duen ikuspegi panoramiko hori ongi osatzen dute garaiko zentsura giroaz Miranderen gutunetan irakur daitezkeen iruzkinak. Iturri horren bidez idatz zitekeena mugatzen zuten indar zentsoreen askoz esperientzia intimoago baten berri jaso dezakegu. Ezintasunaren unean bertan idazleak sentitzen eta pentsatzen zuenari buruzkoak aztertuta, besteak beste, ikus daiteke Mirandek bazuela beste literatura sistemen berri, baita horietan zentsuraren dialektikaren muga nolakotasunarena ere. Jon Etxaide adiskideari 1956ko irailaren 10ean idatzitako gutunean interesgarria da bere idazle bizipen subjektiboa eta sistema ezberdinen arteko ariketa konparatiboa nola uztartzen dituen, euskal literatura sistemaren atmosfera itogarria salatuz:

Munduko erri geienetan, idazleak bere ustearen araura mintzatzeko zuzena dauka, naiz ta beste jende geienek haren asmoak gaitz-eritziko dituzten, imoralak edo zoroak direlakoan; ez Euskalerrian ordea. Mintzatzeko libertate gehiago ba zegoen Hitler'en Alemanian gure errian baño; eta dena dela orduan beren errian debekatuta zeuden aleman idazleek erbestean idatz zezaketan (Mann, Freud eta beste askok egin duten bezela). Alaber gertatzen da idazle rusoeekin. Bainan Euskaldun gutxiz geienek beren fanatismo muga-gabekoa orotan berekin dakarte naiz Euskalerrian dauden (bi alderdietan), naiz erbeste batean. Ikuspun-

tu oratik ia bakarrak gaude mundu guztian; irlandarrak baizik ez ditut ezagu-tzen guri urbiltzen zaizkigunak —eta orrengatik, ain zuzen, Liam O’Flaherty bezelako idazle andi andi batek, mundo guztian famatua denak, bere lan aintienak (ala nola *The Puritan*) ingelesez idatzi bear izan ditu, gaelikoz idazle onenetakoa izan arren.

Nik ez dut geiago uste euskaldunak sekula aldatuko direnik; eta dena dela aserik nago iñork iñon onartzen ez dituen irakurgaiak idazteaz, ene errikideen aitzineritzien kontra dijoazelako (niretzako, eta orain pentsatzen dudan araura, beintzat, *aitzin-eritziak* direnak). Egia da oraingo Frantzia ere —emen ere general bat gobernuko buru dugun ezkeromintzatzeko libertatea txikitzen ari zaigula... eta orain, Europa guztian, tolerantzia geiena erakusten duen erria Sartaldeko Alemania da! Damu dut ez baitakit alemanera aski ontsa artan literaturako lanak ontzeko (Mirande, 1995, 161-163. or.).

Ezintasun egoera horrek bultzatuta abiatu zuten *Igela* aldizkariaren ekimena Mirandek eta Peillenek.

### ***Igela* aldizkaria, animalia autonomoa**

Bi idazle paristar gazteek ez zituzten ausaz aukeratu aldizkariaren gaia eta doinua, ezta ikur gisako igela ere. Literatura aldizkari bat izango zela erabakitakoan, Peillenen hitzetan, bi idazleek zeukaten argi doinuak umorezkoa, satirikoa behar zuela izan, “erabaki zuten herri baten heldutasunerako bere buruaz iseka eta nausa egitea beharrezko zela, ezen diktaduretan ere egiten baitzen, bestalde, horretarako satira zela bidea” (2014, 189. or.). Zabalak (2022) aipatzen duen bezala, “zabaltzen ari ziren bidea euskal kulturarentzat onuragarria eta beharrezkoa zela iritzita” egin zituzten hautu horiek.

Euren ‘heterodoxia’ ortodoxia katolikoarekiko kontrajarria zen eta, termino hori hautatu zutenean, buruan zeuzkaten “bai Belatar eta Ezpondatar protestanteak, bai Egiategi erreformista, bai Chaho antiklerikala, ahaztu gabe pikareska herrikoia” (189). Era berean, Peillenek nabarmentzen du ez zutela “burges elitismorik” egin nahi eta Herri literatura asko txertatu zutela aldizkarian.

Beraien asmoez gain, beste literatura eremuetako literatura aldizkari berri bazuten Mirandek eta Peillenek, eta eredu gisa hartu zituztenez, berriko batzuek animalia bat zuten ikur. Hori bera egitea erabaki zuten haiek ere, begiz jotako eredu errusiar, espainiar, frantziar eta estatubatuarren gisara. Honela azaltzen ditu Peillenek euren hautua eta eraginak:

Zergatik satira aldizkaria, eta ez pentsamendu edo filosofiazkoa, edo historiakoa, edo filosofiazkoa? Mirandek Peilleni esan zion euskaraz filosofia hiztegia ez zela nahikoa garatua horretarako eta hark erantzun bera gazteegi zela filosofo izateko. Aldizkari honen egitea Jon Miranderi eskaini zion Txominek, errusiar lagun batek Moskuko *Krokodilia* erakutsi ziolako, Mirandek *La Codorniz* Madrilgoa, eta *Mad* Estatu Batuarra jaso zituen. Eta ongi ezagutzen baitzituzten Frantziako *Le Canard Enchaîné* eta *Rivarol* aztertu. Besteen gisa animalia bat hautatu zuten bi paristarrek eta ahoa zabal zabalik badirudi igelak barre egiten duelako eta igelak erlijio litania bat bezala kantatzen dutelako *Igela* izena aukeratu zuten. (189).

Baina *Igela* zerbaitek bereizten bazuen, hori bere autonomia zen, autonomia ekonomikoa. *Egan*, instituzio bati lotutako aldizkaria zen heinean, lotuago eta baldintzatuago zegoen. Bestalde, ildo editoriala Mirandek eta Peillenek eurek hautatzen zuten, ez zuten delako botere baten zentsura dialektikaren mugez larritu beharrik. Horixe izan zen aldizkaria abiatzeko arrazoi nagusia, Andima Ibiñagabeitia, Aingeru Irigaray, Juan San Martin eta Federico Krutwig gogaideen laguntza eta bultzadarekin (Peillen, 2014, 188-189. or.). Autonomia ekonomiko horren txanponak, ordea, bazuen bere alde negatiboa: prekarietatea. Harpidedunen ekarpekin eta eurek jarritakoarekin atera zituzten argitaratutako sei aleak, baina horrekin ez zen aski aldizkariak aurrera egin zezan. Peillenek xeheki deskribatzen ditu hasieratik *Igelak* batetik eta bestetik jasotako kritikak eta, espero izatekoa zenez, jarraitzaile kopurua ez zen berehala hazi:

Peillenek ez ditu ahaztu garai haietan harpidedun izan zituen, Iparraldeko bizpalauak hala nola Jean Haritschelhar edo Beñat Possompès eta hegoaldeko hogeita batak. Subentziorik gabe *Igela* diru galtzen ari zen eta honela ezin zen itxuraz hobetu. Gure *Igela*, gure ugarazia, gure txantxikua euli gabez hil zen. (195).

## ***Igelaren itzal luzea***

Jaio zen unean aldizkariak jarraitzaile gutxi eta bizi laburra izan bazituen ere, itzal luzea utzi du arrazoi askorengatik. Batetik, periferiatik eta heterodoxiatik sortutako euskal literatura idatziaren lehen ekimen modernoan izan zelako, are gehiago aldizkarietz ari garela. Bestetik, dauden egituretan kabitzen ez denaren ekintzailetasuna eta egitura horiek behartzen dituzten indarrekiko autonomia saihesteko eredu edo aurrekari izan zelako.



Hain zuzen ere, 70eko hamarkadaren bigarren erdian azaleratuko zen periferia heterodoxo berriak erreferente gisa izango zuen Miranderen idazletza, neurri handi batean. 50etako heterodoxoen antzerako tesuinguru hertsia hautematen zuten 70etako idazle gazteek eta, Sarriornandiak (1988) azaltzen duen bezala, muga moral eta estetikoak hausteko nahi horretan identifikatu ziren idazle paristarrarekin:

Gogoratzen diat orain hi Deustuko unibertsitate usain kanonikoko haretan hi Kattalin irakurriaz erdikantatzen. Bagenizkian Jon Mirande laket izateko arrazoiak: bere kalitate literarioagatik, bere modernitateagatik, bere heterodoxiagatik, bere pertsonalitatea korrontearen kontra frogatu zuen kemenagatik. Ez genian bere ideologiagatik maite [...] Orduan, debeku politiko eta ostrazismo moralen giro haren kontestuan, Jon Miranderen obra postumoa originala, ausarta, imitaezina zuan. (134).

Ez da kasualitatea periferia horiek azaleratzeko talde proiektu autonomo gisa literatura aldizkariak erabiltzea eta bertan Miranderi erreferentzia zuzenak egitea, *Ustelan* bereziki (Elizalde, 2024). *Igela* aldizkariarekiko identifikazioa eta begirunea Hordago argitaletxe jaioberriak 1979an egindako berrargitalpenak ere uzten du agerian. Garai hartako “mirandismo” (Elizalde, 2018a, 2024) dei genezakeen horren baitan, Mirandek eta Peillenek adierazpen literarioaren baitan askatasun intelektuala garatu ahal izateko jarraitutako estrategia bere egin zuen belaunaldi gazteak, aurrekaria eredutzat hartuz: proposamen literario heterodoxo garatzeko literatura aldizkari autonomoa. Peillenek (2014) berak ere, urteek emandako distantziarekin 70etan sortzen hasi ziren literatura aldizkariak *Igelarekiko* ziren segida argi identifikatu zuten:

Orain, Igela irakurtzen denean ordukoen ezinikusia nekez ulertzen da: jakina, Euskal Herrian *maketoak*, *koreanoak* larrutzen zirelarik *Igelan* abertzaleak, apaizak, burgesak, folklokeria zarramikatu zituzten; ondoren, gazteek euskal gizartea garrazki karrakatuko zuten, hasiz *Potttekin*, *Susarekin* apur bat, gogorkiako *Napartheidekin* eta ezin gogorkiako *Ostiela* eta besteekin. Baina, gure aldizkaria baino askoz hobeki eta giro askeago batean ausartago izan dira. Agertu zirenean batzuk Igela agurea agurtu zuten. (197).

*Igela* aldizkaria bere garaiko literatura-periferia heterodoxoenaren agerleku funtzioa betetzeaz gain, ondorengo idazle belaunaldiko periferia literarioentzat inspirazio iturri ere izan zen, ez soilik eduki mailan, baita era autonomoan argitaratu ahal izateko egitura eredu gisa ere.

## Bibliografia

- Aldekoa, I. (2008). *Euskal literaturaren historia*. Donostia: Erein.
- Elizalde, A. (2018a). *Jon Miranderen Haur besoetakoa (1970), modernitate ukatua*. Doktorego tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea eta Université Bordeaux-Montaigne. <<https://addi.ehu.es/handle/10810/32629>>, [2024.05.17].
- Elizalde, A. (2018b). Zentsura ikasketak euskal literaturan: mugak zabalteko beharraz. Jon Miranderen kasua abiapuntu. *Euskera*, 63 (2-2), 239-268.
- Elizalde, A. (2020). La memoria de la censura franquista en el marco académico ibérico: Crítica desde una perspectiva vasca. In M.J. Olaziregi & L. Otaegi (arg.), *Censura y Literatura. Memorias Contestadas* (305-322. or.). Berlin: Peter Lang Publishing Group.
- Elizalde, A. (2024). "Mirandismoa" Joseba Sarrionandia gaztearen garai literarioan eta bere poetikan. In N. Eizagirre & M. Ayerbe (arg.), *Joseba Sarrionandiaren literatura: bitakora kaiera*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua (prentsan).
- Kortazar, J. (2003). *Euskal Literatura XX. mendean*. Zaragoza: Prames.
- Olaziregi, M.J. (2002). *Euskal eleberraren historia*. Labayru Ikastegia-Amorebieta-Etxanoko Udala.
- Peillen, Tx. (2014). *Igela* aldizkariak: euskaldun heterodoxoen errebista. *RIEV*, 59-1, 185-199.
- Sarrionandia, J. (1988). *Marginalia*. Donostia: Elkar.
- Zabala, J.L. (2022). 'Igela' aldizkaria, umezurtz baina ez ahaztua. <<https://idazleak.eus/eu/uberan/39-igela-39-aldizkaria-umezurtz-baina-ez-ahaztua>>, [2024.05.17].

# Euskal literatura aldizkariak 1970eko eta 1980ko hamarkadetan\*

Beñat SARASOLA SANTAMARIA  
Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

---

\* Artikulu hau “Literatur aldizkariak argitaletxeen eratzte bidean (1975-1984)” kapituluaren moldaketa bat da. Jatorrizko lan hori *Euskal edizilogintzaren hastapen ikerketak* (Ayerbe, M. koord., 2021) liburuan argitaratu zen, UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzuaren sareko argitalpen gisa (<https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pdf/UHPDF213496.pdf>).



1. Sarrera. 2. Franco osteko literatura aldizkariak. 2.1. Franco osteko lehen aldia (1975-1980). 2.2. Franco osteko bigarren aldia (1980-1984). 3. Aldizkariak literatura sisteman. 4. Bibliografia.

## 1. Sarrera

Ikertzaileek XX. mendeko 70eko hamarkadan kokatu ohi dute euskal literatura sistema autonomoaren eratzea (Aldekoa, 2004; Olaziregi, 2012), Franco hil osteko eraldaketa politiko eta kulturalen testuinguruan. Eratze horretan, ezinbesteko faktore izan zen euskal kasuan ere literatura instituzioak sortzea eta sendotzea. Ezagun denez, Itamar Even-Zohar ikertzaileak proposatu zuen eskema oinarrizkoaren arabera, instituzioa literatura sistema bat gorpuzten duen elementuetako bat da, ekoizlearekin, erreperitorioarekin, merkatuarekin, produktuarekin eta kontsumitzailearekin batera (Even-Zohar, 2011, 5. or.). Instituzioa arauemailea da, hots, literatura sistemako elementuak (idazleak edo obrak) zilegiztatu edo baztertzen ditu, eta hala, literatura sistemaren barruan eta kanpoan zein elementu dauden ezar dezake. Instituzioaren parte diren elementu askotarikoen artetik (kritikariak, argitaletxeak, aldizkariak, idazle-taldeak, hezkuntza-instituzioak eta abar), biri erreparatuko diegu zehazki artikulu honetan: literatura aldizkariari eta argitaletxei. Izan ere, oraindik aztertzeko baitago literatura aldizkariaren pisua zein izan zen zenbait argitaletxe sortzerakoan, eta honenbestez, aldizkari eta argitaletxeon garrantzia zenbaterainokoa izan zen euskal literatura sistema autonomoaren eraketan.

70eko hamarkada hasieran apenas zen literatura aldizkaririk euskaraz. 50eko eta 60ko hamarkadetan amaitu ziren *Euzko Gogoa*, *Igela* eta *Olerti*<sup>1</sup>, eta ondorioz, *Egan* eta *Karmel* ziren bizirik jarraitzen zuten aldizkari bakarrenetakoak (Elkoroberezibar, 2004). Kontuan izan behar da, halere, *Egan* Koldo Mitxelena, Aingeru Irigarai eta Antonio Arrueren zuzendaritzapean argitaratzen zela, eta garaiko belaunaldi nagusien esku egonik, ez zela belaunaldi berrientzat sarbide erraza. *Karmeli* dagokionez,

[1] Zehazki, *Olerti*ren lehen aldia amaitu zen 1969an. Bigarren aldia 1980an abiatu zen eta 1994. urtera arte luzatu zen.

idazle berriek ere han argitaratu zuten arren<sup>2</sup>, alde batetik generikoki zabalagoa zen (kultura aldizkaria), eta bestetik, kutsu erlijiosoa zuen aldizkaria zen, eta hala, literatura urbano eta modernoagoa egin nahi zuten belaunaldi berriagokoentzat ere ez zen bereziki erakargarria. Testuinguru honetan, Ibon Sarasola ere literatura aldizkarien gabeziaz kexu zen 1973an:

Euskaldunok ez dugu azken urte hauetan kultur-aldizkaririk eta badirudi oraingoz ez dugula izanen. Eta haien hutsunea nola hala betetzeko erabiltzen den zenbait aldizkarik gure lanak argitaratzeko jartzen dituen eragozpenek ez digute egoera samurtzen. (Elkoroberezibarrek aipatua, 2004).

Hain justu, I. Sarasola kide zen Lur argitaletxearenak urte horretan bertan, 1973an, egin zuen, eta ondorioz, oraindik zailagoa egin zen belaunaldi berrikoentzat lanak argitaratzea<sup>3</sup>. Ondorengo hilabeteetan ere eztabaida sortuko da euskal prentsan (*Anaitasuna* eta *Zeruko Argiako* zenbait artikulutan) literatura aldizkariak sortzearen premiaren inguruan (Elkoroberezibar, 2004). Horregatik guztiagatik, 70eko hamarkadaren erdialdean, “lehortea nabarmena da” (Elkoroberezibar, 2004), baina berehala hasiko dira sortzen aldizkari berriak egoerari buelta emateko helburuz.

Franco osteko aldiko lehen urteetan hiru izan ziren erreferentziazko literatura aldizkariak, zeinak hiruk elkarloturik dauden: *Ustela*, *Pott* eta *Oh! Euzkadi*. Neurri batean, gainera, belaunaldi berri baten abiapuntutzat jo daitezke, Ibon Sarasolak 64ko belaunaldia deitu izan zion horren (Olaziregi, 2000, 525. or.) ondorengo belaunaldiarena, alegia, 50eko hamarkadan jaiotako idazleek osatuko luketena. Belaunaldi horri “Autonomiaren belaunaldia” deitu izan zaio, zeinak bi ezaugarri nagusi izango lituzkeen: literaturarekiko konpromiso zorrotza (hortik autonomiarena), eta euskara batuarekiko distantzia handiagoa (Torrealdai, 1997, 344-345. or.). Egiazki, literatura belaunaldien periodizazioa aski eztabaidagarria den metodologia da, eta guk ez diogu hertsiki helduko<sup>4</sup>, baina kasu honetan interesga-

- [2] Ikusiko dugun bezala, Koldo Izagirrek han argitaratuko zituen bere lehenengo poemak
- [3] Ez dezagun ahaztu Lurrek, besteak beste, hiru liburu kolektibo argitaratu zituela, batez ere belaunaldi gazteetako idazleen lan laburrez hornituak: *Euskal Elerti 69*, *Euskal Literatura 72* eta *Aurtengo zenbait berri* (1973).
- [4] Belaunaldi kontzeptua ulertzeko moduak ere ugariak dira, eta, esaterako, Astrid Erll ikerlariak oraindik ere haren erabilgarritasuna defendatzen du, “generation in its very complexity deserves to become part of the conceptual core of literary history” (Erll, 2014, 405. or.). Ziur aski, arazoa da sarritan konplexutasun horri uko egin izan zaiola literatura ikasketetan belaunaldi kontzeptua erabili izan denean.

rriena da ikustea aldizkari horietako idazleek Franco hil ondoren abiatuko dutela funtsean beren ibilbidea, salbuespen garrantzitsu batekin<sup>5</sup>. 64ko belaunaldiak Lur argitaletxea izan bazuen argitalpen egitasmo nagusizat, hurrengo aldizkarion bidez hasiko da beren lanak plazaratzen, baina luze gabe liburuen argitalpen proiektuak ere sortuko dituzte.

Horietaz landa, literatura aldizkari berri ugari ipini ziren martxan hurrengo urteetan, hainbeste ezen 1980ko hamarkada izan da, luzaz, euskal literaturako aldirik emankorrena aldizkariei dagokienez. 1980. urtean sortu zen *Susa* aldizkaritik 1986an abiatu zen *Enseiucarrean* aldizkari-rainoko zazpi urte soil horietan, hamasei aldizkari berri sortu ziren (Ibi-nagabeitia Proiektua, 2001). Horien artean *Idatz & Mintz* eta *Korrok* bezalako aldizkari garrantzitsuak aipa litezke<sup>6</sup>, baina gure egitasmoari begira hiru dira aipagarrienak, gerora argitaletxe bihurtuko direlako: *Susa*, *Maiatz* eta *Pamiela*.

## 2. Franco osteko literatura aldizkariak

Aintzat hartuko dugun garaia bitan banatuko dugu, arrazoi hertsiki didaktikoengatik. Alde batetik, Franco osteko lehen aldia (1975-1980), zeinetan *Ustela*, *Pott* eta *Oh! Euzkadi* nabarmentzen diren, eta bestetik, Franco osteko bigarren aldia (1980-1984), non *Susa*, *Maiatz* eta *Pamiela* aztertuko diren. Banaketa hau egiteko badira hainbat arrazoi. Alde bate-tik, arestian azaldu bezala, *Ustela*, *Pott* eta *Oh! Euzkadi*-k, beren arteko kontraste ez txikiak gorabehera, osotasun moduko bat osatzen dute elkar-ren artean zuzenean harremanduak daudelako —parte hartu zuten ki-deen bidez—, eta nolabait, belaunaldi baten testigutzat har litezkeelako. Ezin esan daiteke halakorik 1980tik aurrera sortutako beste hiru horien inguruan. Proiektu autonomoak izan ziren, eta gainera, alde batetik, bes-te belaunaldi baten (Tropelaren belaunaldiaren) proiektutzat har daiteke *Susa*<sup>7</sup>. Bestetik, *Maiatz* eta *Pamiela* aldizkariak euskal literaturako erdigu-

[5] Ramon Saizarbitoria da salbuespena, zeina 64ko belaunaldiaren kide garrantzitsue-netako bat den. Ikusiko dugun moduan, Saizarbitoriak egin zuen belaunaldi batetik besterako lotura, eta horrek gatazkaren bat sortu zuen.

[6] *Idatz&Mintz* da egun martxan dirauen literatura aldizkari bakanetako bat. *Korrok*-i dagokionez, aldizkari erreferentziala izan zen, idazle nafar ugariren bilgune eta hastapen izan zelako: Jon Alonso, Josetxo Azkona, Aingeru Epaltza, Ana Iribar, Patzi-ku Perurena, Bixente Serrano, Mikel Taberna eta abar.

[7] Azalpenak errazte aldera, beraz, hauexek liriteke artikululu honetan aipatzen ditugun belaunaldiak, gutxi-asko hamarkadaka bereiz daitezkeenak: —64ko belaunaldia (40ko hamarkadan jaioak): Anjel Lertxundi, Ramon Saizarbitoria, Arantxa Urretabizkaia, etab.

netik (Donostia-Gipuzkoa) kanpo garatu zituzten beren proiektuak, Lapurdin eta Nafarroan hurrenez hurren, eta alde horretatik ere Franco osteko lehen aldiko aldizkarien kokapen zentralagoetatik bereiztea komeni dela iruditzen zaigu<sup>8</sup>.

Arrazoi soziopolitikoei dagokienez, aintzat hartzekoa da 1978ko Espainiako Konstituzioaren ezartzeak eta, batez ere, 1979 amaierako Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren onarpenak aro berri bat ireki zuela Hego Euskal Herrian. Zehazki, 70eko hamarkadako lehen erdian indar handia hartu zuen eztabaida politikoaren (haustura/erreforma) ebazpena suposatu zuen nolabait, erreforma gailendu zela konfirmatuta. Horregatik, zenbait ikertzaileren ustez, 1979an berretsi zen gerora 78ko Erregimena deitu izan zaiona, non deslilura eta desengainua nagusitu ziren ezein saiakera iraultzailearen aurrean (Rodríguez, 2015, 204. or.), eta normalizazio politikoa ezarri. Euskal Herria anomalia izan bazen ere eskema horren baitan, besteak beste ETaren borroka armatuaren jarraipenagatik, esan daiteke, halaber, deslilura hori ere jabetu zela 70eko hamarkada bukaeran Euskal Herriko hainbat sektore ezkertiarren baitan (Gorostidi, 2016). Horregatik guztiagatik, ikuspuntu soziopolitikotik ere 70eko hamarkada bukaerak aldi berri bat ireki zuela esan daiteke, Hego Euskal Herriari dagokionez bederen.

## 2.1. Franco osteko lehen aldia (1975-1980)

Hiru ale baino ez zituen argitaratu *Ustela* aldizkariak (1975-1976), baina arrasto nabarmena utzi zuen euskal literaturan. Arduradun nagusiak ere aldatu egin ziren aldizkaritik aldizkarira. *Ustela* Bernardo Atxagak eta Koldo Izagirrek sortu zuten, eta haien manupean argitaratu zen lehen zenbakia 1975eko urtarrilean: *Panpina ustela*. Bigarren zenbakia, *Zorion ustela*, urtebete geroago argitaratu zen, 1976an, eta bitarte horretan Ramon Saizarbitoria batu zen taldera. Atxagak eta Saizarbitoriak, baina, ez zuten elkar ondo hartu, eta ondorioz, Atxagak taldea utzi eta Izagirreren

—Autonomiaren belaunaldia (50eko hamarkadan jaioak): Bernardo Atxaga, Koldo Izagirre, Pello Lizarralde, Joseba Sarrionandia, etab.

—Tropela (60ko hamarkadan jaioak): Iñigo Aranbarri, Itxaro Borda (59an jaioa), Miren Agur Meabe, Jokin Muñoz, etab.

[8] Salbuespena, eta ez nolana hiko, Pott da, Bilbon sortu eta gauzatu zena. Hala ere, kontuan izan behar da Atxaga *Ustelatik* zetorrela eta bai bera eta baita *Pottteko* zenbait kide (Josemari Iturralde, Ruper Ordorika) gipuzkoarrak zirela. Bestetik, Bilbo garai hartan Donostiarekiko periferikoa zen arren euskal literaturaren baitan, bazuen Iruñeak eta Baionak ez zuten zeltraltasuna (Aresti, Verdes liburu-denda, Gerediaga elkarteak, Durangoko Azoka).



eta Saizarbitoriaren gidaritzapean argitaratu ziren nola *Zorion ustela* hala *Mermelada ustela* (1976), aldizkariaren hirugarren eta azken zenbakia. *Ustela* da, bada, Atxaga, Izagirre eta Saizarbitoria hirukoa batzen dituen lehen egitasmoa, eta horregatik bakarrik esanguratsua litzateke, gerora euskal literatura garaikideko figura garrantzitsuenetakoak bilakatuko baitziren.

*Ustelak* belaunaldi berri baten hastapena sinbolizatzeaz gain, katebegi garrantzitsua osatu zuen euskal literaturaren historian. Hala, zenbait ikertzailek (Elkoroberezibar, 2004) adierazi dutenez, *Ustelarekin* hasi zen literatura aldizkarien booma, gerora (berezi 80ko hamarkadan) pisu nabarmena izango duena.

*Panpina ustela* argitaratu zenean, 1975eko urtarrilean, Franco oraindik bizirik zen, eta aldizkaria zentsuratua izan zen, tirada osoa poliziak bahitu zuelarik. Garai hartan 14/1966 Legea zegoen indarrean, Fraga Legea izenarekin ezaguna dena, eta aurretiazko zentsura borondatezkoa zen printzipioz. Hots, argitalpen oro ez zen derrigorrez aurretik zentsura-aparatutik pasa behar (aurreko lege frankistak exijitzen zuen modura), baina argitalpena kalean zela, zentsurak erabaki zezakeen argitalpena bahitu eta zirkulaziotik erretiratzea. Horixe gertatu zen *Panpina ustelarekin*. Ez zuten aurretiazko zentsuratik pasa, baina “Elizaren kontrako irainak” zirela eta (Atxaga eta Izagirreren eskela trufati banagatik) tirada bahitu zieten (Sarasola, 2016, 30. or.). Zuhurtziaz, ordea, tirada erdia baino ez zuten banatu, eta ondorioz, beste erdia poliziaren kontrolpetik kanpo geratu zen.

Atxaga eta Izagirre idazle hasiberriak ziren. Atxagak bi lan zituen publikatuak ordurako, Arestiren ediziopean argitaratutako *Euskal Literatura* 72 liburu kolektiboan editatu zirenak: *Oskar* ipuina eta *Borobila eta puntua* antzerkia. Horietaz landa, ordea, argitaratu gabeko testu mordoa zuen makinaz joa (Sarasola, 2016, 29. or.). Izagirrek Donostiako Udal Liburutegiak antolatutako sariketa batean saria eskuratua zuen ipuin batenegatik (nahiz eta ez zen argitaratu), eta *Karmel* aldizkarian 1974an plazaratu zituen zenbait poema solte. Horregatik, *Ustela* beren testuak plazaratzeko argitalpen moduan jarri zuten martxan, euskal ediziozintzan ez baitzen orduan aukera askorik<sup>9</sup>, eta oraindik idazle gazte ezezagunak iza-

[9] Beren sentsibilitatetik gertu egon zitekeen Lur argitaletxea, esaterako, 1973an iritsi zen azkenera. Haren errautsetatik Luis Haranburu Altunak sortutako Kriselu ez zen 1976. urtera arte martxan jarriko, eta hain zuzen ere, hortxe argitaratu zituzten Atxagak eta Izagirrek beren lehen liburuak; hurrenez hurren, *Ziutateaz* eta *Itsaso ahantzia*.

ki, beren kabuz argitalpen-plataforma bat sortzea beste aukerarik ez zutelako ia.

*Panpina ustela* aldizkariak, bestalde, “Ez dezagula konposturarik gal, halere” testu programatiko moduko bat zekarren, Atxagak eta Izagirrek sinatua, eta nolabait, autonomiaren belaunaldiaren manifestutzat jo izan dena; izan ere, haien arabera “literaturak bai bait du bere dinamika propio eta berezia” (Atxaga eta Izagirre, 1975).

Pultsio autonomiazale honetan Atxagak zerikusi handia izan zuen, lehenagotik ere ideia horiek garatzen baitzebilen literaturaren autonomiaren defendatzaile sutsu modura (Sarasola, 2017). Autonomiaren auzitik landa, eta artikulu honen ikergaiari dagokionez, badu interesik manifestuak; izan ere, testuan etengabeak dira garaiko testuen argitalpenetarako zailtasunen aipamenak. Argitaratzeko beharra hasiera-hasieratik zehazten da, hirugarren esalditik beretik: “Bere zeregina betetzearren, lehen lehenik literaturak plazara dezaten eskatzen du: ezkutu ta isileko poemek poemak izaten diraute, bainan aiderik gabe, arnasarik gabe, panpina ustelak bilakatzen dira” (Atxaga eta Izagirre, 1975). Pixka bat aurrerago, sariketekiko oso kritiko agertu ziren:

Sariketa literarioen aurka, beren zentzugabekeriak idazleak ito ta zapuztu egiten dituztelako.

Non ditugu presentatutako lanak?

Noraino daude epai-mahaikoak jantziak lanak juzgatzearren?

Sariketa literarioen aurka, liburuak, aldizkariak, poema, bertso ta teatro saioak proposatzen ditugu (Atxaga eta Izagirre, 1975).

Sariketen bidea izan ohi da idazle hasiberrien lehen urratsetan argitalpen-bideetako bat, eta hain justu horren kritiko ziren biak. Arestian aipatu legez, Izagirrek, adibidez, ipuin batekin sari bat irabazi zuen, baina ez zen publikatu. Sariketen bidea, honenbestez, ez zuten egoki ikusten beren lanei aterabide jarraia emateko. Alta, garaiko argitalpen plataformek ere ez zituzten asebetetzen: “Gaur eguneko argitara-etxe, aldizkari ta saioekin ez gatoz bat: hertsiaik eta literaturaz kanpoko (xtraliterarioak, beraz) xederen morroi direlarik, marrantatu ta baztertu (nazkatu ere bai) egiten dituzte eztarri berriak” (Atxaga eta Izagirre, 1975). Gerora Izagirrek adierazi duenez, ez zuen orduan alternatiba askorik ikusten euskal argitalpenaren panoraman: Lur amaituta, Kriselu Luis Haranburu Altunaren eskuetan geratu zen<sup>10</sup>, Gero argitaletxeari kutsu elizkoiegia zeriola

[10] Bere lehen liburua, 1976ko *Itsaso ahantzia*, hain justu, Kriselun publikatuko zuen,

iruditzen zitzaion, eta martxan zegoen besteren bat —Leopoldo Zugaza— bere eremutik kanpo geratzen zitzaion (Sarasola, 2015, 58. or.).

Haien arabera, garaiko argialetxe eta aldizkariak ez zuten bidea errazten idazle berriek beren lanak han publikatu zitzaizaten, eta beraz, alternatiba bakarra geratzen zitzaien: beren argitalpen modu propioa sortzea. Horixe, izango da, bada, *Panpina ustelaren* funtzioa.

*Ustela* aldizkariaren ale bat Saizarbitoriaren eskuetara iritsi zen, eta han irakurritakoak erakarrita, bi gazteengana gerturatu eta haiekin lanean hasi zen. Arestian aipatu bezala, hasteko, bada urte ezberdintasun esanguratsu bat. Saizarbitoriak 31 urte bete zituen 1975ean, eta Atxagak eta Izagirrek 24 eta 22 hurrenez hurren. Horrekin lotuta, Atxaga eta Izagirre unibertsitateko ikasle ziren edo ikasketak amaitu berri, eta Saizarbitoriak, aldiz, soziologia kabinete batean egiten zuen lan ordurako. Izatez, Saizarbitoriak lana lortu zion Atxagari kabinete horretan, baina gutxi iraun zuen (Sarasola, 2015, 39. or.). Adin tartear ere alde markatzen du kasu honetan, sistema literarioaren barneko kokapenari dagokionean. Saizarbitoria ordurako euskal literatura garaikideko erreferente garrantzitsuenetako bat zen, eta Atxagak eta Izagirrek apenas zuten lanik argiratuta.

Alde hauek azaldu ahal dute, neurri batean bederen, Atxagak *Ustela* uztean aldizkariak hartuko duen ibilbide berria. *Zorion ustela* eta *Mermelada ustela* zenbakietan, tonua nabarmen aldatzeaz gainera, ez dira *Panpina ustelan* bezainbeste sortze lan ageri, eta iritzi-artikulu gisako testu gehiago irakur litezke. Kontrastea are agerikoagoa da Atxagak 1978an Bilbon sortzen duen *Pott* aldizkaria eta Izagirrek eta Saizarbitoriak 1979an Donostian sortu zuten *Oh! Euzkadi* alderatzen baditugu. *Pott* literarioagotzat jo daiteke, eta *Oh! Euzkadi* aldizkari kulturalagotzat, non lehenengoan sormen-lan gehiago aurkitu daitezkeen.

Zentzuzkoa dirudi pentsatzeak Atxaga eta Izagirre gazteek beren lanak argitaratzeko premia handiagoa zutela Saizarbitoriak baino. Alde batetik, lehen zenbakian adierazi bezala, ez zuten beren lanak plazaratzeko leku egokirik topatzen, eta *Ustelaren* sorrera gabezia horrekin lotu behar da. Hori ez da Saizarbitoriaren kasua, zeinak, ordurako, *Egunero hasten delako* argitaratua zuen, *100 metro* idatzia eta *Ene Jesus* bukatzeaz (azken biak 1976an argitaratu zituen Kriselu argialetxeak). Gainera, Saizarbitoria argialetxe-proiektu (eta gauzapen) batetik pasea zen ordurako, Lur

---

Saizarbitoriak bide eginda. Alabaina, gerora ez zuen gogo askorik izan han publikatzen jarraitzeko.

argialetxetik. Bestetik, Saizarbitoria nobelagile petoa izan da beti, bere hastapenetan argitaratutako poema solte batzuk (*Euskal Elerti* 69 liburuan, 1969. urtean) eta *Kapitaina* ipuina (*Hegatsen* publikatua 1971n) alde batera utzita. Atxaga eta Izagirre, ordea, biak ala biak izan dira poeta eta ipuin-gile hastapenetik, eta genero horietarako egokiagoak ziren gisa horretako literatura aldizkariak, besteak beste, pieza laburragoak publikatzeko aukera ematen zutelako.

Horregatik Miguel Angel Elkoroberezibarrek (1988) definitu izan ditu literatura aldizkari hauek “literaturgintzarako plataforma” gisa, hain justu idatzitako hainbat sormen-piezari irteera emateko tresnak zirelako, bereziki Atxaga eta Izagirre bezalako idazle gazteentzat. Saizarbitoriak, ordea, literaturgintzarako plataforma bainoago, eztabaida sozial eta kulturalerako plataforma moduan ikusten zituela esan dezakegu, bereziki *Oh! Euzkadin* ikusi zen bezalaxe. Atxaga eta Izagirre izan ziren, hain zuzen, aldizkari horietatik liburu-argitalpen proiektuak sortzen ahalegindu zirenak. Modu horretan, literatura aldizkariak argitalpen plataforma sendoagoak (argialetxeak) sortzeko bidean katebegi moduan ere ulertu behar dira. Izan ere, argitalpen plataformen garapenari dagokionez, hala *Ustelatik* nola *Pottetik* sortu ziren liburuak argitaratzeko proiektu bana. Ez alferrik, Izagirrek eta Atxagak bultzatu zituzten, hurrenez hurren.

*Ustela* aldizkariak 1977an eman zituen azkenak *Mermelada ustela* plazaratuta, baina urte berean, Izagirrek eta Joxemari Olaizolak *Ustela saila* jarri zuten martxan, non liburuxka formatuko<sup>11</sup> obrak argitaratu zituzten. Edizio lanak Izagirrek egiten zituen eta Olaizola kontu administrati-boez eta inprentakoez arduratzen zen (Sarasola, 2015, 58. or.). Lehenengo zenbakiak autoedizio moduan argitaratu zituzten legalki, zenbaki editorialik ez zutelako, baina berehala, Iñaki Mujika Arregi “Ezkerra”k zuzentzen zuen Hordago-ren babespean hasi ziren argitaratzen, askatasun osoz. 1977-1983 zazpi urteko tarte horretan hemeretzi titulu hauek argitaratu zituzten:

1. *Oinaze Zaharrera*. Koldo Izagirre.
2. *Joan eta Ane zigarro bat erretzen*. Ibon Sarasola.
3. *Bidaia / termitosti*. Joxe Austin Arrieta.
4. *Hitzakia*. Juan Inazio Garmendia.
5. *Zutaz amoroski*. Jon Casenave.

[11] Izan ere, ez ziren liburu luzeak gehienak, eta sakeleko edizio modukotan argitaratu ziren. Halere, edizio zainduak izan ziren, eta horietako asko ilustrazioz hornituak argitaratu ziren.

6. *Guardasola ahantzia*. Koldo Izagirre.
7. *Hilargiaren hotzikarak*. Pello Lizarralde.
8. *Azkenean dilindan*. Jon Casenave / Mattin Larzabal.
9. *Gauzetan*. Koldo Izagirre.
10. *Egunero hasten delako*. Ramon Saizarbitoria.
11. *Haize lainotuaren nekeak*. MaripiSolbes.
12. *Isiletik*. Gabriel Korta.
13. *Espaloietako ginola*. Daniel Garbizu.
14. *Poemak*. Alex Azkue.
15. *Egunsenti biluzia*. Jose Luis Otamendi.
16. *Itsu-mandoka*. Jon Casenave.
17. *Txipiroiren bat edo beste*. Rafa Egiguren.
18. *Alizia eta biok*. J. Iñaki Lasa.
19. *Azken undinaren kaira*. Jose Luis Otamendi.

Sailaren ezaugarri nabarmenetako bat izan zen titulu gehienak opera primak edo bigarren liburuak izan zirela, eta beraz, idazle berriak plaza-ratzeko funtzioa bete zuela. Zentzu horretan, *Ustela* aldizkariaren hasieratik adierazitako gabezia horri aurre egiten zion. Denak izan ziren liburu berriak, bat izan ezik: *Egunero hasten delako*-ren berrargitalpena. Hala, han argitaratu ziren gerora euskal literaturan ibilbide oparoa egingo zuten zenbait idazle esanguratsuren (Joxe Austin Arrieta, Pello Lizarralde, Jose Luis Otamendi) opera primak.

Potten kasuan, jada aldizkariko lehenengo aleko (*Pott bandaren berri-malea*) editorialean zehaztu zuten hasierako helburua argitaletxe bat sortzea zela, baina liburuak argitaratzeko garai hartan beharrezkoa zen zenbaki editoriala ukatu zietenez, behin-behinean aldizkaria argitaratzea deliberatu zutela. Hortik aurrerako zenbaki askotan aipatu zituzten argitaletxea sortzeko edukitzen ari ziren zailtasun eta gorabeherak. Bigarren zenbakiko, *Pott bandaren blagako* (1978), editorialean, honako hau zioten:

Begira, liburu bat kalera botatzea ez da gauza erraza, mekaben pott. Guk arrazoi asko direla medio, TS Eliot poetaren itzulpen batekin hasi nahi genuen. Baina zenbaki editoriala ez zaigu iristen behar bezala, eta liburu hori ezin genezake argitara bera gabe.

Horregatik, eta udak estrainatu gabe harrapa ez gaitzan, beste liburu batekin ekingo diogu lan editorialari.

Liburu hau, bernardoren *Etiopia* izango da. Poema eta lan literario laburrez osatutako liburu da. Ehun eta hogeit bat orrialde ditu, 208×148 mmko neurritan, eta 200 pztan salduko da. Pottale hau atera eta bere-

hala egongo da liburudendetan, ekainaren bigarrei [sic] astean edo. Azala, JM Susperregirena izango du.

Esan eta egin, urte horretan bertan argitaratu zen *Etiopia*, Potten babespean Atxagak argitaratuko zuen liburu bakarra. T.S. Elioten itzulpenen liburua urte batzuk geroago (1983an) argitaratuko zuen Hordago argitaletxeak, *T.S. Eliot euskaraz* izenburuarekin eta Aresti, Sarrionandia eta Juaristiren itzulpenez osatua.

## 2.2. Franco osteko bigarren aldia (1980-1984)

80ko hamarkadaren hastapenetan hiru aldizkari funtsezko jarri ziren martxan: *Susa*, *Maiatz* eta *Pamiela*. Gerora, aldizkari horiek argitaletxe bana sortuko zuten eta edizioaren historia garaikidean mugarri izango ziren.

*Susa* aldizkaria 1979. urtearen amaiera aldera sortu zuten Mikel Hernández Abaituak, Josu Landak, Xabier Montoiak, Eneko Olasagastik, Pablo Sastrek eta Iñaki Uriak. Deustuko Unibertsitateko Gipuzkoako campusean sortu zuten, garaiko Gipuzkoako Unibertsitate Eskola Teknikoa<sup>12</sup> zeritzonean, eta kide gehienak hasi berria zen Euskal Filologiako karreraren matrikulatuta zeuden. Lehen zenbakia 1980an argitaratu zuten, eta haren helbidea, hain justu, unibertsitatearena berarena izan zen. Luze gabe, lehengo zenbakian jada kolaboratu zuen Mikel Antza ere batu zen taldera, eta proiektuaren bultzatzaile nagusienetakoa bilakatuko zen (Saraso-la, 2019). 1980an bi ale argitaratu zituzten, 1981ean bakarra eta 1982an hiru. Horien artean, bosgarren alea da aipagarrietakoa (1982ko apirilean plazaratua), Bernardo Atxagari eskainitako ale berezia. Oraindik obra laburreko autorea zen Atxaga, *Ziutateaz* eta *Etiopia* zituen helduentzako<sup>13</sup> bere lan bakarrak (*Pott* aldizkariak gain, jakina, 1980an amaitu zena) eta horixe bera aipatu zuten ironikoki *Susako* kideek ale berezieren aurkezpenean: “Nola uler daiteke lau txorrada idatzi dituen bati SUSA osoa eskaintzea?” (Susadi Taskatasuna, 1982).

Ale berezi honek aldizkariaren egitasmoen transmisioa irudikatzen du nolobait; izan ere, *Susako* kideak hurrengo belaunaldikoak ditugu, Atxaga baino hamar bat urte inguru gazteagoak gehienak, eta nahiko agerikoa da *Susa* aldizkariko lehenengo urteetan bederen, Franco osteko lehen

[12] Gaztelaniaz EUTG moduan ezaguna: Escuela Universitaria Técnica de Gipúzcoa.

[13] 1980an hasi zen haur eta gazte literaturako erreferentziak argitaratzen, Juan Carlos Eguillor-en ilustrazioekin. Bi zituen argitaratuak ordurako: *Nikolasaren abenturak* eta *kalenturak*, eta *Ramuntxo detektibea*.

aldiko aldizkariaren eragina. Hala aldizkariaren egituraren (ipuin eta poemak, itzulpenak, literatura kritikak...) nola tonuan, haien arrastoa nabaria da, eta hala, ez da harritzekoa aldizkari haien bultzatzaile nagusiengentakoarengan jarri izana arreta (Atxagaren obraren indar berezkoaz aparte, noski).

Atxaga bere ibilbideko une mugarriraino zegoen orduan, Obabako munduan izango zenaren hastapenetan. Hilabete gutxi batzuen buruan, 1982an bertan, emango zioten Atxagari Irun Hiria saria *Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena* ipuinagatik, zeina Obaba proiektuaren baitan sortu zuen lehen testua izango zen<sup>14</sup>. Kritikoek lau alditan banatzen dute Atxagaren obra (González-Allende eta Ascunce, 2018), eta 1982. urtea lehen aldiaren (aro abangoardista) eta bigarrenaren (Obaba zikloa) arteko igarobidean koka dezakegu.

Geroago azalduko denez, 1983an Susak argitaletxea sortzea erabaki zuen, eta horrekin batera, egitura guztia (aldizkaria barne) *Argia* aldizkariaren babespean geratu zen. Kontuan izan behar da garai hartan Susako kide batzuk (Josu Landa, Mikel Antza, 1985etik aurrera Gorka Arrese) *Argiako* langile zirela, eta beren eginbeharren pean geratu zen halaber *Susa* aldizkaria (eta argitaletxea) aurrera eramatea.

1980tik 1994ra 33 zenbaki argitaratu zituzten, eta aldizkariaren hiru aldi bereiz litezke gutxi gorabehera. Hastapenekoa, 1980tik 1987 artekoa, zeinak, besteak beste, 1983an argitaletxearen sorrera bizi izan zuen. 1987-1993koa, non Iñigo Aranbarri eta Gorka Arrese izan ziren arduradun nagusiak; eta, azkenik, 1993-1994 artean argitaratu ziren azkeneko hiru aleena, Lubaki Bandak<sup>15</sup> zuzendu zituenak.

*Maiatz* proiektua Baionan sortu zen 1981eko maiatzaren 10ean (Elizalde, 2019). Itxaro Borda eta Luzien Etxezaharretak abiatu zuten proiektua, baina luze gabe “*Maiatz Batasuna*” taldea osatu zuten hainbat belaualditako kideak bilduz: 36ko Gerra baino lehen jaiotako Iratzeder eta Piarres Xarriton alde batetik, baina baita garaiko idazle gazteak ere: Borda eta Etxezaharretaz gain, Aurelia Arkotxa eta Jon Casenave, besteak beste. Iparraldeko idazleen elkargune eta sustatzaile izan zen *Maiatz*, eta lan berriak publikatzeko plataforma eskaintzeaz gain (aldizkariaren bidez lehenik, argitaletxearekin gero), euskara eta literaturaren inguruan

[14] *Obabakoak* liburuko lehen testua da, orobat.

[15] Idazle gazteen taldea izan zen, hamalau kidekoa, tartean Gari Berasaluze, Harkaitz Cano, Xabier Gantzarain, Ander Izagirre, Asier Serrano.

hausnartzeko gunea eskaintzen zuen. Izan ere, Itxaro Bordak (2007) aipatzen duenez, garai hartan euskararen eta Euskal Herriaren iraganari buruzko ikerketak hobesten ziren, eta literatura ia luxutzat jotzen zen Iparraldeko euskaltzaleen artean: “euskal gauzen ikerketa hobesten zen, hilerrriak, sorginak, jantziak, dantzak, idazki zaharrak. Orduko gure mundua iraganari begira zegokion, iraganaren azterketak zekarkeen uni-bertsitate mailako ohore bila”.

Aldizkariaren lehen zenbakia ez zen 1982ko otsailera arte argitaratu. Baionako Fakultatean aurkeztu zen, sortu berria zen Euskal Ikasketen Institutuan (Elizalde, 2019). 500 aleko tirada izan zuen eta literatura bizia aldarrikatu zuten zenbakiko editorialean, ez gauza hilak, “ikerketa hotzetarakoak” (*Maiatz*, 1982). Hiruhilekoa izateko sortu bazen ere, urtean bi zenbaki argitaratu izan dira, eta kolaboratzaile talde esanguratsua izan du, garaiko idazle nabarmenetakoek osatua: Emilio Lopez Adán “Beltza”, Eñaut Etxamendi, Daniel Landart, Mayi Pelot, Manex Erdozaintzi-Etxart, Beñat Oihartzabal, Txomin Peillen eta abar. Egun argitaratzen jarraitzen duen literatura aldizkari bakarrenetakoa da, garai hartatik jarraitzen duen bakarra *Idatz & Mintz*-ekin batera.

1984. urtea mugarrria izan zen *Maiatz*entzat. Argitaletxea sortzeaz gain, lehenengo literatur jardunaldiak antolatu zituzten Baionako Bil Txokoan, zeinetan Hegoaldeko idazleek ere parte hartu zuten. Hortik aurrera, jarraiak izan dira Hegoaldeko idazleen kolaborazioak, eta neurri batean, *Maiatz*ek Iparraldeko eta Hegoaldeko literatura sistemen katebegi lana egin duela esan liteke.

Izan ere, *Maiatz* aldizkari berezia izan zen literatura aldizkarien booma deitu izan zaion horren barruan (Elkoroberezibar, 2004). Ikusi dugunez, boom honen hastapena Donostian koka liteke *Ustelarekin*, eta Bilbora zabaltzen da gero *Pottekin*. Garaiko beste aldizkari batzuk ere Donostian kokatu ziren (*Oh! Euzkadi*, *Xaguxarra*, *Susa*), eta testuinguru horretan, Baionan kokatutako eta Iparraldeko idazleek sustatutako aldizkari batek iraultza txiki bat suposatu zuen. Hain justu, halaxe definitua izan zen: garaiko aldizkari ezberdinena eta aukera gehien eskaintzen zituena (*Kandela*, 1985).

*Maiatz*ekin batera *Pamiela* izan zen garaiko aldizkarien ingurune gutxi-asko zentraletik aparte garatu zen beste proiektua. Kasu horretan Iruñean sortua, *Maiatz*en lehen zenbakia argitaratu eta hilabete gutxitara agertu zen *Pamiela* aldizkariaren lehen alea, 1983ko ekainean. Iruñeko Auzolan liburu-dendaren bueltan sortu zen (haren helbidearekin argita-



ratu zen aldizkaria), literaturaz mintzatzeko han elkartzen ziren lagun talde batek bultzatua: Txema Aranaz, Miguel Sánchez Ostiz, Xabier Eder, Pello Lizarralde, Víctor Moreno, Santiago Etxandi... Pamiela izena Lizarralde proposatua izan zen, Azkoitiko aitonari entzunda; antza, belau-naldiz belaunaldi pasatzen zen kaxaren izena zen, zeinak ipuin eta alegia zaharrak gordetzen zituen eta itxita utzi behar zen (Olaziregi, 2019). Aranzaren ideia izan zen aldizkaria sortzea, eta lehen zenbakian, aipatutako idazleez gain beste batzuen kolaborazioak ere izan zituen, tartean urtebete geroago Iruñean bertan *Korrok* aldizkaria sortuko zuten zenbaitena: Ana Iribar, Mikel Taberna eta Jon Alonso.

Hamar urte iraun zituen aldizkariak, 1993ko urte bukaera aldera argitaratu zuten azken zenbakia, 15.a. Hala ere, esan beharra dago argitalpena ez zela jarraia izan, 1986tik 1991ra ez zelako alerik argitaratu. Hone-lan banatu ziren aldizkariak urteka:

1983: 1-3 aleak.

1984: 4-7 aleak.

1985: 8-10 aleak.

1986: 11-12 aleak.

1991: 13. alea.

1992: 14. alea.

1993: 15. alea.

Honenbestez, garbi ikusten da 1983-1986 aldia izan zela emankorra. Aipagarria da, bestalde, *Pamielako* testu gehienak gaztelaniaz argitaratu zirela, euskarazkoak gutxiengoa izanik. Haatik, horretan ere garapena suma liteke: hastapen ia gaztelania hutsezkotik, geroz eta euskarazko testu gehiago publikatu zituzten (horietako asko itzulpenak), batez ere 6. aletik 12. alera. Hala, euskal idazle gehiago batu zitzaizkien lehen aletik aurrera, besteak beste: *Potten* bueltan ibilitako Bernardo Atxaga, Jon Juaristi, Jon Kortazar, Ruper Ordorika eta Joseba Sarrionandia; Luigi Anselmi, Pako Aristi, Itxaro Borda, Andolin Eguzkitza, Juan Martin Elexpuru, Xabier Etxaniz, Jose Angel Irigaray, Xabier Kintana, Txema Larrea, Laura Mintegi, Patziku Perurena, Bixente Serrano Izko, Patri Urkizu.

Aipagarria da, ildo horretan, Pott Bandako zenbait kidek Pamiela-rekin izan duten harreman estua. Atxagak eta Ordorikak gertutik parte hartu izan dute argitaletxearen martxan, eta Pamiela da Atxagaren obra gehienak kaleratzen dituen 1991n *Behi euskaldun baten memoriak* argitara eman zuenetik. Bestetik, *Pamiela* ondorengo beste literatura aldizkari

batzuen ernamuin izan da: *Mazantini* (1991-1993), *Garziarena Berria* (1997-1997) eta *Erlea* (2009-2018).

Franco osteko bigarren aldi honetan ere aldizkaritik argialetxerako eraldaketak ikus ditzakegu *Susa*, *Maiatz* eta *Pamielaren* kasuan. Aurreko aldiarekiko konparazioan, ordea, ezberdintasun funtsezko bat dago; hots, hiru proiektuek jarraipena izan dute argialetxe modura, eta egungo euskal literatura sistemako argialetxe garrantzitsuenen artean daude.

Susaren lehen sei zenbakien (1980-1982) ostean, taldeak argialetxea sortzea erabaki zuen. Josu Landa eta Xabier Montoia liburu banarekin joan ziren Luis Haranburu Altunarengana Kriselu argialetxean publikatzea ziezaizkien, baina hark Landarena bakarrik argitaratzea onartu zuen. Hori izan zen argialetxea sortzeko gertakari piztailea. Izan ere, hori ikusirik, argialetxea sortu zuten, eta bi liburuok izan ziren lehendabiziko aleetako batzuk: Montoiaren *Anfetamiña* (1983) poema liburua lehena eta Landaren *Ipurtargi beltza* liburu hibridoa hirugarrena. Bigarrena aldizkari garaiko hiru kidek sinatu zuten, Eneko Olasagastik, Gorka Setienek eta Maripi Solbesek: *Eta zergatik ez... Sigrid?* poema liburua. Lehen urte horietan, liburu guztiak bilduma bakarrean argitaratu zituzten harik eta 1987an Poesia eta Narratiba bildumak sortu zituzten arte. Lehen aldi horretako liburu aipagarriak dira, besteak beste: Mikel Antzaren *Lehen bilduma 82-84*, Itxaro Bordaren *Basilika*, Omar Nabarroren *Itxastxorien bindikapena*, Jon Aranoren *Bileterik gabe* edo Iñigo Aranbarriren *Jonas poisson*. 1986tik aurrera, argialetxea egonkortu eta pixkanaka handitzen eta garatuz joan zen, harik eta, esan bezala, egungo argialetxe garrantzitsuenetakoa bilakatu den arte. Honakoek publikatu dute, besteren artean, Susaren katalogoan: Uxue Alberdi, Jon Alonso, Jon Benito, Leire Bilbao, Harkaitz Cano, Unai Elorriaga, Hasier Etxeberria, Koldo Izagirre, Miren Agur Meabe, Juanjo Olasagarre, Jose Luis Otamendi, Mikel Peruarena, Eider Rodríguez, Kirmen Uribe. Gorka Arrese izan da argialetxeko editorea hogeita hamar urtean, 1987tik 2017 arte; handik aurrera, Leire Lopez da editorea.

Dagoeneko esana den bezala, *Maiatz* aldizkariarentzat 1984. urtea mugarririk izan zen. Orduan ipini zuten martxan, halaber, argialetxea. Bi izan ziren argitaratu zituzten liburuak urte horretan, bat euskaraz eta bestea frantsesez: Itxaro Bordaren *Bizitza nola badoan* eta Marc Legassenen *Concerto guerriller opour un paísquinexiste pas*, zeina aurrez euskaraz eta gaztelaniaz plazaratu zuen Txertoa argialetxeak. Orduz geroztik, urtean 3-5 titulu argitaratu izan ditu *Maiatzek*, eta hala, orotara 150 titulu ingu-

ru plazaratu ditu (Elizalde, 2019). Horien artean ugari aipa litezke, baina besteren artean honako hauek dira azpimarragarri: Piarres Aintziarten *Biziaren bazterrean* (1992), Ur Apalategiren *Erdi guneak* (1995), Manex Erdozaintzi-Etxarten *Herri honen erraietan* (1985), Eñaut Etxamendiren idazlan guztiak, Luzien Etxezaharretaren *Inter porcos* (2007), Antton Lukuren *Boitoletan* (1998), Txomin Peillenen *Mende joanaz* (2003), Mayi Peloten *Bihar-ko oroitzapenak* (1985) eta *Teleamarauna* (1987). Gaur egun, Luzien Etxezaharreta da Maiatz argitaletxeko editore eta kudeatzailea.

Azkenik, *Pamielaren* kasuan, aldizkariaren sorrera-urte berean (1983an) argitaratu zuten lehen liburua, Pablo Antoñanaren *Pequeña crónica*<sup>16</sup>. Orduan osatu zen, beraz, argitaletxea, Jorge Oteizak diseinatutako logoa zeramana (Olaziregi, 2019). Bigarren liburua euskaraz argitaratu zuten, Pello Lizarraldaren *E pericoloso sporgersi. Zuri beltzean* (1984), haren lehen narratiba-lana izan zena. Hortik aurrera, ibilbide oparoa egin du argitaletxeak euskal literatura sisteman. Txema Aranaz izan da kide garrantzitsuenetako bat, eta editore zein maketatzaile lanak egin izan ditu batez ere. 2000. urtetik hona Pello Elzaburu da editore eta kudeatzaile nagusia, baina aipatzekoa da, halaber, Jose Angel Irigarayk egiten duen lana bilduma batzuetako editore gisa. 2019. urtean sei langile zituen argitaletxeak soldatapean, nahiz eta kolaboratzaile sare oparoa izan hainbat lan puntual egiteko (Olaziregi, 2019). Bilduma ugari ditu argitaletxeak, eta aski emankorrak izan dira bere narratiba, haur eta gazte literatura, eta poesia bildumak. Horien artean honako autoreen hainbat lan aipa litezke: Bernardo Atxaga, Tere Irastortza, Joxemari Iturralde, Mariasun Landa, Xabier Lete, Ixiar Rozas, Joseba Sarrionandia, Arantxa Urretabizkaia, Patxi Zubizarreta. Alta, bereziki nabarmentzekoa da, orobat, saiakerak bilduma, zeina urtetan Juan Zelaia sariaren bidez sustatu izan den. Arlo horretan, euskal kulturari buruzko hainbat liburu erreferentziazko argitaratu dira: Juan Carlos Etxegoien “Xamar”en *Orhipean, gure Herria ezaqutzen* (1992), *Euskara jendea. Gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza* (2006) eta *Etxera bidean* (2018), Asun Garikanoren *Far West-eko Euskal Herria* (2009), Joseba Sarrionandiaren *Moroak gara behelaino artean* (2010), Jon Sarasuaren *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak* (2013). Bestetik, seinalatzeak dira, halaber, Nafarroaren historia eta memoria historikoa landu duten erreferentzia ugariak, hala nola, Tomas Urzainquiren eta Joan María Olaizolaren *La Navarra marítima* (1999) eta

[16] Aldizkariaren laugarren zenbakia, 1984ko lehena, Antoñanari eskaini zioten osoki, zeinak testu bakarra zuen euskaraz, Pello Lizarralde idatzia.

Jimeno Jurioren idazlan guztiak. Orotara, 35 urtetan, 1100 liburu inguru argitaratu ditu Pamielak euskaraz zein gaztelaniaz (Olaziregi, 2019).

### 3. Aldizkariak literatura sisteman

XX. mendeko 70eko eta 80ko hamarkadak funtsezkoak izan ziren euskal literatura sistemaren eraketan, ez soilik testuinguru politikoaren bidez sortutako egitura politiko autonomiko berriengatik, baizik eta egun garrantzitsuenak diren argitaletxeetako batzuk sortu eta instituzio literarioak gorpuztu zituztelako. Kontuan izan behar da orduan sortu zirela Elkar (1972), Erein (1976), Maiatz (1984), Pamiela (1983) eta Susa (1983), zeinak egungo panorama literarioan argitaletxe garrantzitsuenak diren (gerora sortutako Alberdania eta Txalapartarekin batera).

Argitaletxeen instituzionalizazio bide horretan, baina, elementu aski garrantzitsuak izan ziren literatura aldizkariak. Franco osteko lehen aldian *Ustela* eta *Pott*, zeinek argitaletxe-proiektu bana izanagatik ez zuten mamitzerik izan. Franco osteko bigarren aldikoek, ordea, *Maiatzek*, *Pamielak* eta *Susak* lortu zuten argitaletxeak sortu eta egonkortasunez gartztea, eta hala, argitaletxeen ernamuin izan ziren aldizkariak bigarren plano batean geratu ziren argitaletxeen egitasmo anbiziozkoen aurrean.

Prozesu horrek aditzera ematen du hain justu literatura sistema prekario baten normalizazio eta garapena. Literatura sistema oraindik heteronomoetan, literatura aldizkariak eta gisako egitura ahul eta behin-behinekoak nagusitzen dira argitaletxe independente edo are enpresa editorial handien aldean. Literatura sistema bat indartu ahala, argitaletxeek ordezkatzan dute literatura aldizkarien funtzioa, eta hala, aski normala izaten da haiek pixkanaka desagertuz joatea. Literatura generoei dagokienez, literatura sistema heteronomo eta txikietan ohikoagoak izaten dira poesia eta ipuinak nobelak baino, eta horixe gertatu zen euskal literaturan ere. 80ko hamarkada poesiaren eta ipuinaren hamarkada izan zela esan izan da; 90ekoa, aldiz, nobelarena, eta biraketa hori bat dator, halaber, aldizkarietatik argitaletxeetarako igarotzearekin. Ez alferriek, aproposagoak izan ohi dira aldizkariak poema eta ipuinak argitaratzeko nobelak argitaratzeko baino.

Halaber, argitaletxeen egonkortzeak ere zerikusia du editore autonomoaren figurarekin. Ohartzeko bagara, Franco osteko lehen aldiko saiakerak ezin izan ziren mamitu, besteak beste, *Ustela* zein *Pott* proiektuetako bultzatzaile nagusiak idazleak izan zirelako. Franco osteko bigarren al-

dian egonkortu ziren hiru proiektuetan, ordea, idazleak ez diren editore autonomo (eta gerora profesionalekin) egiten dugu topo: Maiatz – Luzien Etxezaharreta<sup>17</sup>, Pamiela – Txema Aranaz (eta Pello Elzaburu) eta Susa – Gorka Arrese. Jakina, editorearen figura ere hertsiki loturik dago literatura sistemaren egonkortzearekin, eta zehazki, instituzio literarioen eta baldintza ekonomikoen indartzearekin. Zentzu horretan, Franco osteko bigarren aldiko hirukoan salbuespena Maiatz litzateke, Etxezaharretak ez duelako bizibidetzat editore lana izan. Ez da kasualitatea; bistan denez, Ipar Euskal Herriko instituzio literarioak eta testuinguru soziopolitikoak euskal literaturarentzat Hego Euskal Herrikoa baino aski ahulagoa dugu. Horrek azaltzen du, neurri batean, hala *Maiatz* aldizkaria mantentzea nola argialetxearen funtzionamendu eta argitaldiak askoz ere xumeagoak izatea Pamiela eta Susaren aldean. Bestetik, Pamiela eta Susaren konparazioan, *Ustela* eta *Pott* (eta aurretik, *Lur*, esaterako) ez ziren ekonomikoki bideragarriak izan editore bat sostengatuko zuen egitura profesional minimo bat osatzeko. Gainera, haien bultzatzaileek (Izagirre eta Atxaga, hurrenez hurren) idaztea izan dute helburu nagusi, eta hala, horretara lerratu dira gerora ere.

Instituzionalizatze prozesu horrek ere eragina izan zuen literatura-kanonean. 70eko eta 80ko hamarkadetan hasiberriak ziren idazle eta egiturak egonkortu ahala, kanonean legitimazio indar handiagoa erdietsi zuten. Franco osteko lehen aldiko bultzatzaileak, esaterako, Atxaga eta Izagirre, idazle kontestatario eta bazterrekoak ziren, eta beren testuek kutsu kontrakultural argia zuten. Ez alferrik, ohikoak ziren beren aldizkarietan idatzitako testuetan garaiko euskal intelligentsiaren kontrakoak irakurtzea (Sarasola, 2015): Joseba Intxausti, Koldo Mitxelena, Jorge Oteiza, Juan San Martín... Gaur egunean, haatik, agerikoa da Atxaga kanonaren erdigunean kokatua dela, bereziki 1989ko Espainiako Narratiba Sari Nazionala erdietsi ondoren eskuratu zuen arrakasta nazioartekoarekin. Izagirreri dagokionez, ezin esan liteke argiki euskal literaturaren kanonean dagoenik: ez da autore bereziki arrakastatsua, ez eta saritua, eta askotan aipatu izan da kritikak eta, oro har, instantzia legitimatzaileek baztertu samar eduki izan dutela (Rodríguez, 2011). Hori kontuan izanik ere, nabarmentzekoa da Izagirreren eragina hainbat idazlerengan, hala estilistikoki nola ekintzailatza literarioari dagokionez ere, eta aintzat hartua izan da Hasier Etxeberriaren *Bost idazle* bezalako liburu erreferen-

[17] Egia da Etxezaharretak libururen bat argitaratua duela, baina gehienak editore lana garatu eta ondorengoak dira, eta lan harekiko modu subsidiarioan.

rentzialetan. Bestetik, Idurre Alonsok egindako ikerketaren arabera, irakaskuntza materialetan aski kokapen zentrala duen idazlea dukegu Izagirre, zehazki hirugarren multzokoa zazpitik (Alonso, 2010, 97. or.). Kurioski, Atxagak eta Izagirrek nagusiki landu dugun aldiko argitaletxeetan argitaratu dute azken urteotan, Pamielan eta Susan hurrenez hurren, eta horrek ere aditzera ematen du 70eko eta 80ko hamarkadetan sortutako proiektu editorialak ere erdigunean kokatu direla denborarekin, egungo idazle garrantzitsuenetako batzuen obrak argitaratzen dituztelarik.

70eko eta 80ko hamarkadetako literatura aldizkarien booma literatura sistema autonomoaren eraketarekin paraleloan uler liteke. Egitura berrien ernamuinak izan ziren batetik, zeinetatik batzuk ez ziren mamitu (*Ustela, Pott*), baina beste batzuk bai (*Maiatz, Pamiela, Susa*), gaur egungo argitaletxe nagusietakoak izateraino. Era berean, aldizkari horiek sortu eta bultzatu zituzten idazle askoren patua ere antzekoa izan da; hastapen kontrakultural eta bazterrekoak izan zituzten aldizkari haien garaian, baina gerora leku zentralagoa eskuratu dute euskal literatura sisteman. Neurri horretan, literatura aldizkarietatik argitaletxeetarako ibilbidea, eta horrekin batera, lehenengo murriztea, literatura sistemaren normalizazio sintoma gisara ere uler liteke. Izan ere, sistema normalizatueta argitaletxeak (horietako asko egitura profesionalizatuekin) kokatzen dira argitalpen-instituzioen erdigunean, eta literatura aldizkariak bigarren mailako rola hartu ohi dute, bereziki sortzen ari diren literatura sistemetan dutenarekin alderatzen badugu.

#### 4. Bibliografia

- Aldekoa, I. (2004). *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein.
- Alonso, I. (2008). *Euskal literatur sistema eta literaturaren didaktika aztergai. idazle, kritikari eta irakasleen iritziak teoria komunikatiboan argitara*. Bilbo: Labayru.
- Alonso, I. (2010). *Erdigune literarioak irakaskuntzan*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Alonso, I. (2012). Idazleen hierarkizazioa euskal sisteman. *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 81, 41-59.
- Atxaga, B. & Izagirre, K. (1975). Ez dezagula konposturarik gal, halere. *Panpina ustela*.

- Borda, I. (2009). Maiatz, 25 urte. *Bazka. Literaturaren soziologia baterako*. <<http://www.bazka.info/?p=227>> [Kontsulta data: 20/6/24].
- Elizalde, A. (2019). Maiatz (Baiona, 1984) [Semblanza]. Alicante: Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes.
- Elkorobereziabar, M.A. (1988). Literaturgintzarako plataformak. *Jakin*, 49, 21-42.
- Elkorobereziabar, M.A. (2004). Beste eskailera baten historia: *panpina Ustelatik* literatur aldizkariaren boamera. In *disidentziak oro. poetikak eta arte ekinbideak euskal trantsizio politikoan*. 1972-1982, Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia: Autorea. <<https://sites.google.com/xubi.eus/liburuak/hasiera/euskal-literatur-aldizkariak>> [Kontsulta data: 20/6/24].
- Erll, A. (2014). Generation in Literary History: Three Constellations of Generationality, Genealogy, and Memory. *New Literary History*, vol. 45, n.º 3, 385-409.
- Etxeberria, H. (2002). *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan*. Irun: Alberdania.
- Even-Zohar, I. (2011). El sistema literario. In I. Even-Zohar, *teoría de los polisistemas*. Tel Aviv: Universidad de Tel Aviv.
- González-Allende, I. & Ascunde Arrieta, J.A. (2018). *El mundo está en todas partes- La creación literaria de Bernardo Atxaga*. Bartzelona: Anthropos.
- Gorostidi, J. (2016). *Zazpigarren heriotza*. Donostia: Erein.
- Ibinagabeitia Proiektua. *Literatur aldizkariaren gordailua* (2001). Zarautz: Susa argitaletxea. <<https://andima.armiarma.eus/>> [Kontsulta data: 20/6/24].
- Kandela (1985). *Euskal letren dantza 1983an*. Donostia: Hordago.
- Maiatz (1982). Aldizkari bat, gurea... *Maiatz*, 1. <<https://andima.armiarma.eus/maia/maia0101>> [Kontsulta data: 20/6/24].
- Martínez, G. (2016). *Ct o la Cultura de la transición*. Madril: Debolsillo.
- Olaziregi, M.J. (2000). Un siglo de novela en euskera. In P. Urkizu (zuz.), *Historia de la literatura vasca* (504-588. or.). Madril: Uned ediciones.
- Olaziregi, M.J. (ed.) (2012). *Basque Literary History*. Nevada: Center for Basque Studies.

- Olaziregi, M.J. (2019). *Pamiela (1983- )* [Semblanza]. Alicante: Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes.  
<<http://www.cervantesvirtual.com/buscador/?q=pamiela>> [Kontsulta data: 20/6/24].
- Rodríguez, E. (2011). [Hitzaurrea]. In B. Gopegi (arg.), *Tiroa kontzertuaren erdian: eleberrietan politikaz aritzeari buruz*. Tafalla: Txalaparta.
- Rodríguez, E. (2015). *Por qué fracasó la democracia en España. La transición y el régimen del 70*. Madril: Traficantes de Sueños.
- Sarasola, B. (2015). *Bainaren belaunaldia; Ustela, pott eta Oh! Euzkadi*. Bilbo: Labayru.
- Sarasola, B. (2017). Bernardo Atxaga y su defensa de la autonomía de la literatura. *Castilla. Estudios de literatura*, 8, 1-26.
- Sarasola, B. (2019). *Susa-Literatura (Donostia-San Sebastián, 1983- )* [Semblanza]. Alicante: Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes.  
<<http://www.cervantesvirtual.com/obra/susa-literatura-donostia-san-sebastian-1983-semblanza-97108>> [Kontsulta data: 20/6/24].
- Susadi Taskatasuna (1982). Ale berezi honek ez du justifikaziorik. *Susa*, 5.  
<<https://andima.armiarma.eus/susa/susa0501>> [Kontsulta data: 20/6/24].
- Torrealdai, J.M. (1977). *Euskal kultura gaur. Liburuaren mundua*. Donostia: Jakin.



# **XXI. mende hasierako euskal literatura aldizkariak eta politika kulturalak: sarrera bat**

Ibon EGAÑA ETXEBERRIA  
Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU \*

---

\* “Hariak. Literaturaren eta arteen inguruko ikerketa feministak” ikerketa taldeko kidea.



1. Sarrera.
2. Kontrakulturatik blogen ez-tandara.
3. Hiru *baina* normalizazioari.
4. Kotsentsuaren kultura eta profesionalizazioa.
5. Bandak eta interpelazioak.
6. Azken hitzak.
7. Bibliografia.

## 1. Sarrera

Beatriz Sarlo literatura kritikari argentinarrak esana da: “egin dezagun aldizkari literario bat” esaten duena, funtsean, “egin dezagun politika kulturala” ari da esaten (Sarlo, 1992, 9. or.)<sup>1</sup>. Hutsune edo gabezia bati emandako erantzuna izan ohi da aldizkari literario bat, eta aldi berean, eztabaida ideologiko eta estetikoan esku hartzeko forma bat. Une jakin bateko eztabaida ideologiko, estetiko, kultural eta politikoen gaineko erradiografia bat eskaintzen digute aldizkariak, baita aldizkari bat sortzeko bulkadak ere. Ildo horretatik, Sarlok argudiatzen du aldizkariak literaturaren ikuspegi sozio-historiko bat sortzeko eta periodizatorako ezinbesteko lekukoak direla; liburuek ematen diguten ikuspegiak bestelakoa ematen digutelako, orainari eta uneko eztabaida estetiko-ideologikoei askoz lotuagoa. Horregatik, gogorarazten digu ikerlari honek, aldizkariak gaizki zahartzen dira, eta ez dira irakurgai xamurra irakurleentzat; aproposagoak dira literaturaren historiaz interesatutako adituarentzat. Era berean, ez du zentzurik aldizkariak orainalditik irakurtzeak, edo izango luketen gaurkotasun edo egokitasunaz galdetzeak, izan ere, argitaratutako orainaldian dute zentzua, eta hura berreraikitzeke dira lagun-garriak, ez egungo irakurgai literario gisa.

Kritikari horren ideiei jarraiki, literatura aldizkariak (eta baita haien presentzia edo absentzia ere) erabilgarri zaizkigu euskal literatura garai-kidearen periodizazio eta historiografiarako material gisa. Artikulu honen xedea, ildo horretan, 2000tik aurrerako aldizkari literarioei begira jartzea da, ez horrenbeste ale horietako edukiak xehe zerrendatu eta aztertzeke asmoz (ikerketa-lan sakonagoa eskatuko luke horrek, artikulu honen mugetatik haratagokoa), ezpada aldizkariok zein proposamen es-

[1] Eskerrak eman nahi dizkiot Nerea Arrutiri, Sarloren lanaren berri emateagatik.

tetiko-ideologiko egiten dituzten, zein politika kultural proposatzen duten eta interbentzio horiek uneko euskal literaturaz zer esaten diguten pentsatzea. Bereziki, zein erdigune eta zein kontsentsu interpelatu nahi duten ikusten ahalegindu nahi du testu honek, mende honetako euskal literaturan estetiken eta ideologiaren artean zein harreman eta tentsio izan diren gogoetatzeko. Xedea hori izanik, artikulua honen interesgunea ez dira instituzio baten abarora edo haren ekimenez sortutako aldizkariak, ezpada politika kulturalen eragiteko asmoz sortutako egitasmo autonomo eta espontaneoagoak. XXI. mendeko euskal literatura zer izaten ari den gure buruari ondo kontatzeke daukagu, eta artikulua honek bide horretan emandako urrats txiki bat izan nahi luke.

## 2. Kontrakulturatik blogen ezteandara

Mende berria estreinatzearekin batera, 2001eko martxoan aurkeztu zuen Susa argitaletxeak Andima Ibiñagabeitia proiektua, euskarazko literatura aldizkariaren gordailua. XX. mendearen azken 25 urteetan argitaratutako 16 aldizkariaren kopia digitalizatuak jaso zituzten webgunean, eta apurka katalogoa osatuz joan ziren, gerraosteko aldizkariari ere lekua eginda. Edozein artxiboren izaera bikoitza agerian jartzen du webgunea abian jartzeak berak: literatura aldizkariak eskuragarri jarri eta haiei bigarren bizialdi bat ematearekin batera, neurri batean, haien heriotza ere dekretatu zuen egitasmoak. Gordailuan gordetako altxorak bilakatu ziren literatura aldizkariak, irakurgai biziak bainoago, ikertzaile eta irakurle espezializatuen zain, irakurle arrunten esperoan bainoago. Artxiboa eskura izateak ez zuen ekarri, haatik, corpus horren gaineko ikerketa erruz zabaltzerik, salbuespenak salbuespen<sup>2</sup>.

Izan ere, literatura aldizkariak XXI. mendea hasterako galdua zuten euskal literaturaren esparruan izan zuten garrantzia. 1970eko hamarkadatik aurrera eta bereziki 1980ko urteetan argitalpen plataformak izandako agerkeriaren pisua galduz joan zen 1990etan eta zer esanik ez 2000ko hamarkadan. Beñat Sarasolak aztertu duen bezala (2021), argitaletxeak sortu eta finkatzearekin batera gutxituz joan zen literatura aldizkariaren pisua, eta literatura esparruaren instituzionalizazioaren argitan ulertu behar dugu prozesu hori. 1970eko eta 1980ko hamarkadetan literatura sistema bat eratu eta sendotzerakoan funtsezkoak izan ziren aldizkariak; argitaletxe berriak sortu eta finkatutakoan (Pamiela eta Susa, demagun,

[2] Aipagarriena Beñat Sarasolaren *Bainaren belaunaldia: Ustela, Pott eta Oh! Euzkadi atzerlan sendoa litzateke* (Sarasola, 2015).

1980ko hamarkadan), aldizkarien funtzioa bigarren mailakoa izatera pasatu zen, are gehienak desagertu arte.

2001ean berean, *Ostiela!* aldizkari literario-kulturalak Ibiñagabeitia gordailuan jasotako aldizkariari omenaldia egin zien udazkeneko zenbakian. *Korrok*, *Ustela*, *Pott* edo *Oh! Euzkadi*-ko atal hautatuak txertatu zituzten alean, omenaldi gisa. Irreberente eta probokatzailleak berreskuratu zituzten, noski (Koldo Izagirrerren eta Bernardo Atxagaren 1975eko eske-lak, sexu-langile bati egindako elkarrizketa), baina baita aldizkari haietako poema edo literatura elkarrizketak ere. Agerkari haiei omenaldia egiteaz bat, digitalizazioak izandako oihartzun ahulaz arranguratzten ziren aldizkariako kideak: “oharkabean ere ez, baina nahiko apal pasa da udaberriko berria, azken urteotako berririk hoberenetakoa” (Pedante Nazkan-teak 2001, 18. or.). Euren burua, gainera, aldizkari literario horiek sortu-tako katearen segida gisa ikusten zuten: “orain birtualak badira ere, li-teratur aldizkari horiek benetakoak izan zirelako gara. Eta gu errealak izan garelako, garelako, izango dira biharko aldizkari birtualak” (18). Ia mende laurden beranduago irakurrita, deigarri egiten da “birtual” eta “erreal”aren artean nahigabe bezala *Ostiela!*-koek ezartzen duten bereiz-keta. Alde batera, aditzera ematen du digitalizatutako aldizkari horiek “erreal” izateari uzten diotela, alegia, haien “heriotza” dekretatzen dela; bestetik, etorkizun digitalaz ere esaten du zerbait: paperezko literatura aldizkariaren tradizio horretan azkenetakoa izango zen *Ostiela!*. Mende al-daketaren sasoian, paperezko aldizkariaren kulturaren eta oraindik erro-tu gabeko mundu “birtualaren” arteko nahasteaz (baita nahaste terminolo-gikoaz ere) ere ematen ditu arrasto zenbait aldizkariako erredaktoreen aipamenak.

2006ra arte eutsi zion, edonola ere, *Ostiela!*-k 1995ean hasitako bidea-ri. Hasi, 1980ko hamarkadako literatura aldizkariak utzitako hutsunea betetzeko asmoz hasi zen argitaratzen, Paperzaleak elkartearen eskutik, Jon Arano, Iñaki Segurola, Balendin Tramon, Patziku Perurena eta Ramon Ugalde “buru-adar” zituela. 1990eko hamarkadako herri aldizkariaren sen-dotzeak eskaini zion halako egitasmo batek beharrezkoa zuen plataforma eta zabalkundea. Hastapenetik, baina, euskal kulturaren eta kazetaritzan ikusitako “hutsune” bati erantzutera zetorren *Ostiela!*, zenbait gai lantzen ez-zirela eta, aldizkari “heterodoxo-xamarra” (sic) egiteko asmoa azaldu zuten. Esplizituki azalduetako asmo heterodoxoa agerikoen aldizkariaren irudietan egiten zen, sarritan jaso baitzituzten argazki pornoak euren orrialdeetan, irakurleen begietara aldizkariaren bereizgarri nagusiena se-xuari emandako tokia izateraino (hala irakur daiteke irakurleen gutun

zenbaitetan). 1990eko hamarkadako euskal kultura sexofobia astintzeko asmorik ez zuten falta Paperzaleak-eko lagunek, baina heterodoxia bestelako alderdi ideologiko eta estetikoetan ere sumatzen da, baita lehen aleko manifestu-gisako “Bederatzi puntuko estilo-liburu ttiki-ttikia”n ere: ideologikoki nazionalismoari uko egin zioten, euskarazko kultura “nazionala” izan behar duen ideiatik urrunduz, eta baita desarrollismoari ere (ez alferrik AHT-ren Aurkako Asanblada elkarrizketatu zuten lehen alean, eta haren inguruan batutako idazle eta irakurleak hurbil izan zituen *Ostielal*-k) (Basterretxe, 1995, 4-5. or.). Hizkuntza estandarizatuaren zuzentasun estuaren aurkako jarrera ere irmo defenditzen da, Iñaki Segurok maiz literatura garaikideari bere hizkuntz kamustasunagatik egin zizkion kritiken ildotik. “Normalizaziorantz” zihoan euskal literatura eta kultura autonomiko baten kontra-diskurtsoa dakar, beraz, *Ostielal*-k 1990eko hamarkadan, eta baita 2000ko hamarkadaren lehen urteetan ere.

Literatura aldizkari soila izan gabe, kultura eta gizarte gaien inguruko artikulu, elkarrizketa eta pasarte ugari jaso zituen aldizkariak, baina literaturak beti izan zuen bertan tokia. Zenbait idazleren testuak argitaratzeaz bat (Juan Luis Zabala edo Iban Zaldurenak), esaterako, Atxagari (“El Ashaga”ri) 2001eko udazkeneko alean egindako elkarrizketak oihartzun zabala izan zuen. 2003an, berriz, aldizkariako arduradunen erreleboa gertatu zen, eta Hernaniko AEK eta Molotoff irratia inguruko kideek hartu zuten hurrengo aleak ateratzeko ardura (Juanbau Erauskin, Aitziber Altuna, Alberto Elosegi, Edurne Mendizabal, Gorka Setien eta Luis Intxauspek). Arduradunen aldaketak aldizkariaren norabideari ere eragin zion eta, hein batean *Ostielal*-k aurretik zuen joera kontrakulturala areagotu egin zen azken urteotan: indigenismoari lekua egin zioten, zapatismoaren inguruko testu ugari eman zituzten, anti-psikiatriaren ildoko ale bat plazaratu zuten... Sexuak eta pornoak lehen urteetan izandako lekua sexologiak hartu zuen azken aleetan, eta erabat androzentrikoa zen aldizkariaren diskurtsoan eta estetikan ahots feministek lekua hartu zuten, baita kritika literario feministak eta *queer* teoriak ere (Maidier Zilbetiren eta Josune Muñozen kolaborazioak tarteko, besteak beste). Aldizkariako literatura testuak hein batean literatura kanonikotik urrunagokoak ziren (Paneroren itzulpenak...), eta idazle berri zenbaitentzat (Uxue Apaolaza) eta zirkuitu estandarretatik kanpo idazten jarraitu zuten idazle undergroundentzat (Gorka Setien, Juanbau Berasategi...) plaza izan ziren 2003-2006 urteen artean argitaratutako aleak.

*Ostiela!*-ren azken alea 2006an argitaratu zen, eta aldizkariaren itxierak aro baten amaiera ere adierazten du; instituzio baten babesik gabe argitaratutako paperezko literatura aldizkariaren aroarena, eta aro digitalaren indartzearena. 2005-2006 urte inguruan, 2000ko hamarkadaren erdialdeko urte horietan, beste argitalpen plataforma batek hartu zuen protagonismoa euskal letren inguruko diskurtsoetan: blogak. 2005eko euskal kulturari buruzko errepasoa egitean, hala zioen Xabier Mendiguren Elizegik *Jakin* aldizkarian: “Horra modako hitza: bloga. Ez hitza bakarrik: sarearen barruko txoko pertsonal horiek gorakada dexentekoa izan zuten 2004an, eta 2005a egundokoa izan da” (Mendiguren Elizegi, 2006, 46. or.). Urte horietan hasi ziren, izan ere, idazle, kulturazale, irakurle, kazetari eta bestelakoak blogak irekitzen, eta euskal kulturak olatu teknologiko hori “atzerapenik gabe” harrapatu izanaren harrotasuna aipatzen du Mendigurenek berak. Alabaina, boom horrek formatuari buruzko galdera ere ekarri zuen euskal letretara: zer zen blog literarioa? Zein neurritan ordezkatu(ko) zituen papereko literatura aldizkariak? Idazle beasaindarrak tresna gisa ikusten zituen: “Modatik harago begiratuta, ordea, zer eskaintzen dute blogek? Funtsean komunikatzeko tresna dira, telefonoa, irratia edo aldizkari bat diren bezala. Horiek gero edukiz bete behar dira, eta edukiak izan litezke lerdokeriak edo perla zoragarriak” (ib., 46. or.). Formatuaren berezitasunen artean aipatzen zituen Mendigurenek horizontaltasun handiagoa (parean kokatzen zituelako idazle kontsakratuak eta hasiberriak), euskaraz idazten ari zen jende-kopurua igo izana, eta baldintzapen ekonomikoetatik aske egotea, paperezko aldizkari edo argitaletxeak ez bezala.

Alice Pantelek espainiar literatura esparruko blogak hiru multzotan sailkatzen ditu: legitimazio kulturalerako tresna zirenak, sormen-lanetarako laborategi funtzioa betetzen zutenak, eta “autoblogografiak” edo idazlearen identitatea eraikitzeari eskainiak (Pantel, 2018). Denborak ematen duen taxonomiarako edo funtzioak identifikatzeko distantziarik gabe, 2006 inguruko blogei buruzko euskal eztabaidetan nahasian agertu ziren Plantelek identifikatutako funtzio horiek, eta haien inguruko balorazio zein iritziak. “Blog literarioa” zer ote zen eztabaidagai izan zen eta, esaterako, Julen Gabiriak defendatu zuen euskal literaturan blog literariorik apenas zegoela. Bere hitzetan, lau ezaugarri bete beharko zituzkeen blog batek literarioa izateko: sortu ahala, jendearen aurrean publikatzea, osotasun bat daukan obra bat publikatzea, testuaren tripak erakustea eta autoreak berak testu horri buruzko argibideak ematea (Gabiaria, 2006). Urte berean, UEUK antolatuta, blogen eta euskal literaturaren

arteko mahai-inguru bat egin zen, eta okasiorako prestatutako testuan, Volgako Batelariak zalantzan jarri zuten blogek testu genero berririk sortu zutenik, blogei testuak probatzeko zuten baliagarritasuna aitortu arren. Blogak (gogora dezagun hitzak “kaiera” esan nahi duela jatorrian ingelesez), bestalde, idazlearen intimitatea erakusteko bitarteko zirela zioten testu hartan, baina sarritan gisa horretako idatzi autobiografikoak “plazer literariorik” eskaintzen ez zuten testuak zirela ere bai (Volgako Batelariak, 2006).

Gabiriak aipatutakoari jarraituz, ezin liteke esan euskal literatura blogak esperimentazio formal eta literariorako espazio gisa bereziki nabarmendu zirenik, eta akaso ez zuten literatura genero edo azpigenero berriak probatzeko tarterik sortu. Alabaina, izan zen 2000ko eta 2010eko hamarkadetan blogetan idazten hasi eta ondoren liburu formatuan argitaratu zuen idazlerik. Ana Malagonek, adibide bat aipatzearen, *Samuraitasuna* blogean argitaratu zituen estreinakoz zenbait mikroipuin, gerora *Lasai, ez da ezer gertatzen* (2014) liburuan bildu zirenak; eta akaso mikroipuinaren formatua hautatu izanak badu zerikusirik estreinakoz argitaratu zireneko euskarriarekin, blogak formatu labur eta hiperlaburretarako plataforma egokia eskaintzen du-eta. Bea Salaberrik ere aipatu izan du bloga idatzi izanak bere literaturaren laburtasunerako joeran badukeela zeresanik (Artola, 2016). Izan zen, orobat, eguneroko gisako blog pertsonal batean argitaratu ostean liburu bihurtutako narraziorik. Joxe Aranzabalek minbizia diagnostikatu ostean blog batean apurka ondutako kronika *Medikuak esan dit minbizia dudala* (2005) izenburupean liburu bihurtuta plazaratu zuen Elkarrek, Literatura bilduman, fikziozko lanekin batera, hein batean batean literaturaren kontzepzioa bera zabalduz.

Alabaina, euskal literaturaren inguruan ugaldu ziren blog gehienak akaso hurbilago zeuden kultura kazetaritzatik eta euren funtzioak zerikusi handiagoa zuen sarrienik kultura legitimazioarekin, hitzari Bourdieuk emandako zentzuan. Alegia, norbere burua egile bezala eraikitzearekin, kultura gaien inguruko iritziak plazaratzearekin, kritikarako plaza izatearekin eta funtsean, literaturaren definizio jakin baten aldeko posizio-hartzeekin. Xabier Mendiguren Elizegiren edo Hasier Etxeberriaren blogek askotariko gaien inguruko hausnarketei egin zieten lekua, eta Anjel Lertxundik gogoeta-pieza laburretarako baliatu zuen berea. Beñat Sarasola edo Katixa Agirre bezalako idazle artean hasiberriek ere bloga baliatu zuten, ez hainbeste literatura sorkuntzarako ezpada kritikarako, gogoetarako, beste inon argitaratutako testuak argitaratzeko, elkarrizketarako... Aipatzekoa da, bestalde, blogek erantzun eta iruzkinetarako



ematen duten aukera baliatuz, ugari izan zirela 2000ko bigarren hamaraldian batik bat euskal literaturaren inguruko blogariek eta haien irakurleek elkarri egindako iruzkinak eta sortutako eztabaidak.

Azterketa sakonagoen zain, ausartuko ginatke esatera blogen eztanda horrek, paperetik Interneterako formatu-aldaketaz gain, zenbait paradigma-aldaketa ere ekarri zituela: 1. Literatura eta kulturaren inguruko diskurtsoak indibidualizatzea. Blog gehienek egile bakarra baitzuten eta, beraz, auto-legitimazioekin edo norbere egiletasuna eraikitzearekin lotura estua zuten, asmoz ez bazen ere efektuz. 2. Autoritate kulturalaren lekualdatzea eta nolabaiteko demokratizazioa. Blog bat sortzea edo iruzkinak egitea “edonoren” esku zegoenez, paperezko aldizkari bat sortu edo bertan idaztea ez bezala, literaturaren inguruko iritzia ez zeuden soilik adituen, kritikarien edo idazleen esku, nahiz eta, noski, blogen egileen artean ere kapital sozial eta sinbolikoak oso desberdinak eta desorekatuak ziren. 3. Publikoaren eta pribatuaren arteko banaketa birdefinitzea eta intimitatearen bestelako kontzeptu bat garatzea. Gerora sare sozial digitalek areagotuko zuten joera hori blogen eztanda garaian hasia zen nabarmentzen.

### 3. Hiru *baina* normalizazioari

Esan bezala, blogak, kaiera birtual gisa ulertuta, egitasmu indibidualak izan ziren gehienetan. Haatik, izan zen blogaren formatua erabiliagatik aldizkari literarioen izaera eta funtzioa betetzeko asmoa zeukan egitasmu kolektiborik 2000ko hamarkadaren bigarren erdian. *Volgako Batelariak* eta *Sareinak* aldizkariak, esaterako, blogaren formatua erabili zuten, baina aldizkari bokazioa izan zuten hasieratik, eta talde edo kolektibo banaren bozgorailu izan ziren. *Bazka* aldizkariak ere, aurreko biek bezala, eztabaida publikoan eragiteko asmoz ekin zion plazaratzeari. Hirurak izan ziren, Sarloren hitzetan esateko, politika kulturala egiteko modu edo bitarteko, eta XXI. mende hasierako literaturaren inguruko diskurtsoetan esku hartzeko tresna. Sarasolak azaldu duen bezala (ikus ale honetako aurreko artikuluan), literatura sistema eratu eta “normalizatu” ahala (komatxo guztiekin), literatura aldizkarietatik argitaletxeetarako bidea egin zuten hainbat egitasmok 1980ko hamarkadan. Zer esanik ez, 1990eko hamarkadan argitaletxe-sare hori finkatu ostean, 2000ko urteetarako sendotuta zeuden 80ko hamarkadan hasitako argitaletxeak, eta beraz, logikoa dirudi XXI. mende hasieran aldizkariak ez izatea horrenbeste sormen lanak plazaratzeko plataforma, ezpada eztabaida ideologiko-estetikoetan

esku hartzeko bitartekoak. Sormen lanetara baino, kritikara (hura zentzu zabalean ulertuta: kritika literariora, kritika kultural eta politiko-ideologikora) bideratutako aldizkariak dira, beraz, 2000ko hamarkadaren bigarren erdian, 2005etik aurrera, ekimen kolektibotik sortutakoak: *Volgako Batelariak*, *Sareinak* eta *Bazka*.

2005ean plazaratu zen *Volgako Batelariak*, lau idazlek eta kritikari batek bultzatuta: Rikardo Arregi Diaz de Heredia, Juanjo Olasagarre, Iban Zaldua, Angel Erro eta Ibon Egañari Uxue Apaolaza batu zitzaaien gerora, 2008an. Erdi-ironikoki erdi-serio, elkarrizketaren batean aipatu zuten *paper couchézko* aldizkaria egitea nahiago luketela, baina blogaren formatua hautatu zutela azkenean, merke eta eskuragarriagoa zelakoan. *Igela* edo *Pott* aldizkariaren tradizio satirikoaren ildoari jarraitu nahi izan zion aldizkariak, eta erregistro horren oihartzunak lehen manifestuan berean topa daitezke:

Moñoñotasuna, zurikeria, bertso-kitsch-laritza, biktimismo orokortua, produktu literario paketatua, euskararen kalonjeen (uler bedi: irakurle militanteen) nagusitasuna, plastidekor-idazleak, malditismo faltsuaz mozorrotutakoak, laurogeiko hamarkadaren (eta aurreko ia guztien) nostalgia... Horiek guztiak gaitzesten ditugu eta hemen beldurrik gabe salatuko. Akaso ez dira salagarri eta denbora galduko dugu, baina esan bezala, gogoak ematen dizkigu hala egiteko, dibertitu nahi dugu, eta dibertituko gara (*Volgako Batelariak*, 2005).

Erregistro ironikoaren atzean, orduko literatura esparruaren aurrean hainbat posizio hartzen ditu manifestuak eta aldizkariak: ahozko literatura eta idatzizkoa bereiztearen aldekoa, militantzia linguistikoaren aurkakoa, nostalgiaren kontrakoa, eta kultura edo literatura naifari aurre egin nahi diona. Manifestuaren beste atal batean zera irakurtzen zen: “gure gustuak eta gure gaitziritziak plazaratzea otu zaigu, ahalik eta zintzotasun handienaz, hori gaur egun garraztasuntzat hartua badateke ere. Zeren gaude garai belaxkak bizi gaituela. Gure gizartea umetzen ari da, eta literatura, noski, harekin batera”. Arrazionaltasunaren eta beldurrik gabeko epai kritikoaren aldeko jarrera bat aldarrikatzen da, beraz, Sarrionandiak behiala eskatzen zuen “kritika konplizearen” antipodetan legokeena (1988, 120. or.), eta suma liteke irakurlearen gustua, esperientzia edo plazera erdigunean jartzen duen irakurketa-moduaren kontrako jarrera bat ere proposatzen dela funtsean.

2000ko urteetan euskal letretan eta kultura diskurtsoetan zabalkunde izan zuten postmodernitatearen inguruko ideiek oihartzuna dute aldizkariako testuetan, bereziki, beharbada, nazio-auziari, abertzaletasunari

edo ETari begiratzeko zaionean, ikuspegi kritikoz, “Postindependentzia (A postponed manifesto)” testuan, esaterako (2008). Postmodernitate kontzeptu-aterki anbiguo horren barruan, termino hori errelato nagusien heriotzarekin lotzen duen ikuspegiak, kapitalismoaren 2008ko krisia lehortu aurreko urte horietan euskal literatura esparruan lekua zuela seinatzen digute *Volgako*en hainbat testuk. Alabaina, esan liteke literatura eta estetikari dagokionez, modernitate literarioaren jarraitzaile ez ezik haren zaindari ere izan zela aldizkaria. Ikusi besterik ez dago zein idazle elkarrizketatu zituen aldizkariak (Juan Garzia, Koldo Izagirre, Enrique Vila-Matas edo Dubravka Ugresic), eta zein balorazio-irizpide erabiltzen ziren kritiketan. Aldizkarian erabilitako “plastidekor literatura” edo “Erasmus literatura” bezalako etiketek, bestalde, ideia bera azpimarratzen dute funtsean; hau da, goi-mailakotzat jotzen den literaturaren defentsa bat egiten dela, light edo azalekotzat jotzen den beste literatura baten aurrean, eta funtsean ordura arte kanonikoa zen literatura modernoaren aldeko postura estetiko bat duela aldizkariak, nahiz eta jarreraz edo posturaz postmoderno agertu.

Era berean, bertsolaritzaren lekua zalantzan jartzean, edo kritika baloratzailea eta epai kritikoa aldarrikatzen denean, Europako tradizio literario handiekiko homologazioa bilatzen da hein batean, eta euskal literaturaren anomalia gaitzesten. Hau da, anomalia bezala ikusten da aldizkarian bertsolaritzak eta ahozko literaturak gure literaturaren esparruan daukaten lekua, anomaliatzat hartzen da hizkuntzaren militanteen figura, eta orobat kritika baloratzailek ezin egin izana, gure txikitasuna aitzakiatuta. Postura eta posizio-hartze horiek garaiko euskal literaturan gertatzen ari ziren zenbait aldaketaren berri ematen digute, eta *Volgako Batelarietan* argitaratutako testu zenbait besteak beste horregatik zaizkigu gaur egunetik interesgarri. Euskal literaturan ere merkatu-irizpideak nagusitzen ari direla eta gero eta gehiago literatura merkantzia gisa hartzen dela salatzen da inplizituki edo esplizituki artikulatu ugarian (“produktu literario maketatua” salatzen denean, adibidez). Literatura esparruko estetikaren ulerkeren arteko talka bat ere iradokitzen digute hainbat testuk, goi mailakotzat jotzen den literaturaren eta light, kontsumorako erraz kontsideratzen denaren artean legokeen bereizketa, alegia, aldizkariak mantendu beharreko bereizketatzat duena. Hirugarrenik, euskal literaturaren irakurle- eta hartzaile-tipologia aldatzen ari dela iradokitzen digute blogeko sarrerek, eta baita literatura irakurtzekoa ere. Sinplifikatuz, literaturarako hurbilketa intelektual-arrazional bat (aldizkariak defendatzen duena) eta hurbilpen emozionalago bat daude aurrez

aurre. Laugarren, autoritate kulturala ere eskuz aldatzen ari dela iradokitzen digute aldizkariko hainbat testuk, hots, adituen edo idazleen epai kritikoa eta balorazio arrazionala lekua galtzen ari zela, irakurketa-esperientzia anitzago eta pertsonalagoen aurrean.

Hein batean, 2000ko hamarkadako euskal literaturaren esparruan gertatzen ari ziren transformazio horien aurreko erreakzio gisa irakur ditzakegu aldizkariko kritika eta artikulu zenbait. Gerora argiago ikusi ahal izan den moduan, estetikaren edo autoritate kulturalaren inguruko eraldaketa horiek hein handi batean generoak zeharkatuta zeuden nahitaez, eta zenbait eraldaketak emakume idazle, irakurle edo kritikariak literaturan sartu izanarekin daude lotuta ezinbestean, nahiz eta aldizkariak ez zion horri erreparatu kasu gehienez. Generoari eta aldarrikapen feministei modu ironikoan egiten zaie maiz erreferentzia, neurri batean gainditutako eztabaidatzat ematen zelako. Aldiz, gaytasuna eta hari lotutako camp estetika (gehiegikeria, fribolitatea...) aldizkariak enuntziatzen leku gisa bere egin zituen hainbat testutan, eta gay tradizio literario bat bistartzeko ahalegina egin zuen, besteak beste “gay poesia”ri eskainitako serie baten bidez.

*Sareinak* kolektiboa izan zen kritika feministari eskainitako izen bereko literatura aldizkaria plazaratzeaz arduratu zena, 2007ko martxoan hasita, blog formatuan hau ere. Idazlerik ez zen tartean, unibertsitate-ikerlari eta irakasleak ziren kide gehienak, eta baita literatura kritikari eta kazetariak ere. Amaia Alvarez Uria, Iratxe Retolaza, Gema Lasarte eta Josune Muñoz izan ziren hasierako partaideak, eta gerora Onintza Irureta eta Ainara Sarasketa batu zitzaizkien, beste hainbat kolaboratzaileekin batera. Haien manifestua, hala helburuz nola estiloz ezin da Volgako batelarien testutik diferenteagoa izan:

Gure sarea, gure literatura zulatuta nabaritzen dugu eta, gehienetan, emakumeen izenak, liburuak eta lanak amiltzen dira zulo horietatik.

Beraz, sarein batzuek erabaki dugu jartzea eta konpontzen hastea. Badugu sarea, euskal literatura; badugu haria, kritika literarioa; badugu jostorratza, teoria feminista, eta, jakina, badugu gogoak, sarean sare aritzeko. Eta literaturan aberasteko, betidanik, sareinok, harian hari elkarri kontatu dizkiogulako egunerokoak, gure herriko pasadizoak, itsasoz bestaldeko istorioak, aholkuak, jostorratza erabiltzeko moduak eta kontutxo txiki batzuk belarrira esan... (*Sareinak*, 2007).

Aldizkariak helburu programatiko argia adierazten du kasu honetan, eta estilo zein egiteko modu didaktikoz heltzen dio kritika feministari.

Euskal literaturaren historiako emakumeak berreskuratzea, historia hori berridaztea, eta literatura garaikideko obren kritika feminista egitea ziren proposamen horren ardatzak. Aldizkariak hautatutako sinbologiak eta lengoaiak (sareinak, sarea, jaskintza, elkarri belarrira esandako kontutxoak...), feminismoa eta emakumeek idatzitako literatura aldarrikatzeaz batera, feminitatearen aldarrikapen bat ere bazekarren, akaso garaiko kultura esparruak eta estetika dominatzaileak bereziki gutxietsitako zerbait (emakumezko idazleak baino areago). Literaturaren esparruan ohikoa den lehiaren *habitusaren* ordez lankidetzaz eta elkarrekin jardutearen aldeko aldarria ere bazekarren aldizkariak, manifestutik hasita. Bultzatzaileen artean idazlerik ez egoteak ere urruntzen du beharbada aldizkaria beste aldizkari eta egitasmo batzuetatik, izan ere, kasu honetan aldizkaria ez baita, ezin baitu izan, norbere hautu estetikoak literaturaren esparruan nagusitzen laguntzeko bitartekoa.

Nolanahi ere, aldizkariko testuek eta kolektiboaren bestelako ekin-tzek euskal literaturan nagusi ziren literaturaren inguruko kontzepzioak ezbaian jartzea eta interpelatzea zuten xede. *Sareinak* taldea aurkezteko testu batean, Amaia Alvarez Uria kideak galdera erretoriko honen bidez interpelatu zuen literaturaren inguruko kontzepzio dominatzailea 2007an, zenbait gai literarioak jasaten zuten bigarren mailako trataera salatuz: “Zenbat emakume idazle ezagutzen dituzue euskal literaturan? Eta zenbat gizon? Zergatik izan behar da aspergarria emakume batek erosketak egin eta afaria prestatzen duen bitartean pentsatzen eta sentitzen duena irakurtzea eta interesgarria gizon batek gerran gertatzen zaizkionak kontatzea?” (Alvarez, 2007). Emakume idazleen ikusgarritasunaren aldarriaz gain, aipuan beharbada nahita edo agian ausaz aipatzen da gerra, baina sintomatikoki adierazten du 2000ko hamarkada horretan, euskal literatura esparruan nagusi zen ikuspegia: gerra, gatazka politikoa eta nazioarekin lotutako auziak zirela gai literario nagusi, legitimoak; are, 2000ko urteetan hedatu zen bereziki gatazkaz idatzi behar zelako ideia, hori zelakoan euskal literaturak egiteko zeukan ekarpena, eta gatazkari buruzkoak izan ziren saritu eta kanonizatutako obra eta egile ugari. Gehienetan subjektu maskulino baten inguruan ardaztutako istorioak izan ziren emaitza; eta bestelako tematikak maiz bigarren mailako literaturatzat hartuak izan ziren. Kritika feministaren eta *Sareinaken* interpelazioek, beraz, emakume idazleen ikusgarritasuna aldarrikatzeaz bat literatura legitimoaren ulerkera androzentrikoa bera interpelatu zuten.

Sareinak webgunea eta taldea, Volgako batelariak bezala bestalde, inoiz espresuki itxi edo amaitu ez bada ere, bereziki 2007 eta 2010 urteen

artean argitaratu zituzten haien testuak: literatura kritikak, ekitaldien kronikak, iruzkin misoginoen inguruko gogoetak... Horiekin batera, feminismoaren historia edo joerak azaltzen dituzten artikulu didaktiko-dibulgatiboak ere eman zituzten argitara (diferentziaren feminismoaz, feminismo marxistaz eta abar), eta baita topaketa edo erakusketa feministen inguruko testuak ere. Alegia, blog literarioa ez ezik blog feminista ere izan zen, zentzu zabalagoan, eta horrek ere hein batean talka zekarren garaiko literaturaren esparruko joera zenbaitekin eta literaturaren autonomia modu jakin batean ulertzen zuen ikuspegiarekin. Aipatzekoa da, bestalde, aldizkariaren bidez euskal literatura interpelatzeaz gain, kolektibo gisa egin duela lan *Sareinakek* eta ekitaldi ugari ere antolatu dituela (mahai-inguruak, literaturzale feministen topaketak eta abar), eta eragile aktiboa izan dela euskal literaturaren kritika feministan.

Bazka aldizkari elektronikoa, bestalde, 2007 eta 2009 urteen artean publikatu zen, Susa argitaletxeko Gorka Arreseren zuzendaritzapean. *Volgako Batelariak* eta *Sareinak* aldizkariak ez bezala, ez da atzean kolektibo edo idazle-talde jakin bat duen aldizkaria. Haatik, literaturaren esparrua interpelatzeako asmo agerikoz egina da, eta talde zehatz baten ahotsa ez bada ere, Susa aldizkariaren inguruko egile eta ahotsen bilduma da, orduko literaturaren esparruko lehien berri ematen diguna. “Literaturaren soziologia baterako” azpi-izenburua zeraman aldizkariak eta zenbait iritzi-artikulu publikatu ziren bertan; baina horiez gain, biltegi-funtzioa ere bete zuen, alde batera, euskal literaturaren inguruko idazle eta adituen adierazpenak jasoz eta, bestetik, argitalpen-datuak bilduz, bereziki sarien inguruan. Aldizkariaren abiapuntuan, izan ere, “Utikan Euskadi Sariak” manifestua zegoen, Jon Alonsok 2006an egindako ustelkeria-salaketa baten ondoren 2007an hainbat idazlek sinatutako manifestua, Euskadi Literatura sarietan parte hartzeari uko egiteko arrazoiak jasotzen zituen. Honakoak ziren ematen ziren arrazoietakoz zenbait:

- Sarion helburua, funtsean, egungo aginteari otzana zaion jardun intelektual eta literario bat sortzea ez ote den hasiak gara sumatzen. [...]
- Horretarako, antolamendu instituzionaletan behin eta berriz ageri den literatura aditu multzoaz eta zenbait erakunde gremialen dependen-tziaz baliatzen dira Euskadi Sariak.
- Zenbait teknikari, kritikari eta epai-mahaikok osatzen duten literatura sistema kudeatzen duen multzo horrek, irregulartasunak egin eta ontzat ematerainoko jokabidea erakutsi du, per-

tsonari dagokion dis-krezionalitatetik harantzago joanez (Utikan, 2007).

*Bazka* aldizkari digitalak izan zuen aurrekaririk, izan ere 1999 eta 2000. urteetan papereko bi zenbaki argitaratu ziren, orduan ere Susa argitaletxearen abaroen. 2007an berpiztu zen aldizkaria formatu digitalean, sarienginguruko polemikaren harira. Agerkariak segida eman zion hainbat artikuluren bidez Utikan manifestuak abiatutako bideari, alegia, zalantzan jartzea, artikuluen eta datuen bidez, Eusko Jaurlaritzaren politika kultural eta literarioa. Euskadi sariaren kudeaketatik harantzago, nolana ere, esparru zabalagoa izan zuen jomugan kritikak. Koldo Izagirre, Oier Guillan edo Gorka Arrese bera izan ziren testuon egileak, eta aldizkariak argi islatzen ditu 2000ko urteetan literaturaren instituzionalizatzearen inguruan zeuden tentsioetako zenbait. 90eko hamarkadatik aurrera sendotzen joan zen sistema literarioak botere autonomikoarekin zituen loturak kritikatzeko dituzten aldizkariak, eta planto egiteaz gain, kontrabotere posizio bat ere badakar aldizkariak, eta neurri batean, hura sostengatzen zuen Susa argitaletxeak.

Orain arte ez gara jardun 2000ko urteetako testuinguru sozial eta politikoaz, baina agian ez dago soberan pare bat ohar egitea, eta gogora ekartzea ETAk indarrean segitzen zuela urte horietan, eta ezker abertzalea legez kanpo zegoela Hego Euskal Herrian. Gehiegikeria litzateke esparru literarioaren eta politikoaren arteko lotura zuzenik iradokitzea, baina ez dago lekuz kanpo erreparatzea batak baduela bestean oihartzunik, eta ez isla zuzen gisa, baina errefraktatuta agertzen direla esparru politikoko gatazkak esparru literarioan. Sinplifikatuz, 1990etako eta 2000etako kontsentsu politikoetatik at utzi zuten ezker abertzalea, eta baita instituzioetatik kanpo ere; hein berean, 2000ko hamarkadako esparru literarioan ez dago kontsentsurik ez legitimitate-iturritzat hartzen den instituziorik, eta instituzio literario, akademiko eta administratiboekiko kontestazioa dago, Utikan manifestuak eta *Bazka* aldizkariak irudikatzen dutena, besteak beste. Erresistentzia bat, alegia, EAEko botere autonomikoaren kultur politikarekiko.

Euskadi sariaren balizko ustelkeriaren inguruko salaketa, nolana ere, ondoez sakonago baten sintoma gisa ere irakur dezakegu. Alde batetik, instituzionalizazioaren aurreko kontrako jarrera baten sintoma gisa eta, bestetik, euskal literaturaren anomaliaren salaketa gisa ere bai. Volgako batelariak euskal literaturaren anomalia salatzen zuten bezala (bertsolaritzak duen gehiegizko lekuagatik, kritikarako ezintasunagatik eta abar),

Bazkak ere instituzio literarioen eta literatura praktika batzuen anomalia salatzen zuen, ardatz nazionalari begira; hots, sarien izaera ez-nazionala salatzen zen, gobernu autonomiko batek emanak zirelako, eta funtsean literatura nazional “normal” bat izatearen falta da salatzen zena. Era berean, aldizkarian gogor kritikatu ziren gaztelaniaz argitaratu zuten euskal egileen obrak (Mariasun Landa eta Xabier Silveirarenak), literatura nazionala hizkuntzak definitzen duelako ideia sendo bati jarraiki (Izagirre, 2007). Alegia, ardatz nazionalak egituratutako literatura baten anomaliaren salaketa dago maiz *Bazkako* testuetan.

Hiruki bat osatu eta *Bazka*, *Volgako Batelariak* eta *Sareinak* erpin banatan kokatzeak balio diezaguke 2000ko hamarkadaren amaierako euskal literaturaren esparruan jokoan zeuden aferak zein ziren ikusten ahalegintzen. Institutuzionalizatutako literatura bat erakusten digute aldizkari hauek, eta, hain zuzen, instituzionalizazio horren formak eta edukiak dira kritikatzeko direnak. Aldizkari hauetan nahiz handik kanpo, literatura sariak izan ziren hamarkadako polemika eta eztabaida-iturri handienetakoa, eta gatazka horren atzean, literatura kanonaren inguruko ezinegon eta disputa ere ezkututzen da. Gogora dezagun 2005ean plazaratu zela *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan* eta 2006an Ana Urkizaren *Zortzi unibertso, zortzi idazle* elkarrizketa-liburua, kanonaren inguruko eztabaida mahai-gainean jarri zuten liburuak biak. Disputan zegoen kanonaren inguruko tentsioek forma diferentea hartzen dute aldizkari hauetan: kanonaren izaera androzentrikoaren salaketa *Sareinaken*, kanona ezartzen duten instituzioen ustelkeria eta autonomismoa *Bazkan*, eta merkatu-irizpideak kanonaren ezarpenean hartzen ari ziren pisua *Volgako Batelarietan*. Baina kritikak eta hura zalantzan jartzeak kanonaren existentzia bera baieztatzen du, akaso aurreko hamarkadetan baino sendago.

Era berean, instituzionalizatutako literatura horren normaltasun edo anormaltasunaren salaketa aldizkarien diskurtsoaren muinean dagoela esan liteke. Beharbada 1990etatik zetorren literaturaren normalizazioaren inguruko diskurtsoaren aurreko erreakzio gisa, nazio-estaturik gabeko literatura homologatu bat ez izateak eragindako “anomaliaren” kontzientziak forma diferenteak hartzen ditu *Volgan* edo *Bazkan*: batean, literatura nazional homologatu bat izango bagina bezala jokatzaren alde egiten da, besteak beste, kritikari eta parodiari lekua eginez; bestean, anomalia horren salaketa egiten da, ardatz nazionala indartzearen alde eginaz. *Sareinaken*, aldiz, balizko literatura normalizatu horren izaera androzentrikoa da zalantzan jartzen dena. Edonola ere, urteotako eztabaida



literario-ideologikoa errotik dago nazio-ardatzak markatua, eta feminismoaren zein literaturaren kritika feministaren oinarriak hedatzen hasi baziren ere, ez zuten izan hamarkada bat beranduago izango zuten zabal-kunderik.

#### 4. Kontsentsuaren kultura eta profesionalizazioa

2009an amaitu zen *Bazka*, eta 2010eko lehen urteetan itzali ziren *Volga* eta *Sareinak*, nahiz eta azken hauek gerora ere urteurren ekitaldiak eta bestelako ekintzak antolatzen jarraitu duten. Badakigu literatura hamarkadaka periodizatzeak arriskuak dituela eta sistema arbitrarioa dela, baina akaso ez da gehiegizkoa esatea 2010eko hamarkadak eta, zehazki, 2011ko ETAREN behin betiko su-etenak aro politiko, sozial eta kultural berri bat inauguratu zuela euskal gizartean, zeinak itzala utzi duen literaturaren inguruko diskurtsoetan, eta baita aldizkarietan ere. Beharbada ez da anekdota soila Volgako Batelariet talde gisa sinatutako azken agiria, 2011ko uztailean sinatua, ETAREN komunikatuen parodia-gisakoa izatea, eta bertan erakunde armatuaren erretorika parodiatuz “Volgako Batelarien desartikulazio orokor, aldebakarreko eta egiaztagarria” iradoki izana (2011). Edonola ere, ETAK armak utzi izanak, eta ezker abertzalea instituzioetan integratu izanak eten bat dakar aurreko urteetako dinamika zenbaitekin, baita kultura esparruetan ere, eta kontsentsu-aro deituko duguna inauguratzen du, 2010eko hamarkadan zehar irauten duena, eta gatazkaren orde z adostasuna, akordioa eta kontsentsua *leit-motiv* gisa hartzen dituen. Atutxak eta Retolazak gatazka armatuari buruzko literaturaren testuinguruan adierazi duten bezala (2021, 9. or.), literatura kritikari eta literaturaren ulerkerari ere eragin dio adostasunaren aldeko jarrerak, eta euskal kritikak “elkarbizitza” bultzatzeko funtzioa esleitu izan dio 2010eko hamarkadan literaturari.

Testuinguru sozial, kultural eta politikoa aldatzearekin batera, teknologietan eta plataformetan ere izan zen aldaketarik 2010eko hamarkadan. Ikertu beharrekoa litzateke iritziak plazaratzeko formatuetan eta plataformetan izandako aldaketek nola eragin duten adostasunaren paradigma horretan. Blogez aritu gara 2000ko urteak aipatzean, eta kaiera digitaletan jarraitu zuten diskurtso literarioen euskarri izaten, 2010etako lehen erdian gehiago bigarreanean baino. Euskarazko 36 literatura blog zerrendatu zituzten *Obabako Testiguen* 2013an: idazleenak (Iban Zaldia, Katixa Agirre, Xabier Mendiguren, Beñat Sarasola, Ana Malagon...), irratsaioekin lotuak (*Celosamente Gordea*, *Obabako Testiguak*), edo testu literario laburrak

argitaratzeari eskainiak (*Literatur Mikropilulen Farmazia, Hankahutsik*). Haatik, zerrendatutako 36 horietako zenbaitek utzia zioten argitaratzeari 2013rako, eta beste batzuek handik gutxira egingo zuten (Obabako Testiguak, 2013).

Baina sare sozialak eta bereziki Twitter aipatzea ere ezinbestekoa da 2010eko hamarraldiaz, plataformez eta formatuez ari bagara. Idazle eta irakurleek blogak sortzen eta elikatzen jarraitu arren, izan ere, eztabaida, polemika, eta iritzi-truke gehienak sare sozial horretan gertatu dira ziu-renik azken hamarkadan, eta blogek hein handi batean galdu dute argitalpen plataforma izateaz gain eztabaidagune izateko bokazioa eta ahalmena. Ordea, iritzi-trukerako, eztabaidarako egokiak lirakeen plataforma horiek, sare sozialak, hainbat ikerketa eta teoriarik iradoki duten bezala, kultura diskurtsoetan disentsua eta eztabaida bainoago jo dute kontsentsu batzuetan faltsuak elikatzea, eta kultura irizpide, gustu eta kontsumoen uniformizatzea. Sare sozial digitaletan, algoritmoen eta eratzaren diren sareen bidez, kontsentsu faltsuaren isuria elikatzen dute, hau da, adostasuna eta norbere ikuspuntuaren egokitasuna neurritz gain hanpatzen dute (Peirano, 2019). Egin gabeko azterketa da, eta beharbada susmo hutsa, baina egingo genuke Twitterrek ere gehiago bultza duela euskal kulturaren inguruko diskurtso, iritzi eta gustuen bateratzearen norabidean, kultura eztabaidak sustatzeko norabidean baino, iraupen laburreko polemikez harantzago joanez gero behintzat.

Adostasunerako joera horrekin batera, feminismoaren indartzea litzateke hamarkadako kultura politikak eta literatura esparrua errotik baldintzatu dituen beste elementua. 2010eko hamarkadako euskal gizartea eta kultura inarrosi zuten bi une politikoak 2011ko su-etena eta 2019ko greba feminista izan zirela esan genezake gehiegi okertzeko beldurrik gabe, eta tarte horretan gertatu direla gaur egunera arte iraun duten aldaketa sakonak literaturaren esparruan, bereziki literaturaren ikuspegi feministari dagokionez. Diskurtso politikoen eraldaketak nazio-gatazkaren pisua lausotzea eta difuminatzea ere ekarri du, eta behiala esparruko zenbait ahotsek zorrotz kritikaturako zenbait joera (demagun, euskaraz eta gaztelaniaz batera argitaratzea, espainiar medioetan argitaratzea eta abar) ez dira hain zorrotz kritikatu gaur egun.

Dena den, feminismoak ez du soilik ekarri emakume idazleen presentzia eta ikusgarritasuna areagotzea, irakurketa feministarako espazioak eta bitartekoak sortzea, edo lehenago gutxietsitako estetika edo gai batzuk legitimotzat hartzen hastea (eman dezagun, amatasuna, edo

zaintza). Horrez gain, aurreko hamarkadetan euskal literaturaren esparrua markatu duten dikotomia batzuk ere ñabartu egin dituela esan genezake, eta horrek eragina izan duela aldizkari literarioetan eta literatura eztabaidetan. Esaterako, euskal feminismoan gertatzen den instituzioen eta kaleko politikaren arteko continuumak beharbada lehengo jarrera anti-instituzionalak leunarazi ditu, baita jarrera anti-akademizistak ere, unibertsitatean produzitzen baita pentsamendu feministaren parte bat. Era berean, literaturan nazio-ardatza bestelako tradizio literario eta afinitate batzuekin ordezkatzeari ere ekarri du (alegia, idazle feminista zenbait afinitateak eta sareak euskal literaturan baino beste hizkuntza batzuetako emakume idazleetan bilatu izan dituzte), eta orobat literatura legitimatzeko espazio eta forma berriak ekarri ditu, kritika preskriptibo eta baloratiboaz bestelakoak (irakurle talde feministak, esaterako). Horiez gain, ikuspegi feminista hedatzeak kritikaren eta kultura diskurtsoen izaeran ere eragina izan duela pentsatzeko motiboak badira: alde batera, kritika androzentrikoaren tresna eta irizpide estetikoak ez direlako baliagarri zenbait idazle edo obraz aritzeko; bestetik, emakume idazleek eskuraturako ikusgarritasuna eta batzuetan arrakasta komertziala ikuspegi feminista zabaltzearen sintomatizat hartzen delako eta, beraz, merkatu-irizpideei aurre egingo liokeen kritika autonomo baloratiboaren ideia ezinbestean ñabartu edo auzitan jarri beharra ekarri duelako.

Testuinguru kultural eta sozial horretan, galde dezagun, beraz, zein paper jokatu dute azken hamarraldian literatura aldizkariak? Berriro ere gehiegi orokortzeko arriskua geure eginaz, esan genezake *Sareinak*, *Volgako Batelariak* edo *Bazka* bezalako ahaleginekin alderatuta, ez dutela literaturaren esparrua interpelatzeko eta berau modu esplizituan eraldatzeko bokazio hain argirik erakusten, oro har. Nabarmentzekoa da, bestalde, hamarraldi honetan aldizkari literarioek profesionalizatzerari eta pertsonalismora jo dutela zenbait kasutan. *Erlea* aldizkariarena da akaso adibide agerikoena, zeina 2009tik 2018ra argitaratu zen, Euskaltzaindiaren babespean, eta Bernardo Atxaga zuzendari zela. “1.700en aldizkaria” azpi-izenburua jarri zion idazleak aldizkariari, euskal irakurle-kopuru egiazkoa gutxi-asko hori zelakoan. Beñat Sarasolak aipatu bezala (2015, 107. or.), zer pentsatua ematen duen datua da *Pott tropikalak*, modu erabat autogestionatuan egindako aldizkari literario batek, 1980an 2000 aleko tirada eduki izana, eta *Erleak* 2009an Euskaltzaindiaren babes instituzional, ekonomiko eta profesionala izanik ere, buruan antzerako kopurua izatea. Pentsa liteke hizkuntzaren akademiaren babes instituzionala, paperean soilik argitaratzeko hautua egin izana, eta baita salneurria ere, besteak

beste, ez zituela aldeko izan aldizkari literarioak, lanak izan baitzituen irakurleak topatzen eta oihartzun mugatua izan baitzuen literaturaren inguruko eztabaidetan. Euskal Idazleen Elkarteak 1989tik argitaratzen duen *Hegats* aldizkariak, bestalde, aldaketa sakonekoa burutu zuen 2015eko aletik aurrera, eta dibulgazioari eman zion garrantzi handiagoa geroztik, diseinu berritua lagun. Berrikuntza horiekin batera, ale bakoitzaren koordinazioa eta edukien ardura idazle baten esku uztea deliberatu zuen elkarteak, *Erlearen* kasuan bezala autore-aldizkariaren traza handiagoa emanez agerkariari. Hala bada, aldizkariok dibulgazio-lanarekin eta idazle zenbaiten enkarguzko lanak argitaratzearekin zerikusi gehiago izan zuten, eta *Erlean* kritikarien ahotsari tartea egin bazitzaion ere, ez ziren nabarmendu literaturaren inguruko eztabaida publikoan eragiteko gaitasunagatik.

Babes instituzionalarekin argitaratutako aldizkarien artean bide propioa egin du *111 Akademia*-k ere, 2008az geroztiko krisi ekonomikoak asintindu bazuen ere. Andoango Manuel Larramendi Kultur Bazkunak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz argitaratzen zuen *Beterriko Liburua* aldizkaria argitaratzeari utzi behar izan zion, izan ere, 2012an, dirulaguntzen murrizketen ondorioz, eta 2014an itzuli zen *111 Akademia* izena hartuta (111 Akademia, 2014). Aldizkariaren asmoak eta baita 111 Akademiaren beste proiektuek ere (bereziki izen bereko sariak, zeina irakurleek bozketa bidez erabakitzen duten) euskal literaturaren esparruko beste aldaketa baten berri ere ematen digute: irakurleak eta haien iritziak apurka irabazten joan diren espazioaren berri, alegia, eta baita irakurleen gustu edo iritziek irabazitako legitimitate kulturalaren berri ere, kritikaren edo adituen juzkuen gainetik, edo bederen haiekin batera. Argigarria da 111 Akademia saria irabazitakoen eta Euskadi saria irabazitakoen zerrendak alderatzea, irakurleen juzkuen eta adituen artean sarri egon ohi diren aldeez ohartzeko.

Profesionalizaziorako eta instituzionalizaziorako joerarekin batera, aipatu beharrekoa da azken urteotako euskal kritikaren akademizazioa ere. Ziurrenik, inoiz baino unibertsitateko ikasle, irakasle eta ikerlari gehiago jardun dira euskal literaturaren kritikan azken hamarkadan; aitzitik, unibertsitatean egindako ikerlanek gero eta gehiago jo dute aldizkari zientifikoetan eta erdaretan argitaratzera, besteak beste, giza zientzietan ere beste zientzia batzuetako *peer review* eta aipu sistemak ezarpen gero eta handiagoa dutenetik. *Egan* aldizkariak berak azken urteotan egindako aldaketak testuinguru berri horretara egokitzeko ahaleginak izan dira, eta aldizkari honek jarraitzen du izaten euskal literatura

ikerketei eskainitako aldizkari bakarra. Kontrako noranzkoan, erakundeen babesean publikatutako literatura aldizkariak dibulgaziorako joera areagotu dute (*Hegats*, *111 Akademia*, *Erlea*). Hala, literaturaren inguruko ikerketa eta kritikak zirkulu akademiko gero eta itxiagoetan gotortzera jo du, eta irakurlego zabalarengana iristen diren aldizkariak apenas uzten dieten lekurik elkarrizketa edo erreportajeak ez diren gogoeta-testu luzeagoei, akademiaren eta erreseinaren artean legokeen kritikari, edo luzera ertaineko gogoeta-testu sakonagoei. Bada hirugarren joera bat ere, gogoan izatea merezi duena: azken urteotan entsegu eta pentsamenduari eskainitako espazioak ugaldtu badira ere (*hAUSnART* aldizkaria, *Katakrak* argitaletxea, *Lisipe* eta *Eskafandra* bildumak...), auzi politikoei eskainitako gogoeta-espazioak izan dira nagusiki (gai feministak nabarmentzen direla), eta literaturarekin edo auzi estetikoekin lotutako gaiak interes murriztagoa sortu dute.

## 5. Bandak eta interpelazioak

Testuinguru sozial eta kultural horrek eta aldizkariaren instituzionalizazioak bestelakotu egin dute aldizkari literarioen funtzioa, eta, 2010eko hamarkadako aldizkari gehienek gehiago egin dute dibulgaziorantz, beste garai batzuetan betetako funtzioak (idazleentzako plataforma izatea eta eztabaida intelektuala bultzatzea) bigarren plano batean utziz. Hala ere, izan dira urteotan modu kolektibo eta autonomoan, erakundeen ekimenekoak izan gabe argitaratutako literatura aldizkariak ere, dela formatu digitalean, dela paperekoan. 2012 eta 2015 urteen artean argitaratu zuten Danele Sarriugartek eta Garazi Arrulak *Elearazi* bloga, literatura eta itzulpengintza ardatz zituena, baina horrez gain hausnarketa kritikoak ere bildu zituen. Beatriz Sarlok seinalatu bezala (1992), aldizkari baten itzulpen-politikak islatzen du talde intelektual batek nola esku hartu nahi duen esfera publikoan eta nola berrantolatu nahi duen kultura tradizioa. *Elearazik* “Autoreak plazara” atalean eman zituen euskaraz hainbat idazle estreinakoz. Judith Butler, Assata Sakhur edo Cherrie Moraga dira blogean itzultitako autoreetako batzuk, eta literatura tradizio feminista, *queer* eta dekolonial bat eratzeko eta euskal literatura harekiko harremanetan kokatzeko ahalegina bistakoa da blogean, azken urteetan agerikoagoa hasieran baino. Elkarrizketa, kronika eta gogoeta kritikoei ere, besteak beste hilekoaren errepresentazioari buruzkoek, edo feminismo marxistaren ingurukoek, literatura feminismotik eta teoria kritikoei-tatik irakurtzeko ekarpena egin zuten, zenbait kasutan lan akademikoaren eta dibulgazioaren arteko zubi-lana eginez ere bai, neurri batean *Sareina-*

kek egindako lanari jarraipena emanaz. Aipatzekoa da, bestalde, *Elearazi*-ko testuek, kolaborazioek eta kronikek ikusarazten dutela feminismoaren inguruan sortzen ari den sare bat, hainbat tailer, mahai-inguru edo formazio-saioren berri ere jasotzen baitute testuok, eta badira bertan literaturaren inguruko pentsamendu feministaren genealogia bat osatzeko datu ugari, ikerketa berrien zain. Edonola ere, pentsamenduari eskainitako itzulpen-testuek zabalkunde murrizta zutelako zantzuak ere badira blogean. Esaterako, Arrulak Butler-en *Gender trouble* liburuaren bigarren edizioaren hitzaurrea itzuli ostean, blogeko iruzkin bati erantzunez airtortzen zuen lan handiak hartuagatik bisitari gutxi izan zituela testuak (Arrula, 2012).

Libururik argitaratu gabeak ziren Sarriugarte eta Arrula *Elearazi* blogari ekindakoan, baina bloga izan zen liburuak publikatu aurretik eta idazle izan aurretik egile gisa erreferentzia eraikitzeko bitartekoa ere bi itzultzaile eta idazle gazteentzat. 2000ko hamarkadan aipatu ditugun *Volgako Batelariak*, *Sareinak* edo *Bazka* aldizkariak ez bezala, 2010eko zenbait aldizkariak izan zuten idazle berriak sortu eta plazaratzeko funtzioa, izan ere. Hala gertatu zen *Itu Bandarekin* ere, 2012an sortutako literatura bandatik eta izen bereko aldizkaritik sortu baitziren gerora liburu bana argitaratuko zuten Itziar Ugarte eta Martin Bidaur, esaterako. Alabaina, sorburutik *Pott* eta *Lubaki* gogora dakartzan izendapena, *bandarena*, hartu zuen *Itu* taldeak, eta hasierako hiru kideei (Peru Iparragirre, Paul Beitia eta Alazne Arruti) izen gehiago batu zitzaizkien gerora (Itziar Ugarte, Jon Gurrutxaga, Mikele Landa eta Garazi Mugarza). Banda gisa autoizendatzeaz gainera, literatura taldeen formatuak erabili zituzten aldizkarian: fanzine gisako argitalpena, izengoitiz sinatutako testu literarioak, itzulpenak eta sormen-testuak konbinatzen dituzten aleak. *Pott* eta *Lubakiren* tradizioan kokatzen dira, halaber, zenbait hautu estetikorik dagokionez ere: Bukowskiren edo Kafkaren testuen itzulpenek tradizio literario jakinean kokatzen dituzte aldizkariak; eta sorkuntza-testuek estetika askotarikoak badituzte ere, Atxagaren *Etiopiaren* eta Sarrionandiaren oihartzunak badira poemetan, *Lubakikideen* testuetan gertatzen zen bezala, bestalde. Estetika, formatu eta asmoetan *Pott* eta *Lubakitik* zetorren harian kokatzeko borondatea bistakoa da, beraz. *Itu* aldizkariaren aleak sormenari eta itzulpenari eskainiak dira eta ez da, beraz, kritikarako edo literaturaren inguruko gogoetarako tarterik; era berean, bandaren manifestuak, Beñat Sarasolaren artikulu bati erantzun gisa idatzitakoak, ez du asmo programatiko argi bat azaltzen:

Lehenengo orrian darabilzkigun maskarek ongi esan duten moduan, ez gara hiru kale-argi soilik baina bagara kale-argiak. Banan bana piztuko direnak (edo, bestela, begira ezank leihotik) zeure estrata zeharkatu eta karrikak argi hori gozo batez erasoz. Kafe artean igeri berba egin dugu izkiriartzeaz. Izkiriartzeaz eta esna egoteaz. Gazte baikara eta zirrikituek ez baikaituzte akitu; ez oraino. Ez gara Sir Beñat Sarasolak deskribatzen zuen generazio distopikoa. Hemen gaude eta jarraitzeko asmoarekin (ai, Sarri!).

Baina ITUrri zaharrak ur berririk emango badu, guk argi daukagu geldo ez geratzea beharrezko dela. Horren ondorio da esku arteko fanzinea, konpai: leitzen duen ororen belarrietan deiarar errime bat, liburuaz emaniko belarrondokoa bilakatu dadin nahi genuke helarazle soil besterik ez garen hiru kale-argiok (Itu Banda, 2013).

“Gazte baikara” aldarrikatzen da lehen manifestuetan eta ondorengoetan ere, eta behin baino gehiagotan aitortzen da belaunaldi izaerak elkartzen dituela asmo estetiko edo ideologiko esplizitu batek bainoago. Gaztetasuna eta belaunaldikideak izatea da, halaber, *Obabako testiguak* irratsaio eta blogaren bultzatzaileek beren izaera definitzerakoan azpimarratzen duten bereizgarria ere. Horretan ere *Lubaki* bandaren izaeratik hurbilago daude 2000ko literatura taldeengandik baino, eta beharbada gaztetasunak gizartean ez ezik literaturaren esparruan kategoria eta identitate bezala irabazi duen lekuaren berri ere ematen du aldarriak. 2000ko urteetatik aurrera argitaletxeek deitutako beka eta sariak izan ziren egileak plazaratzeko bide nagusia (narratiban bereziki, hara hor Joseba Jaka, Igartza beka, edo Zubikarai saria), eta ziurrenik horrek eta argitaletxe-sare finkatu bat izateak eragin zuen, besteak beste, aldizkari literarioak ez izatea idazle berriak plazaratzeko plataforma behinena urte horietan. *Ituk*, baina, egiteko modu kontrakultural eta autonomoari heldu zion, eta horrek bidea eman zien poesiarekin eta genero literario hibridoekin esperimentatzeko.

Fanzinetik aldizkarirako jauzia eginda, *Lekore* plazaratu zuen *Itu* banda, eta izen-abizenez sinatu zituzten 2015etik 2019ra bitartean argitaratutako 5 zenbakietako testuak. Orrialde horietan idazle gazte berri ugari zabandu zizkieten ateak, 20 bat kolaboratzaileko sarea osatzeraino. Azken alea argitaratzean, 2019an, 8 atalez idatzitako editoriala plazaratu zuten, kide bakoitzak berea, alegia, hor ere agerian utziz egiteko moduan, plataformaren izaeran berean zegoela batasun-haria diskurtso partekatu bakar batean bainoago, baita lan kolektibo eta komunitarioaren izaeran ere: bandarekin kolaboratu zuten *Txakur Gorria* edo *Hiru Damatxo* bezalako



egitasmoak ere sorkuntzarako plataforma eta bide partekatuak esperimentatu dituen belaunaldi batez ari zaizkigu. Argitaletxe-sare eta bilduma finkoak dituen literatura sisteman, belaunaldi bati esperimentatzeko eta liburuen zirkuitu jakinetik kanpo jarduteko bideak eskaini zizkion *Itu Bandak*: dela fanzine edo aldizkarien bidez, dela jendaurreko emanaldi eta errezitaldien bidez ere. Martin Bidaurren poema liburua argitaratu zenean ironiaz iragarri zuten poema-liburu sorta handi bateko lehena izango zela hura; oraingoz bi liburu eman dituzte argitara; baina, esan bezala, aldizkariaren inguruan sortutako sareek bestelako formatu eta moduetan ere eman dituzte emaitzak.

2019an eman zuen azken alea plazara *Lekorek*, eta urte berean hasi ziren gogoeta eta hausnarketa-artikuluak argitaratzen *Itu* bandako zenbait kide, Paul Beitia bereziki, *Gedar* agerkarian eta *Arteka* aldizkarian, urte berean sortutako Gazte Koordinadora Sozialistaren hedabideetan. Ez dira aldizkari literarioak, baina badu interesik argitalpen horietako kultura diskurtsoei erreparatzeak, kontsentsuzko deitu diogun hamarkadaren amaieraren hasiera markatzen baitute testu horietako batzuek, hein batean bederen, hamarkadaren marko ideologikoa eta kontsentsua definitu duten bi oinarriak, nazioa eta feminismoa, ideologia gisa ukatzen dituzten heinean, eta kulturaren kontzepzio sozialista bat defendatu, klase-irizpideetan oinarrituta, nazioan edo generoan ardaztu beharrean. Sintomatikoa litzateke, esaterako, Aitor Bizkarra bertsolariak 2020. urtean aldizkari berean “«Utikan Euskadi Sariak» ala kulturaren antolakuntza antagonikoa” izeneko artikulua argitaratu izana, non 2007ko Euskadi sarien aurkako orduko erreakzioa berreskuratu, eta handik harantzago joanaz merkatua eta kultura-administrazio autonomikoa biak inpugnatu beharra aldarrikatzen zuen, baita bestelako kultura eredu bat sortu beharra ere (Bizkarra, 2020). Ikusteko dago literaturaren gaineko teorizazio horiez harantzago, literatura esparruan nolako eragina izango duen belaunaldi gazteagoen artean maila politiko-ideologikoan egon badagoen gatazkak.

Izan da lehenago ere 2010eko hamarkadako euskal literatura eta kulturaren esparruko joera ideologiko eta kontsentsuak ezbaian jartzeko ahaleginik ere, bide eta asmo oso diferenteetatik izan arren. 2016an plazaratutako *Lardaska* argitalpenak ale bakarra kaleratu zuen, aldizkari izateko asmoz abiatu bazen ere. *Barbalot* ezizenak sinatuta plazaratu zen alea, eta izen-abizenak emateari uko egin zion egileak aipatu zuen asmo situazionista zuen talde baten proiektua zela hura (Erostarbe, 2016). Koldo Izagirrerren hitzaurreaz argitaratutako argitalpenak testu laburrez



osatutako gogoetak jasotzen zituen, eta nazio euskaldunaren gainbeherari kritika zorrotza egiten zion. Pertsonalismoak ekiditeko argitaratu bide zuen aldizkaria izengoitiz *Barbalotek*, baina bestelako irakurketarik ere egin daiteke hautu horren inguruan: euskal kulturaren urte horietan gertatzen ari ziren aldaketa ideologiko eta kulturalen aurkako erreakzioa dakar, izan ere, aldizkariak, besteak beste feminismoaren zenbait postulaturi, “progreei”, edo nazioak politikaren ardatz nagusi izateari utzi izanari. Akaso 2010eko hamarkadako euskal literaturan eraikitzen ari ziren kontsentsu berriak berreraiki litezke, hain zuzen, *Lardaskak* kritikaren jo-puntuari zer jartzen duen, nor eta zer interpelatzen duen erreparatuta.

## 6. Azken hitzak

“Eta gu errealak izan garelako, garelako, izango dira biharko aldizkari birtualak” zioten *Ostielal*-koek 2001ean, 1970eko eta 1980ko aldizkariak digitalizatu berritan. Pasa da ia beste mende laurden bat, eta digitalizatu daude aldizkari haren aleak, baita *Itu* edo *Lekorerenak* ere. Eta literatura aldizkariak, modu batean edo bestean, jarraitu dute errealak izaten, existitzen, XXI. mendearen hasieran ere, eta ez digitalizazioak ez literatura sistemaren estandarizazioak ez dituzte erabat desagerrarazi. Bila gentzake azken hogeituro aldizkariak XX. mende amaierakoekin lotzen dituzten hariak, gainera: *Pott*, *Lubaki* eta *Itu* josten dituen banden haria, *Igela*, *Oh!* *Euzkadi* eta *Volgako Batelariak* lotzen dituen ironiaren haria, esaterako. Eten garbirik ezartzea edo aldizkariaren aroa amaitu dela aldarrikatzea, beraz, ausartegia litzateke ez bairik gabe. Nolanahi ere, artikuluan zehar aipatu dugun bezala, literaturaren esparruan betetzen duten leku eta funtzioari dagokionez, diferentzia handiak daude azken hamarkadotako eta 1970eko edo 1980ko aldizkariaren artean. Urteotakoak ez baitira eskuarki idazle berriak ezagutarazteko plaza izan, gutxi izan baitira talde literarioen bozgorailu-lana egin dutenak, eta profesionalizazioa jo baitute kasu askotan, baita dibulgazio eta kazetaritza-generoetara hurbiltzera ere. Hein batean, eraikitzeke dagoen sistema bat sortzeko tresna izatetik instituzionalizatutako literatura baten agerkari izateko funtzioa bete dute gero eta gehiago aldizkariok, eta nabarmentzekoa da, ildo horretan, ez dela XXI. mendeko aldizkari horietatik argialetxerik sortu.

“Ez dago ezer zaharragorik aldizkari zahar bat baino”, dio Beatriz Sarlok (1992, 9. or.). Ez dira ongi zahartzen aldizkariak, eta ez dira plazerzko irakurgai. Alabaina, lerro hauetan erakusten ahalegindu garen be-

zala, baliagarri zaizkigu argitaratu zireneko oraina, orainaldi literarioa, estetiko eta politikoa berreraikitzen laguntzeko. Unean uneko literatura esparruaren egoerak, eta garai bakoitzeko testuinguru soziopolitikoak baldintzatuak dira aldizkariak, eta haien bidez irakur ditzakegu azken urteotako euskal literaturaren esparruan gertatutako aldaketak: kontra-kultura euskaldun bat existitzeko zailtasunak, kritika feministaren pixkanakako indartzea, literatura kanonaren inguruko eztabaida literaturaren esparrua finkatu ahala, autoritate kulturalaren demokratizatzea eta kritikaren galera, literaturaren definizio hertsia eta zabalagoaren arteko tentsioa, ardatz nazionalaren ahultzea, edo adostasunaren kultura nagusitu izana. Baina aldizkariak ez dira aldaketa horien isla edo gordailu soilak; aldizkariok esku hartu dute, sortu egin dituzte diskurtso, tentsio horiek, eta ezbairik gabe desberdina litzateke azken hamarkadotako euskal literatura aldizkari horiek “errealak” izan ez balira, existitu ez balira.

## 7. Bibliografia

111 Aldizkaria (2014). Editoriala. *111 Aldizkaria* 01, 3.

Alvarez, A. (2007). Iracvrtcailleari. *Sareinak*, 2007-01-31.  
 <<https://sareinak.net/2007/01/31/iracvrtcailleari/>>

Arrula, G. (2012). Autoreak plazara: Judith Butler (I). *Elearazi*, 2012-06-24.  
 <<https://elearazi.eizie.eus/2012/06/24/autoreak-plazara-judith-butler-i/>>

Artola, A. (2016). Bea Salaberri: “Jendearen biziari lotua bada, banalitateak ere badu lekurik literaturan”. *Gara*, 2016-01-30.

Atutxa, I. & Retolaza, I. (2021). Gogoeta-leku dantzagarriagoak, gomuta-leku bizigarriagoak. In I. Atutxa & I. Retolaza (arg.), *Indarkeriak dantzatzera behartzen gaituzte. Gatazka armatuaren irakurketa feministak* (7-21. or.). Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

Bizkarra, A. (2020). “Utikan Euskadi Sariak” ala kulturaren antolakuntza antagonikoa. *Gedar*, 2020-01-18.  
 <<https://gedar.eus/ikuspuntua/ampldquotikan-euskadi-sariakamprdquo-ala-kulturaren-antolakuntza-antagonikoa>>

Erostarbe, G. (2016). Pentsamendu hutsaren alde, autoretzarik ez. *Berria*, 2016-11-27.

- Gabiria, J. (2006). Gure blog literario bakarra. <<https://eibar.org/blogak/gabiria/229>>
- Itu Banda (2013). Manifestua. *Itu Banda*, 2013ko ekaina. <<https://ituliteratura.wordpress.com/>>
- Izagirre, K. (2007). Le train express Durkheim-Castejón. *Bazka*, 2007-12-13. <<https://www.bazka.info/?p=266>>
- Obabako Testiguak (2013). 4. Euskarazko literatur blogak. *Obabako Testiguak*, 2013-03-01. <<https://obabakotestiguak.wordpress.com/2013/03/01/4-euskal-blogosfera/>>
- Pantel, A. (2018). Blog y legitimación cultural en la narrativa española. *Letral*, 20, 24-38.
- Pedante Nazkanteak (2001). “Joandako” kultur aldizkariak. *Ostiela*, 23, 17-19.
- Peirano, M. (2019). *El enemigo conoce el sistema. Manipulación de ideas, personas e influencias después de la economía de la atención*.artzelona: Debate.
- Sarasola, B. (2015). *Bainaren belaunaldia: Ustela, Pott eta Oh! Euzkadi*. Bilbo: Labayru Fundazioa-Amorebieta-Etxanoko Udala.
- Sarasola, B. (2021). Literatur aldizkariak argialetxeen eratze-bidean (1975-1984). In. M. Ayerbe (koord.), *Euskal ediziozintzaren hastapen ikerketak* (107-123. or.). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea-Argitalpen Zerbitzua.
- Sareinak (2007). Sareinen manifestua. *Sareinak*, 2007-03-03. <<https://sareinak.net/acerca-de/>>
- Sarlo, B. (1992). Intelectuales y revistas: razones de una práctica. *América. Cahiers du CEICALL*, 9 (1), 9-16.
- Sarrionandia, J. (1988). *Marginalia*. Donostia: Elkar.
- Utikan (2007). Utikan Euskadi Sariak. <<https://utikan.com/>>
- Volgako Batelariak (2005). Manifestua. *Volgako Batelariak*, 2005-03-29. <<https://eibar.org/blogak/volga/18>>
- Volgako Batelariak (2006). Blogen eta literaturaren gaineko solasaldia. *Volgako Batelariak*, 2006-02-17. <<https://eibar.org/blogak/volga/71>>

Volgako Batelariak (2008). Postindependentzia (A postponed manifesto).  
*Volgako Batelariak*, 2008-04-27.  
<<https://eibar.org/blogak/volga/.2008-04-27.postindependentzia>>

# Mahai-ingurua

## *Euskal literatura aldizkariak eta periferiak*



Juan Luis Zabala, Harkaitz Cano, Itxaro Borda eta Beñat Sarasola



## MAHAI-INGURUA

### *Euskal literatura aldizkariak eta periferiak.* *Gauzak ez dira horrela, gauzak horrelaxe daude*

**Parte-hartzaileak:** Itxaro Borda, Harkaitz Cano eta Beñat Sarasola

**Moderatzailea:** Juan Luis Zabala

#### JUAN LUIS ZABALA

*Euskal literatura aldizkariak eta periferiak* gaiari buruz mintzatuko gara ondoan ditudan hiru gonbidatuekin. Ez dizkizuet aurkeztuko, ezagunak direlako euskal literaturaren munduan. Dena den, haiei buruzko oinarriko informazioa badago Interneten, Armiarma webguneko *Zubitegia* atarian, besteak beste.

Idazle hasiberria ia beti da periferikoa hasiera horretan, eta maiz aldizkari bat izan du plazaratzeko lehen bide edo plataforma. Mahai-ingurua abiatzeko, zuetako bakoitzari eskatuko diot gogora ekartzeko nola-koa izan zen hasiera hori.

Itxaro Bordaren txanda izango da lehena. Periferikotzat, eta baita heterodoxotzat ere, hainbat alderditatik jotzeko moduko idazlea da: Oragarren (Nafarroa Beherea) sortua da eta Ipar Euskal Herrian bizi izan da beti. *Herria* lehenik eta gero bereziki *Maiatz* aldizkariak izan zituen plazarako lehen bide, eta emakume idazlea da, euskal literaturan emakumeak oso urri zirenean hasitakoa.

#### ITXARO BORDA

Berrogeita hamar urte dira euskal literaturaren larre motz honetan lanean ari naizela, batzuetan epaiten eta beste batzuetan ereiten, poetikoki errateko. Egia da zuk [Juan Luis Zabalarari zuzentzen zaio] aipatu dituzun heterodoxia oro biltzen ditudala ene baitan. Nik ez diet heterodoxia deitzen, albiak deitzen diet: Iparraldeko izatearena; emazte izatea-

---

## Itxaro Borda: “Erran dut ezagutu nuela emazterik gabeko euskal kultur mundu bat”

---

rena; laborarien alaba izatearena, deusetarik ateratzen den horietarik bat izatearena; eta azken denboran, 2000. urtetik hara, lesbiana naizela publikoki erratearena. Lehen ez genuen erraten. Idazten genuen, sentiarazten genuen aldi oro gure testuetan, eneetan bederen, baina ez genuen erraten. Ukan dut aukera, momentu batez, errateko. Horiek guztiek egiten dute ene literaturaren funtsa.

Hasi naiz hamabost urte nituelarik publikatzen, *Herria* astekarian. Euskaltzaindiko nire sarrera hitzaldian jendea pixka bat harritu duen kontu bat aipatu dut. Erran dut ezagutu nuela emazterik gabeko euskal kultur mundu bat. Eta egia da ezagutu dudala hori. Ez gara konturatzen, arazoak arazo direlarik beti, zenbat aldatu ziren iruditeriak, kultura mailan, mende erdi batez. Jendea pixka bat harritu da eta esplikatut diet 1978an hainbat idazle, idazlegai, idazleondo eta kulturaren munduan ibiltzen ziren batzuk bildu ginela, Belloc-en, horien artean Joan Mari Torrealdei eta Joseba Intxausti, besteak beste, Espainia frankismotik ateratzen ari zen garai hartako Euskal Herrian berriz kultura pentsatua izan zedin oinarri berrietatik abiarazteko asmoz, eta uste dut ni nintzela emazte bakarra. Neskak nintzen oraino, neskatxa gazte eta herabea. Baina hala ere ezagutzen ninduten izenez. Itxaro Borda marka sortua zen. Hasia bainintzen orduko *Zeruko argia* aldizkarian idazten. Elixabete Garmendiak, Pilar Iparragirre eta horiek gonbidatuta. Nahiz eta beldurtia izan, herabea, neure buruaz seguru ez sentitu, banuen, hala ere, halako gogo bat bide horretarik segitzeko. Gero *Maiatz* aldizkaria sortu genuelarik, hasieratik izan nintzen horretan Luzien Etchezaharretarekin batera, eta hor ere gehiengo gizezkoak ziren, baina hala ere bildu ginen Mari-kita Tambourin, Aurelia Arkotxa, Mayi Pelot, orain Sareinak taldeak mito bihurtu duena.

Gero, 1981ean, gure botere politikoa aldatu zelarik, François Mitterrand presidente izatera heldu zelarik, gauzak aldatu ziren kulturaren arloan, eta guk ere bagenuen gogo hori, euskal kultura, edo euskal literatura bederen, gure helmenetan zen hori, apezen atzamarretarik kentzeko. Apaizen atzamarra aipatzen ditut, hala baitzen denbora haietan, *Gure Herria* aldizkarian, baita *Herria* aldizkarian bertan ere, hor ziren denak, ideologikoki dena kontrolatzen zuten. Beraz, emeki-emeki sartu gara gazteak ere dantza horretan, *Maiatzen* bidez. Ni *Herriako* idazlea



naiz, kronika batzuk idazten baititut oraindik ere. Ez dut sekula arazorik izan pertsonalki *Herriako* apaizekin, ez dakit zergatik, beharbada emazte bakarra nintzelako, nahiz eta gauzak erraten nituen, emazteen faborez hitz egiten nuen beti. Piarres Lafitterekin ongi etortzen nintzen, beharbada ene espiritu kokin bera zuelako. Bazen generoaz haragoko halako konplizitate bat aitzinako belaualdiarekin, espiritu literarioa jorratzearena, ironia erabiltzearena... Zeren eta ironiak min egin dezaketen izkina asko leuntzen ditu.

Gero, Hegoaldeko idazle gazteekin ere harremanetan sartu naiz, kulturalki, aldizkariak sortuz eta abar antolatzen ari ziren idazle gazteekin. Ene periferiatik hor sartu naiz, sekula ene iparraldekoatasuna ukatu gabe. Eta hori enetzat oso inportantea da. Eta ene frantses kultura ukatu gabe ere. Zeren ez nuke nahi euskal kulturak gal dezan frantses kulturaren marka hori. Euskaldunak denen beharrean gara. Eta bestela, Hegoaldean espainolari buruz oso emanak baitira, eredu hori Iparraldean kopiatzen ari da, eta jadanik hasiak gara geure buruak espainol gisa kontsideratzen. Geure izenak prentsan-eta agertzen hasi dira aitaren eta amaren abize-nekin, eta gure eskualdean ez da inoiz izan halakorik. Nik hori eskatua dut, gutxienez errespetatzea nondik etorriak garen. Nik ez dut Borda Xarriton izendatua izan nahi. Aurrerago Hegoaldera bizitzera etortzen banaiz, Usurbilera edo, onartuko dut bi abizenez izendatzea. Erran nahi dut bazirela auziak lehen, batzuk trenkatu direnak eta beste batzuk ez, eta badirela orain ere, eta eskerrak badirela eztabaidak, baina uste dut *Maiatzen* gauza batzuk eraman ditugula aitzina, eta gure lekua egin dugula, nahiz eta hemen aldizkariak ez dituzuen oraindik denak diren bezala historikoki eta literarioki aztertu, eta *Maiatz* gelditzen den, mugarengatik, eta Frantziakoa delako, neurri handi batean, halako putzu sakon eta ezezagun bat bezala. Hori aipatu nahi dut, ene heterodoxiaren puntu bat baita gauzen erratea.

JUAN LUIS ZABALA

Periferikoa da, beraz, gaur egun ere, oraindik ere, *Maiatz*.

ITXARO BORDA

Bai, hala uste dut. Dena den, orain, garai numeriko hauetan, sarearen garai honetan, ez da gehiago periferiarik. Periferia bakoitza zentro bat da. Eta zu eta ni bakoitza zentro bat izaten ahal gara gure Twitter edo X sarearen haritik. Gauza horiek oro ere ezabatu edo ezeztatu dira denbo-

rarekin. Baina egia da, hau erraten dut nik beti, periferikoa naizela baina zentrala ere bai aldi berean, zeren eta zentralitatearen mugimendu kultural eta literarioetan parte hartzen dut. Beti onartzen dut parte hartzea, sariketa bateko epaimahaiko kide izatea galdatzen didatelarik, edo ipuin bat edo testu bat... beti parte hartzen dut. Gero, egia da ongi etortzen zaidala periferiarena ere, periferian izateak ematen duelako halako distantzia bat zentroan egiten den saldarekiko.

---

**Itxaro Borda: “Hau erraten dut nik beti,  
periferikoa naizela baina zentrala ere bai aldi berean”**

---

JUAN LUIS ZABALA

Harkaitz Canoren txanda da orain. Hasiberritan bai, jakina, Lubaki Bandaren garaian, baina gaur egun nekez esan daiteke Harkaitz Cano idazle periferikoa denik euskal literaturaren sisteman. Harreman handia du, ordea, literaturaren periferian dauden generoekin: komikia, antzerkia, kantu-hitzak, miszelaneak... Canoren *Ulu egiteko bolondres bila* (2023) liburuko poema batek zentratzeko eskatzen dioten baina zentratzen ez den idazle baten gorabeherak kontatzen ditu, hau da, literaturaren forma kanonikoetan baino forma askotarikoetan ikertzea nahiago duena. Badu Canoren antzik.

HARKAITZ CANO

Idazten hasi nintzenean, 90eko hamarkadaren hasieran, gure sarea literatura lehiaketetan ezagutzen genituen beste idazleak ziren, batetik. Eta bereziki aipagarria zen, Hegoaldean, Urruzuno lehiaketa. Lehiaketa horren bidez ezagutu genuen elkar gero beste zenbait lagunekin batera Lubaki Banda sortu genuen hainbat idazlek. Hamabost urterekin, zure nortasuna eraikitzen ari zarenean, artean nerabe zarela, inportantea da zure antzeko harrikada duen jendea ezagutzea. Mundu guztia hasten den bezala hasi ginen, mimetismoz, imitazioz, kopiaz.

Horretatik aparte, ez neukan aldizkari literarioen aditzerarik edo ezagupenik batere. Garai hartan, unibertsitatera joaten hasi aurreko garaiaz ari naiz, gehienez ere ezagut nitzakeen zenbait fanzine. Aldizkari literarioen radarraren azpiko beste errealitate bat ziren fanzineak. Fanzineak tabernetan erosten ziren, batzuetan liburu-dendetan ere bai... To-

patu egiten zenituen, ezustean, askotan literatura ortodoxoari ez dagozkion lekuetan.

Niretzat erreferentziala izan zen lehendabiziko aldizkaria komiki-aldizkari bat izan zen, *Napartheid*. Ez da kasualitatea Nafarroan mugitzen zen jendeak sortua izatea. Aldizkariak bilatu, eskuratu eta bilduma osatzea konplikatua zen garaian, hori egiten saiatu nintzen *Napartheidekin*. Batzuetan joaten zinen *Napartheiden* ale baten bila eta ez zegoen, eta horrek esan nahi zuen hilabete itxaron behar zenuela edo eskatu behar zeniola lagun bati, edo agian ez zenuela ale hori inoiz eskuratuko. Horrek altxor baten balioa ematen zion ale bakoitzari. Gaur egun zaila da beharbada hori ulertzea.

Aldizkari mutantea zen *Napartheid*. Ez zuen beti formatu bera izaten eta aldiro aldatzen zen gaia. Mikel Laboaren omenezko ale bat egin zuten egunkari-paperean. Hurrena atera zuten ale karratu bat Joseba Sarriondari eskainia, *Zitroi-ur komikiak* izenburuarekin. Beste bat *Higuina eder* izenekoa izan zen, gaur egun inon ezin aurkitu dena; oso ertzeko esperimendua da, muturrekoa... Komikiaren mundutik zetorren marrazkilari talde batek literaturara bere inkurtsioak egiten zituen, eta nik maite eta miresten nituen. Beti zegoen sorpresa bat. «Zer izango ote da hurrengoa? *Napartheideko* zoro hauek zer egin ote dute orain?». Eta Durangoko Azokan beti prestatzen zuten zerbait berezia, gaur egun «birala» deituko genukeen zerbait sortzen zuten, amu bat. Nik hor egon nahi nuen. Ez nintzen marrazkilaria, idazlea ere ez oraindik, baina hala ere haiekin identifikatzen nintzen irakurle bezala. Bilatu izan dudan zerbait zen hura, gose nintzen zerbait, eta geroztik oso gutxitan gertatu zait zerbaitekiko gose hori sentitzea, premia hori.

---

**Harkaitz Cano: “Niretzat erreferentziala izan zen lehendabiziko aldizkaria komiki-aldizkari bat izan zen, *Napartheid*. Ez da kasualitatea Nafarroan mugitzen zen jendeak sortua izatea”**

---

Gero, izan gaitezen zintzoak, zuk, idazten duzunean, liburu bat argitaratu nahi duzu, ez aldizkari batean poema batzuk atera, zure liburua argitaratu. Behintzat gu hasi ginen garaian, 90eko hamarkadan, hori posible zela ikusten genuelako, martxan zeuden argialetxeak baitzeuden horretarako. Nik Susara lehen aldiz jo nuenean, 17 urterekin, COU ikasten ari nintzela, ez nituen poema batzuk bidali aldizkarian argitaratzeko.

Bidali nuen liburu oso bat. Gorka Arreserekin, editorearekin, elkartu nintzen, Elurra tabernan, eta esan zidan: «Bueno, poema bat argitaratuko diagu gure aldizkarian». Niretzat dezepzio sakon bat izan zen. Poema batekin ez nindoan inora. Zer egingo dut nik poema bat argitaratuta? Baina egia da horrela hasi nintzela kideak ezagutzen, beste idazleak. Lehen Urruzuno lehiaketaren bidez ezagututakoen ondoren, Susa inguruan beste kuadrilla bat ezagutu nuen, ni baino idazle zaharragoek osatua.

Garai horretan osatu genuen, Urruzuno lehiaketaren bidez elkar ezagutu genuen idazle batzuek, besteak beste, Lubaki Banda. Pott, gure itsasargia, banda bat izan bazen, gu ez ginen gutxiago izango eta geuk ere banda izan behar genuen, *comme il faut*. Lubaki izena jarri genion bandari, eta batzuek interpretatu zuten oso belikosoak zela, baina berez gu ez ginen batere belikosoak. Izena gustatzen zitzaigun fonetikoki, *lubakibanda*, bazeukalako halako afro kutsu bat. Gogoratzen naiz Bernardo Atxagak afari batean esan zigula: «Nolatan jarri diozue izen hori taldeari? Izan ere, nola nabaritzen zaizuen gaur egungo gazteei ez duzuela soldaduska egin». Ez genion hainbeste buelta eman, egia esan.

Egia da gu, Lubaki Banda, oso banda pijoa ginela. Lehen aipatu ditudan fanzine horien antipodetan geunden gure aldizkaria egin genuenean. Susak bere azpiegitura guztia utzi zigun. Beraiek jada ateratzen zuten aldizkaria, eta dena gure esku utzi zuten, inprenta, aurrekontua... guztia. Gorka Arrese editoreak esan zigun: «Bahitu gaitzazue. Jada ez dakigu zer egin gure aldizkariarekin, eta bahitu gaitzazue!». Baina bahitu genituen eskatu zigutelako. Horrela, lan mekanikoa, banaketaren lana, fanzine bati hainbeste kostatzen zitzaiona, guk eginda geneukan. Horregatik diot nahiko banda pijoa izan ginela zentzu horretan.

Itxaro Bordaren bitartez, Arantxa Hirigoien ezagutu genuen. Gainerako gehienak gipuzkoarrak ginen. Orduan, esan genuen: «Nola da posible? Ez dugu inor ezagutzen Nafarroan? Ez dugu inor ezagutzen Bizkaian?». Orduan, lehendik elkar ezagutzen genuen idazleoi beste batzuk gehitu zitzaizkigun. Batzuek oraindik ere idazten segitzen dute eta beste batzuek ez. Gehienek jarraitzen dute literaturaren munduan edo komunikazioaren munduan. Lehenbiziko alean parte hartu zuten idazleen zerrenda da hau [bere izena aipatu gabe]: Xabier Aldai, Garikoitz Berasaluze, Eluska Fernandez, Xabier Gantzarain, Josu Goikoetxea, Lierni Ibargutxi, Ibon Iribarren, Arantxa Hirigoien, Ander Izagirre, Saioa Muguruza, Manex Mujika, Mikel Reparaz eta Asier Serrano. Bakoitzak bere ibilbidea

izan du. Oso talde... ez nuke esango heterodoxoa, baina bai heterogeneoa. Horrek zerikusia dauka sortu zen moduarekin. Hamalau ginen, eta gure lema zen: «Lubaki Banda hamalau; gerturatu eta laul!». Ez ginen inoiz denak elkartzen, gure disparitate geografikoak horretarako zailtasunak sortzen zituelako: Gernika, Larresoro eta Arbizu artekoari «Bermudetako Triangelua» deitzen genion, eta beste guztiok horren erdian bizi ginen. Oso bizigarria zen. Garai hartan, garraioa ez zen gaur bezain erraza eta ez zegoen sare sozialik. Ondorioz, ez genuen harreman jarraiturik, gauza oinarritzko eta erridikulua bada ere, euskalki ezberdinetan mintzo zen jendearekin egotea bera asko zen jada guretzat. Horregatik, oso aberasgarria izan zen bakoitza bere erreferentziekin etortzea eta salda horretan (Itxarok lehen aipatu duen hitzarekin esanda), elkarrekin egotea hain jende ezberdina. Ondoren, logikoa zen bezala, bi urteren ondoren edo, bakoitzak bere bidea hartu zuen.

---

**Harkaitz Cano: “Radarraren azpiko espirituaren parte bat mantendu behar du idazle batek. Bestela galtzen du xarmaren parte bat”**

---

Baina, esan bezala, azpiegitura bat bageneukan geure eskuetan jarria, eta guk benetan geure kasa, auto-produzituta, egin genuen gauza bakarra hau izan zen [Lubaki Bandaren maketa erakusten du]: maketa bat. Orain berriro oso *trendy* dago hau, nonbait, kaseteak erabiltzea. 1994ko urrian eta azaroan grabatu genuen, Altxerri taberna oraintxe itxi berrian. Hemen gure poemak eta kantuak bildu genituen. Carrefour batera joan, 300 edo 400 zinta erosi, kaseteak, eta bakoitzak bere etxean hogueina kopia atera zituen. Pletina bikoitza, puntako teknologia... Hor bai deskubritu nuela gaur egun ere gustatzen zaidan gauza bat, eta da argialetxe estandarretatik aparte idazleok noiz edo noiz egin beharko genukeen ariketa, edo niri egitea gustatzen zaidana, behintzat; estandar horietatik kanpoko ahalegintxo bat egitea, kapritxo bat, zailtasun horietara bueltatzea. Esatea: «Nik banatuko dut, nik egingo dut, nik ordainduko dut nire patrikatik, ez dut laguntzarik eskatuko, eta gero egingo ditut 50 ale banatzeko, oparitzeko, saltzeko...». Eta zergatik hori? Radarraren azpiko espirituaren parte bat mantendu behar duelako idazle batek. Bestela galtzen duelako xarmaren parte bat.

Askotan argialetxeak kritikatzin ditugu, esanez ez dutela promozioa egin edo ez dutela ez dakit zer egin... Baina zu zerori hasten zarenean prozesuko pauso guztiak ematen, inprentara joaten, papera aukeratzen,

zure erratak zuzentzen, banatu ondoren liburu-dendara joan eta saldu diren edo ez galdetzen... Prozesu guztia ezagutzeak ematen dizu zure lanbidearekiko ikuspegi ezberdin bat, ezagutzea inportantea dena. Hori da fanzineak egiten ziren garaian, grapak banan-banan fotokopiatutako orri ziztrinetan jartzen zenituenean, ikasten zenuena.

JUAN LUIS ZABALA

Ez duzu hitz egin nik esan dudana. Genero periferikoez.

HARKAITZ CANO

Bueno, komikiaz hitz egin dut. Komikiak badu gaur egun rango, prestigio edo pedigree bat, baina 90eko hamarkadan komikia ez zuen inork aintzakotzat hartzen. *Napartheid* literatura izan zitekeela esatea dispartetzat jotzen zen. Gaur egun, hori aldatzen hasita dago.

Kontua da gu idazten hasi ginenean kazetaritzaren beharrak aseta zeudela. Ez gara konturatzen gure lanbideak ez daukala hainbesteko loturarik bokaziozko hautu baten garapen arrazionalarekin; eta bai zeure inguruak eskatzen duenarekin. Horrela, zure inguruak zure gaitasunak bideratzen ditu, modu batzuetan inkontzientean, leku batera edo beste batera, egitura batera edo beste batera, are lanbide batera edo beste batera. 1980ko hamarkadan kazetari premia handia zegoen, ETB eta Euskadi Irratia sortzen ari ziren, besteak beste, eta kazetaritzak idazteko bokazioa zeukan jende asko zurrupatu zuen. Gu iritsi ginenean, hori dena beteta zegoen, lubakiaren parte hori, infanteria lerro hori, osatuta zegoen. Beraz, gu erretagoardia batean geunden eta aukera izan genuen, edo pribilegioa, arreta handiagoa jartzeko idazketa literarioago bati, edo idazle-bizitza bati begira. Eredu gutxi batzuk bazeuden eta idazleen profesionalizazioaz hitz egiten zen... Hori posible zela ikusi genuen zirrikitu batetik. Horregatik, gure mugimenduak beste batzuk izan ziren. Eta horren ondorioa da zuk [Juan Luis Zabalarari zuzentzen zaio] esan duzuna, literaturari periferikoak zaizkion genero guztiak, edo asko, landu beharra, profesionalizazio horren truke edo.

JUAN LUIS ZABALA

Ez dut esan hasieran, baina esan beharra dago: zentroaz eta periferiaz ari gara hitz egiten, baina denok gara periferia bat, hau da, euskal literatura berez da periferikoa, eta hori ikusten dugu buelta bat eman Donostiatik, adibidez, gaur bertan gaudenez, eta liburu-dendetako era-

kusleihoak ikusita, telebista piztuta edo taberna batera sartu eta musika entzunda. Periferikoak gara berez, eta, alde horretatik, periferikoa da dudarik gabe Beñat Sarasola ere idazle moduan, eta horretaz aparte hasi berritan periferia horren barruan periferikoa izan beharra izan du derri-gorrez, ia idazle guztiek bezala. Eta badu beste lotura argi bat ere perife-riarekin: literatura aldizkari batzuei eta haien inguruko mugimenduei buruz egin eta argitaratu dituen ikerlanak. Zurea da hitza, Beñat.

## BEÑAT SARASOLA

Eskerrik asko aurkezpenagatik eta gonbitagatik.

Horrelako gaietan, eta zehazki gai honekin ere, pixka bat eskizofreni-ko ibiltzen naiz, zeren alde batetik idazle moduan eta, bestetik, ikerlari moduan, askotan nahastu egiten dira gauzak. Baina inpresioa daukat nire ikuspegia gehiago dela idazlearena ikertzailearena baino. Ikertu ditut ga-rai bateko aldizkariak, *Ustela*, *Pott* eta *Oh! Euzkadi*, baina horrek zerikusia du nire interes literarioekin ere, eta azalduko dut hori.

Nire hastapenei buruz hitz egiterakoan eta aldizkariekin nuen harre-manaz eta abar, orain Harkaitzi entzuten ari nintzaiola eta aurretik Itxa-rori, hor aldea dugu. Harkaitz eta bion artean bederatzia urteko aldea baino ez dugu, baina uste dut sekulako diferentzia dagoela kontu batekin: Internetekin. Ni idazten hasi nintzenean nire erreferenteak, esan deza-gun aldizkaritzat jo zitezkeen erreferenteak, batez ere momentu horre-tan produzitzen ari zirenak, Internetekoak ziren, eta hor aipatu daiteke, nire kasuan bereziki, *Volgako Batelariak* blogaren garrantzia. Ni idazten hasi nintzenean bazegoen beste aldizkari bat, ez zena bakarrik literarioa, kulturalagoa-edo zena, *Eremulauak* izenekoa. Hor bazegoen atal bat litera-turarena, eta hor hasi nintzen ni idazten lehenengo gauzak.

---

**Beñat Sarasola: “Ni idazten hasi nintzenean nire erreferenteak, esan dezagun aldizkaritzat jo zitezkeen erreferenteak Internetekoak ziren”**

---

Internet aipatzen dut, zeren uste dut Internetetik aurrera gauzak aldatu direla neurri handi batean, eta baita Interneten barruan ere aro ezberdinak daudela: blogen aroa da bat, eta gero, lehen ere iradoki da, sare sozialen aroa, beste bat.

Nire hastapen horietan, niretzat oso garrantzitsua da, eta hori go-goan dut, zu idazten hasten zarenean, nire kasuan hamasei edo hamazaz-

pi urterekin, bizi duzun bakardade, isolamendu absolutua! Orain ere esaten dugu, gazteek ez dutela irakurtzen, eta ez dutela idazten, baina benetan hasten bazara pentsatzen zu hamasei edo hamazazpi urterekin idazten hasi zinenean, nire kasuan eta nik uste idazle gehienek kasuan, bizi duzu askotan modu ia ezkutukoan. Nik gogoratzen dut nire lehenengo liburua argitaratzear zegoela, Susa argitaletxearekin, gurasoei esan nirean harrিতa geratu zirela. Ez zekiten idazten nuenik ere! Uste dut idazle askoren kasua hori dela, hau da, ez dago oso ondo ikusia hamasei, hamazazpi urterekin, nire kasuan behintzat gizonezkoa izanda, idaztea; gehiago estimatzen da kirola... Horretan ere aritzen nintzen, e? Periferikoegia ez naiz, alde horretarik [barreak], baina horrek, kirolak, askoz pisu handiagoa izan ohi du hamasei, hamazazpi urterekin, idazteak baino.

Orduan, hastapenetan, nik gogoratzen dudana da bakardade eta isolamendu absolutua, harik eta unibertsitateko ikasketetako bigarren edo hirugarren urtean nire lagun baten bidez Gorka Bereziartua ezagutu nuen arte. Orduan Kazetaritza Fakultatean kazetaritza ikasten ari zen, eta sortu berria zuten *Eremulauak* izeneko webgune hori. Literaturaz idatziko zuen norbaiten bila ari ziren inguruan, eta horrela hasi nintzen ni idazten, baina Interneten eta modu oso isolatuan oraindik ere, zeren idazten zenuen, e-maila bidaltzen zenion Gorkari, horiek publikatzen zuten, eta ez geneukan, nire kasuan behintzat, talde beharrik ere, produzitzeko modua ere askoz indibidualagoa zelako, konparatuta aldizkari batek duenarekin. Izan ere, sortzen baduzu horrelako aldizkari bat, papezkoa, erabaki behar dituzu, eta landu, inprenta, maketazioa eta abar, eta horrek ematen du talderako joera bat. Nik ere ikuspegi hori izan dut, lehen aipatu dira modernitatearen keria batzuk, baina nik ere bizi izan dut idazletza oso gauza indibidual moduan. Eta uste dut aldarrikatu behar dela kontrakoa, hau da, taldearen eta komunitatearen garrantzia.

Lehen aipatu da azken urteetan zer gertatzen ari den, eta hor adibide moduan feminismoarena agertu da, azken urteetan nolako saltoa egin duen argitalpenetan, baina hori ez da kasualitatea, azkenean da komunitate bat sortzea, eta komunitate bat sortzeak dinamika batzuk eragiten ditu, berez, produzitzeko eta argitaratzeko bidea sortzeko. Hori niretzat ezinbestekoa da, eta uste dut azken urteetan literaturari dagokionez galdu egin den zerbait dela.

Gogoratzen dut hasiera horietan *Eremulauak*, alde batetik, eta, bestetik, Fotolog izeneko zegoela, eta hor hasi nintzen. Fotolog Instagram modukoa zen, eta garai batean izan zuen bere sona, baina gerora galdu



egin zen. Nik Fotologen argazkiak jartzen nituen eta gero poemak argitaratzen euskaraz, baina oso modu ez anonimoan, sinatu egiten nuelako, baina bai isolatuan. Nire bi lehenengo argitalpen bideak izan ziren horiek, *Eremulauak* eta *Fotolog*, biak Internetekoak.

Nik uste dut hor badagoela ezberdintasun bat: nik ez nuen eduki horrelako «talde» zerarik, eta esango nuke, salbuespen batzuk kenduta, nire adinaren bueltan eta gazteagoen artean gutxiago dagoela taldearen zera hori. Taldeak baditu keria batzuk, baina uste dut beste alderdi on batzuk ere badituela, eta ez dela kasualitatea, adibidez, nire belaunaldian ez sortu izana egitura finkorik produzitzeko, ez ja argialetxerik, baina nik zer dakit bada, plataforma kritikorik, aldizkaririk... Sortu dira batzuk, baina egitura iraunkorrik nire belaunaldiak ez du sortu, eta horrek zer pentsatua eman beharko liguke.

Horrekin lotuta, Internetekin, ni idazten hasi nintzenean deskubritu nuen halako batean Susa argialetxearen Armiarma webguneko Ibiñaga-beitia proiektua. Hor digitalizatu zituzten lehen aipatu diren aldizkari horiek denak, eta horrek sarbidea eman zidan garai bateko aldizkarietako testuak irakurtzeko, oso modu deskontestualizatuan, baina baita inbidia puntu batez ere, zeren, lehen esan dizuedan bezala, nire bizipena literaturaren hastapenetan oso indibiduala zen eta hor ikusten nituen taldeak, bandak, oso modu idealizatuan. Baina hasten zarenean hori duzu, eta nik uste dut hori ere garrantzitsua izan zela, nire kasuan behintzat, aldizkari horien berri izatea eta horren bidetik-edo gauzak egin nahi izatea.

## JUAN LUIS ZABALA

Ikuspegi orokorrago batetik galdetuko nizueke, hiruroi, erdigunea eta periferia entzunda eta gaur egungo egoera ikusita, ba ote dagoen euskal literaturan erdigunerik eta periferiarik, non ikusten dituzuen horiek, zer harreman dagoen horien artean. Zuk, Itxaro, esan duzu Iparraldeak periferia izaten segitzen duela...

## ITXARO BORDA

Bai, Iparraldean bertan ere badugu periferia eta badugu zentralitatea. Hirigune etengabe hori, Baiona eta Hendaia artean Uztaritzearaino, Uztaritze eta Ezpeleta, eta gero badugu periferia desertu hori, Baxenabarre eta Zuberoa. Bistan da badirela periferiak. Orain bizkaitarrak ez dira hain periferia, zeren eta garai batean, oroitzen naiz 80ko hamarkadan, entzuten nituen Andolin Eguzkitza zena, goian bego, eta adiskide horiek,

esanaz beti ez zirela kontsideratuak behar ziren neurrian zentralitatearen partetik, Euskal Telebistan ez zela bizkaierarik entzuten, eta bazituzten horrelako kezka batzuk. Geroztik dena konpondua da, entzuten ditugu pilotariak bizkaieraz hitz egiten arazorik gabe eta gogotik. Horrekin errateko, beti badela dikotomia hori, bada, bilatzen dugun dikotomia bat da.

---

### **Itxaro Borda: “Iparraldean bertan ere badugu periferia eta badugu zentralitatea”**

---

Azken finean, euskaraz idazten dugularik ezin dugu talde gisa funtzionatu, baina halako zurrumbilo bakar batean gara, bakoitza bere nortasunarekin sartzan gara taldeetan geure nortasuna atxikiz. Izan dadin Donostiako idazle batek edo Nafarroakoak edo Iparraldekoak, oraindik ere badu bere nortasuna alde horretarik, eta hori biziki inportantea da.

Gero, lan egiteko moduak aldatu dira arras. Ikusten dugu Hegoaldean orokorki periferian eta zentralitatean badela halako nahikunde bat idazleak profesionalizatzeko, eta, beraz, idazleak gauza asko egiten ditu idazteaz aparte bizibidea segurtatzeko, eta horretarik ere doa, beharbada, gaztelararat itzultze olde hori ere, gaztelararat edo katalanerat edo... Behar da pentsatu gaurko mendeko idazleak ez direla aurreko mendeko idazleak, hau da, denbora haietan musu-truk ari ginen, lanetik kanpoko denbora libre horretan *Maiatz* egiten genuen; orain gutxiago, baina egiten genuen idaztetik saltzerat, dena egiten genuen: maketak, zuzenketak... Egia da esperientzia horiek oro biziki inportanteak direla idazlearen, argitaletxearen edo irakurleen lekuari halako begirune batekin behatzeko.

Idazleak izan gaitetzke exigenteak biziki, zeren eta maite dugu egiten duguna, hori da gure zentralitatea, eta ez dugu beti konprenitzen ingurukoek ez gaituztela guk maite dugun bezainbat kontsideratzen. Beraz, hortik sortzen ahal dira hainbat minberagune, minberagune zentralak! Aldaketa handia hori dela erran nezake nik.

Gauza bat ere nahi nuke aipatu *Maiatz* aldizkariari buruz. Hainbat urtez, eta nahi duenak aurkitzen ahal ditu Armiarma gune horretan lehen zenbakiak, *Maiatzen* luzaz funtzionatu du idazle kolektibo heterogeneoak. Adin guzietakoak, belaunaldi guzietakoak, joera guzietakoak biltzen ginen, baina azken hogeit hamar urte hauetan Iparraldean atera diren

idazle berriak ez dira *Maiatzetik* pasatu. Katixa Dolhare-Zaldunbide, Bea Salaberri... Belaunaldi berri hori ez da *Maiatzetik* pasatu, baina bai Xan Idiart, Amaiur Epher... Galdu du idazle hasiberri horiendako laborategi izateko bere funtsa, neurri batean.

Hegoaldean ere badira hainbat idazle publikatzen ahal ez dutenak hemen, izenik ez dutelako edo sarerik ez dutelako, zeren eta batzuetan bada idazlearentzat sarearen garrantzia ere, zure harremanak nondik nora doazen, ez da bakarrik kalitatearena, kalitatea ere bai, baina sarea ere, zoin diren zure adiskideak eta... Badira Hegoaldeko batzuk *Maiatzen* publikatzen dutenak: Aritz Mutiozabal, Ainara Maia, adibidez. Bada joko hori, pixka bat guk ere gure funtsa zabaldu dugu, zabaldu dugu Euskal Herri planetariorat, txikia izanik edo periferikoa izanagatik bere mailan beste kultura handier buruz.

*Maiatzen* inguruko lana ere aldatu da. Orain Luzien Etxezaharretak egiten du maketa ordenagailuz, zuzenketak egiten ditugu bizpahiru pertsonaren artean eta gero inprentako lana berehala egiten da; ez dugu gehiago eskurik sartzen prozesu horretan. Gu ere, nahiz eta ez garen horretarik bizi (ni ez naiz sekula literaturatik bizi izan ekonomikoki, afektiboki eta intelektualki bai), bistan dena, hala ere, gure mailan profesionalizatu da testuen publikatzeko modu hori; ez diru mailan, baina egikera mailan hori aldaketa handia izan da.

Bestalde, ikusten dut badela literatura ofiziala, euskaraz, prentsan ateratzen dena, *Berria* eta egunkarietan ateratzen dena, elkarrizketak, erreportajeak, lehen orrialdeetako argazkiak eta, baina badela beti behekorronte bat, baitezpada ikusten ez dena. Bai Iparraldean, hor ere Internet bidez pasatzen dira gehienetan, eta berriz itzuli dira batzuk fanzineak egiterat. Hori ere inportantea izan da, 80ko hamarkadan bezala, horrelako libreta modukoak... Aldizkari horietarat itzuli dira. Gertatzen zait, batzuetan ibiltzen naizelarik Euskal Herrian irakurle taldeetan edo batzuetan klaseetan, harremanetan jartzea idazlegai batzuekin, eta azkenaldian ukan dut berri bat: Behe Banda sortu da, eta Urruzunoko ikasleak dira. Urruzuno izan da halako tupina bat, orain ezagutzen ditugun hainbat eta hainbat idazleren mamitzeko, irazekitzeko intelektualki. Atera du lehen zenbakia Behe Bandak. Behe Banda, zergatik? Finitu da nazio gatazkarena, hori gauditua da, genero gatazka ari da gaintitzen orokorrean, asko aipatzen baita, plazan dago, eta horiek nahi dutena da klase sozial gatazka, zuek erraten duzuen bezala *asignatura pendiente* baita. Ez gara konturatzen euskaraz funtzionatzen duen jendartearen zein neurritan

raino klase ertainekoa den. Uste dugu denok behe-mailako jendeak garelako gure hizkuntza behe-mailakoa delakoan, baina ez da baitezpada beti horri lotua.

Behe Banda hori Irati Oskoz-ek du kudeatzen. Idazle gazte bat da, bikaina, bipila, energiak beteak eta... Gu ginen bezala, e? Hemezortzi urteetan, dena nahi genuen uzkailei. Gauza batzuk uzkailei ditugu, hala ere: aldaketarako bideak egin ditugu, argitaletxe batzuk sortu ditugu gure belaunaldian eta besteetan ere, baina bada oraino prentsaren lehen orrialdetarat atera ez den mugimendurik Euskal Herrian eta literaturaren inguruan. Eta askotan horrela da, lehenik gauzak egiten dira kozinan eta gero ematen dira jatorrietatik dastatzerat. Nik biziki maite dut, mugimendu horrek horrela segitzen duelako, ideia hori oraino bizi delako.

---

**Beñat Sarasola: “Komunitate bat sortzeak dinamika batzuk eragiten ditu eta uste dut azken urteetan literaturari dagokionez galdu egin den zerbait dela”**

---

JUAN LUIS ZABALA

Gaur egun argitaletxeek, lehen ez bezala, jatorrizko lan asko jasotzen dituzte eta ezin diete erauntsi horri erantzun, idazle asko daudelako. Eta argitaletxeak sendotu dira, baina ez hainbeste. Zer iritzi duzue zuek?

BEÑAT SARASOLA

Itxarok aipatu duen horrekin lotuta, oker ez banaiz talde hori ikusi nuen azkenengo Durangoko Azokan, Susaren standean laguntzen ari nintzela. Halako batean horrelako afixa moduko batzuk agertu ziren standean, eta uste dut Itxarok aipatu duenaren moduko argitalpen bat iragartzeko zutela. Orduan jakin nuen bazegoela talde bat berriro ere Urruzunoren bueltan egituratua, eta asmoa zuena talde moduan gauzak egiteko. Askok poztu nintzen, uste dudalako orain, digitalizazioaz hitz egiten dugunean, eta *online*aren problemei buruz eta abar, literaturan ere egon daitekeela momentu bat, datozen urteetan, *offline*aren aldekoagoa, eta agian hori izan liteke lehenengo zantzu bat. Horregatik, ikusi nituen benetan paperezko afixa batzuk, pozgarria egin zitzaizkidan. Ez da bakarrik gauza erromantikoa hori, paperaren garrantzia, hori ere bai, egia da, baina lehen esan dudana, horrek eragiten dituen talde dinamika horiek niretzat oso-oso garrantzitsuak dira, eta hortik berreskuratzen bada uste dut interesgarria izan daitekeela.

Argitaletxeekin konparatuta, zentroa eta periferia, gertatzen da gaur egungo argitaletxe nagusiak 80ko edo 90eko hamarkadetan egituratu zirela, eta ondorengo idazle gehienok sarbidea izan dugu batean edo bestean argitaratzen hasteko; bestela, sariketen aukera ere badago, eta nolabait karrila-edo nahiko eginda dago, alde batetik. Bestetik, adibidez, azkeneko urteetan argitaletxeetan gertatu den editore aldaketa nik uste azken urteetan egon den elementu garrantzitsuenetako bat dela, bai Susan, orain Pamielan, Ereinen, Txalapartan... aldaketa egon da editoreetan, baina dagoeneko existitzen diren egituretan da, eta gutxi gorabehera nire belaunaldiko editoreak sartzen ari dira. Interesgarria izan daiteke ikustea egitura berriak sortuko diren datozen urteetan, eta nik uste dut hor badagoela tarte bat. Orduan, zentroaz hitz egiten dugunean hori ere bada, jada egituratuta dagoen argitalpen makineria bat, hoguei, hogeita hamar urte dituen eta orain barruan aldaketak izaten ari dena, baina bere mugekin.

Zentroaz ari garenean ere, nik hor ikusten dut Hegoalde eta Iparralde kontu horretaz aparte badagoela, alde batetik, esan dezagun erdigune instituzional moduko bat: Eusko Jaurlaritza, lehen aipatu diren Euskadi sariak, unibertsitatea ere bai, unibertsitateak duen pisua, eta gainera, lehen aipatu da lanbidearen kontua eta idazle batzuen bidea ere hori izan da, irakaskuntzaren bidetik profesionalizazio moduko bat eta hortik kanpo idaztearena. EITB ere hor dago eta abar. Gero badago esan dezagun beste erdigune bat, eta uste dut Itxarok ere aipatu duela zeharka, euskalgintzaren erdigunea esan dezakeguna da, eta euskalgintzarekin loturiko egitura: *Berría*, *Elkar*... Batez ere *Elkar* aipatuko nuke eta *Elkarren* bueltan sortutako dinamika guztia. Badakigu *Elkarren* pisua izugarria dela liburuaren katearen elementu guztietan. Nik uste dut horretaz ere gutxitan esaten dugula ezer, baina erdiguneaz hitz egiten dugunean hori ere bada erdigune bat eta horretaz ere igual autokritikoagoak izan beharko genukeela, hau da, erdigunea ez dela soilik Euskadi saria, beste erdigune batzuk ere badaudela.

JUAN LUIS ZABALA

Euskal *stablishmentaren* triangelua aipatu zuen behin Iban Zalduak, Donostia, Andoain eta Zarautz artekoa (orain Donostiaren lekuan Aduna legoke, triangelua desitxuratuz): *Elkar*, *Berría* eta *Susa*. Ez dakit hori bat datorren esaten ari zarenarekin...

## BEÑAT SARASOLA

Ez dakit *stablishmenta* den hitza, baina euskalgintzaz hitz egiten dudanean, uste dut hortik ere pixka bat badagoela, lehen Itxarok esan duena. Nik *Berrian* argitaratzen dut, baina *Berrian* idazten dugunok, zeintzuk idazten dugun... Bueno, hori guztia ere hor dago. Lehen sariak aipatu ditugu, eta gaur egun bekak eta sariak jasotako liburuen ehuneko handi bat Elkarren argitaratzen da. Horretaz ere igual hitz egin beharko genuke, baina askotan zentroaz eta periferiaz modu abstraktu samarrean hitz egiten dugu. Eta unibertsitateaz ere bai, hitz egin beharko litzateke, lehen zerbait aipatu da horretaz. Hau da, unibertsitateak duen sarbidea Euskadi sarietan, Euskaltzaindian, akademia-argitalpenetan eta abarretan, eta sarbide horiek botere-joko hutsetan zertuak daudela, literatura bigarren, hirugarren edo laugarren mailan utzita.

---

### **Beñat Sarasola: “Argitaletxeetan gertatu den editore aldaketa nik uste azken urteetan egon den elementu garrantzitsuenetako bat dela”**

---

## HARKAITZ CANO

Niri iruditzen zait zentroaz hitz egiten dugunean, gure zentroa edo zentralitatea elastikoa dela, hau da, egun batean egon zaitezke Orkestra Sinfonikoarekin poema bat irakurtzen eta hurrengo astean Andoaingo gaztetxean. Hori anomalia xarmagarri bat da, gure literaturan gertatzen dena eta inguruko literatura hegemonikoetan gertatzen ez dena, eta nik pertsonalki maite dudana eta ez daukadana saltzeko.

Egia da klase ertain akomodatuxe baten baitan egon gaitzkeela eta batzuetan ez garelako kontziente gure barne-borroka horren azpian dagoen errealitate soziologiko batez, eta asko pozten naiz norbaitek hori plazaren erdira ekarri izanaz, baina bestalde, badago zerbait oso malgua eta barregarria gure zentralitatean. Funtsean, zertaz ari gara zentralitateari buruz ari garenean? Hau da, badago falazia aspirazional faltsu bat deitu beharko geniokeena, gure zentro irrikatua Madril ez ote den, edo gaztelaniaz arrakasta izatea ez ote den. Hori euskal idazle askoren kasuan ere, esan nahi dut. Orduan, aitortuko dugu hau? Aterako dugu hau ere plazara?

Zeren benetan, niretzat, idazle moduan, zintzoki ari naiz, Euskadi saria irabaztea baino askoz ere arrakasta handiagoa da ikustea nire liburu

bat hamabost edo hogeit hamar literatur tertuliatan landuko dutela. Niretzako hori bada parametro inportantea, gure baitako erdigune endogamiko, elastiko honen deskribapena zehazte aldera. Esatea: «A, begira!, honen liburuak hogeita hamar tertulia daramatza eta nireak zergatik ez?». Hori da! Eta, jakina, delako arrakasta edo zentralitate hori oso malgua da. Zure liburu batek funtzionatzeak edo ez funtzionatzeak ez du esan nahi hobeia edo okerragoa denik, baina beharbada bai esan nahi du nobela bat dela, eta ez poema liburu bat; izan ere, poema liburuekin hogeita bost tertuliatan egotea zientzia fikzio totala da. Hor aldagai asko daude... Gu gaude setatuta sariekin eta ez dakit zerekin, baina beste hainbat aldagai ez ditugu aintzakotzat hartzen, edo are gutxiago aztertzen akademikoki. Horiek ere aintzakotzat hartu beharrekoak direla uste dut.

Ulertzen dut triangelu horren aipamena, baina triangelu hori da las-tozko triangelu bat, zeren etortzen da, ez Katrina urakana, hala moduzko alerta hori bat besterik ez, eta dena pikutara doa. Orduan, horretaz kontziente izatea ere inportantea da, hau da, gure eskala zenbateraino den ttiki mundu global horretan. Gauza bat da zentroa, eta beste gauza bat da idazlearen sistema nerbioso zentrala, munduaren ardatza dela iruditzen zaiguna. Baina gero beste gauza inportante bat da zure errealitatearen eskalaren kontzientzia edukitzea, eta zenbateraino dena den oso hauskorra eta dena dagoen izen-abizenak dauzkaten hogeita hamar, berrogei edo berrogeita hamar pertsonaren esku, edo askotan beraien borondatearen edo jubilazio adinaren menpe. Eta bi edo hiru pertsona kazetaritatzatik desagertzen dira, edo jubilatzen dira, bi edo hiru pertsona jubilatzen dira unibertsitatetik, edo aldatzen dira hiru editore eta dena aldatu da. Ez dut esango onerako edo txarrerako, baina iraultza txikiak gertatzen dira. Eta batzuetan da hekatonbe bat eta beste batzuetan itsasargi argitsu bat. Baina hor mugitzen gara. Gure eremua ttipia da, eta *road movierik* ezin da egin hemen, mapatik ateratzen zarelako berehala. Bueno, Itxarok bai, egiten ditu, baina maparen zirrikitu guztiak probestuz ertz batetik bestera!

## ITXARO BORDA

Arrazoa duzu. Malgutasuna behar dugu, malgutasuna eskatzen zaigu. Batzuetan lehen orrialdeetan gara eta beste batzuetan horoskopoparen atzetik etortzen dira gure liburuaren aipamenak edo egiten ditugun gauzen aipamenak.

Idaztea dugu idazleok zentralitatea, baina ongi erran den bezala, beste hainbat gauzatan ere ibiltzen gara, idaztearekin lotuak direnak beti, baina ez direnak literatura. Dena da literatura, literaturaren zentralitatea ukaezina da, baina bideak ez dira beti berak. Eman dezagun: momentu honetan ni pastoral batekin ari naiz, Bastidan, eta hori ere beste esperientzia bat da. Bastida xarnego-herrietan da, periferiaren periferiako beste Euskal Herri berezi batean; hizkuntza aniztasuna oraindik bizi duen eskualde batean: gaskoia, frantsesa, euskara... denak nahas dira hartan. Bi hizkuntza ahulenak ari dira behera egiten, baina hala ere oraindik hitz egiten dira besteak ere. Pixka bat Oionen bezala. Mursegok egin du disko bat Oioneko jendearekin. Hark ere deszentralizatu du bere ekina Eibarretik. Pastoralarekin hori bizitzen ari naiz. Euskal kulturarekin lotura handirik ez duten jendeak biltzen dira. Batzuek euskara badakite, beste batzuek gaskoia, beste batzuek ez dakite ez bat eta ez bestea, baina dena ikasiko dute datorren ekainaren 15 eta 16rako. Erran nahi dut kultura hori ere dela idazleontzat; multiplikatzen ditugu hainbat eta hainbat gauza, joera, ez direnak baitezpada literaturari zuzenki lotuak.

Eta alde horretarik, beharbada, media zentraletan ez dira aipatzen horiek. Eta nik uste dut justuki aipatzen ez diren gune horietan sortzen direla loturak beste kulturekin. Zeren eta bestela nola aipatuko du euskal idazle batek frantsesa molde baikor batean? Eni tokatzen zait erratea: «Frantsesa... Sei urte nituelarik zanpatu ninduten, behartu ninduten euskara galtzera, eta min horrekin euskal idazle izatera behartua naiz». Hori ere frogatzen da ez dela hainbat egia ere. Min hori gainditua dugula aspaldian, eta beste bide batzuetarik ibiltzen garela, eta beste bide horietan ditugula justuki guk Frantzia gurutzatzen bretoiak, korsikarrak, okzitaniarrak, alsaziarrak... jende horiekin gune are periferikoago horietan biltzen gara. Eta erran behar da gauza bat, bretoiekin edo korsikarrekin edo okzitaniarrekin biltzen garenean, horiek oraino gu baino periferikoagoak direla beren eskualdeetan. Eta horregatik eni iruditzen zait, ene kasuan bederen, negar egitea tokatzen zaigula, baina negar egitea ez zaigula hain zilegi ere. Zeren eta euskaraz badugu harreman sare bat, egiten ahal ditugu mila gauza; ehun gauza egiten ahal ditugu euskararekin kultur mailan, kolaboratzen ahal dugu hainbat mediorekin. Baina behar dira ikusi okzitaniarrak. Eta harreman horiek egiten ditugu justuki euskal zurrumbilo zentral horretarik kanpo.

Eta beharbada, aipatzen duzu zuk [Harkaitz Canori zuzentzen zaio] azken hamarkada honetan euskal idazleak ari direla Espainiara begira. Batetik da ekonomikoki, bizi behar delako, baina beharbada bilatzen dute



Euskal Herritik deszentralizatzea ere; batzuetan eztabaida horiek akigarririk eta suntsigarriak dira. Horietatik ateratzeko modu bat.

HARKAITZ CANO

Baina Espainia ez da modu ona deszentralizatzeko, ezta? Arlo horretan, esan nahi dut. Korsikara deszentralizatu zaitez orduan, ez dakit nola esan...

ITXARO BORDA

Ni Pariserat deszentralizatzen ari naiz. Eta ikusten dut Parisen ere sistema literarioa hamar pertsonak kudeatzen dutela, baina nire kasuan diren hainbat idazle badirela frantsesez idazten dutenak, eta hirurehun poema liburu baino saltzen ez dituztenak. Erran nahi dut ez dela gure egoera. Nahiz eta haien hizkuntza indartsua izan eta maioritarioa izan, idazle gisa nik bezala funtzionatzen dute, eta batzuetan nik xantza gehiago dut. Eta Espainian ere beharbada idazle batzuek harreman hori aurkitzen duzue. Zeren Espainian ere bada Espainia zentrala, baina jendea doalarik, Miren Agur Meabe ikusten dut, adibidez, Extremadurako herri batera bere liburua aurkeztera, ez du bilatuko Espainiaren, espainiartasunaren zentralitatea, beste zerbait bilatuko du. Eta maila bertsuan kasik... Ez dut defendatuko defenda ezina dena.

---

**Harkaitz Cano: “Gure zentroa edo zentralitatea elastikoa da. Hori anomalia xarmagarri bat da gure literaturan gertatzen dena eta inguruko literatura hegemonikoetan gertatzen ez dena”**

---

HARKAITZ CANO

Hor beharbada bi gauza daude: bat da Espainiako zentraltasuna eta beste gauza bat da Espainiako egikerak, moduak eta homologazio estandarrek gurera ekarri nahia. Musikara ekar dezagun. Benetan, zintzoki, zein hizkuntzatan komunikatzen da sare sozialetan? Arrakasta globalaren hizkuntza euskal artista mediatiko baten kasuan zein da? Zentralitateari buruz galdetzen badidazu, nik halabeharrez pentsatuko dut... ez derrigorrez Pott banda maite dugunon zentralitatearen ikuspuntutik, baizik eta euskal literaturarentzat, zentralitatea, komertzialki eta soziologikoki, Toti Martinez de Lezea dela, baita euskaraz ere, salmentetan

nagusitzen delako eta gaztetxo asko haren Nur pertsonaiaren liburuei esker zaletu delako literaturara.

Eta badago niretzat amorragarri xamarra den beste gauza bat: asko hitz egiten da idazlearen kolektibitateaz, hau eta beste, baina idazleoren lan kolektiboek sortzen duten interes akademiko zein mediatikoa hutsaren hurrengoa da. Hau da, badago indibidualismoaren aurpegi baten glorifikazio absolutua. Orduan, hor ere hipokrisia handia ikusten dut nik. Zer gertatzen da? Askoz ere konplexuagoa dela pastoral batean Itxarok egin duen lana ikertzea, kolektiboa delako, hasteko eta behin Iparraldera joan behar delako, ezagutu behar delako generoa (eta ez dugu ezagutzen). Eta beharbada ari garenean esaten periferian gertatzen direla gauzarik interesgarrienak (oso polita da hori esatea, beti esaten denean bezala kartzelan sortzen dela hizkuntza jergarik interesgarriena, gero hedatzen dena gizartera), ados, hori maila teoriko batean oso ongi dago, baina gero praktikan ez komunikabideek ez akademiak inoiz ez dute jartzen ahalegin minimorik horretan.

#### LEHEN ENTZULE PARTE-HARTZAILEA

Erabat ados. Lana delako, lan gehiago. Hori hala da. Nire lagun britainiar batek «idazlea naiz» esaten du leku guztietan. Ez du inoiz lerro bat publikatu, baina idazten du egunero. Hemen daukagun idazletza kontzeptuak ez du zerikusirik biziraupenarekin. Lagun hori ez da hortik bizi, baina idazten du egunero eta ez du inoiz ezer publikatu, eta idazlea da. Han oso arrunta da. Festa batera zoaz, editoreekin, eta denak dira nobelagileak. Amaieran, erreparatu behar duzu webgunea ikusteko ez duela ezer publikatu. Ezagutu ditzakezu hamabi nobelagile eta bik baino ez dute publikatu. Beste maila bat da.

#### JUAN LUIS ZABALA

Hemen ere, uste dut gero eta zailago izaten ari dela argitaratzea, edo gutxienez itxaron egin behar izaten dela argitaratu arte.

#### ITXARO BORDA

Argitaletxeetan, Maiatzen bertan, jasotzen dugu hainbat eta hainbat testu publikatzen ahal ez ditugunak.

## JUAN LUIS ZABALA

Gaztelaniazko argitaletxe gehienek webgunean daukate ohar bat adieraziz ez bidaltzeko eskuizkriburik, ez dituztelako irakurriko. Euskarazkoetan ez dago halakorik, baina normala da entzutea argitaletxeak urteko programa, eta agian hurrengo urtekoa ere, betea duela eta itxaron egin beharko dela, ezin jakin zenbat... Orduan idazleak beste argitaletxe batera bidaltzen du, edo autoedizioa egin, online sareratu Booktegiren bidez...

## LEHEN ENTZULE PARTE-HARTZAILEA

Hori ez zen lehenago ere gertatzen?

## HARKAITZ CANO

Nik uste guretzako askoz errazagoa zela lehen liburuak argitaratzea, orain egile gazte batentzat baino, duda izpirik gabe.

## LEHEN ENTZULE PARTE-HARTZAILEA

Eta zer bilatzen du euskal editore batek orain hemen? Hori da nire galdera, zeren zuek idazleak zarete... Zein da profila?

## ITXARO BORDA

Ziur aski dirua ez galtzea, hasteko. Eta bide horretatik, izen seguruak eta kalitatezko liburuak, neurri batean. Eta gero, hori ziurtatzen delarik, bi ezezagun ere publikatzen ahal dira izen seguru horien abaroen.

## JUAN LUIS ZABALA

Eta orain editore belaunaldi berria dago, eta aldaketa gertatzen ari da. Eta editoreak aldatu baino lehen ere, aldatu egin dira kanona edo joerak... Lehen kanonikoak ziren idazleen gainetik ezartzen dira orain, askotan, izen gutxiagoko idazle gazteagoenak.

## BEÑAT SARASOLA

Nik uste hor aldaketa nabarmena soziala izan dela, azken urteetan, lehen Ibonek [Ibon Egañaren hitzaldiari erreferentzia eginez] aipatu du: feminismoaren eragina izan da, onerako... gauza askotan, eta honetan ere bai. Eta argitaletxeetako aldaketa honetan ere editore berri gehienak emakumezkoak dira, eta feministak. Hor saiakera bat egiten ari dira al-

datzeko, baina, berez, aldatzen ari da aurretik ere. Agian perspektibarik ez daukagu oraindik, baina hemendik urte batzuetara nabarmena izango da zein ezberdina den idazle batzuen presentzia... Hemendik urte batzuetara, lehengo kanona nahiko aldatuta egongo da, seguru errotik ezberdina dela. Eta prozesu horretan nire ustez feminismoak izugarritzko eragina izan du, eta hori dena permeatzen ari da, baita egiturak ere. Nik uste dut argialetxeetan askoz ere pisu handiagoa duela horrek Madril-edo-ez-Madril eta horrelako kontuek baino. Hor ikusten dut nik azken urteetako transformazio handia.

---

**Beñat Sarasola: “Hemendik urte batzuetara, lehengo kanona nahiko aldatuta egongo da eta prozesu horretan nire ustez feminismoak izugarritzko eragina izan du”**

---

Bestetik, eta aurrekoarekin erabat aparte, idazten hasi nintzenean, 2000ko hamarkadaren hasieran, gatazka politikoaren gordinean, niretzat literatura sekulako ihesbidea zen. Politikak (maiuskulazko politikak) zeukan indar eta pisu nagusia garai hartan, eta literatura zen ihesbide bat. Neurri batean, gaur egun ere batzuetan iruditzen zait politikak duen indarra, medioetan eta abarretan, izugarritzkoa dela. Lehen ere aipatu da, diskurtso literarioa garatzeko gabeziak ikusten ditut gaur egun, ez dagoela ia espaziorik diskurtso literarioak lantzeko. Ibonek egin duen errepa-soan ere nahiko argi ikusten dela uste dut: garai bateko aldizkari plata-formetatik gaur egunera nik uste literaturak espazioa galdu duela. Eta ziur aski baita prestigioa ere.

#### LEHEN ENTZULE PARTE-HARTZAILEA

Ez da hori ere falazia bat? Munduko editorial handietan XX. mendean 70etatik aurrera editore nagusiak emakumezkoak izan dira. Boterea eduki dutenak. Handiez ari naiz: Random House eta Alemaniakoak... izan dira batez ere emakumeak. Agente literario potenteenetakoa Espainian emakumea da.

#### BEÑAT SARASOLA

Baina ni ari naiz euskal literaturaz.

#### LEHEN ENTZULE PARTE-HARTZAILEA

Noski, baina agian euskal literatura anakronia bat izan da. Batzuetan egiten dugu irakurketa pixka bat mekanizista: «Orain editore gehienak

emakumeak dira; beraz, emakumezkoen literatura gehiago publikatzen da».

#### BEÑAT SARASOLA

Ez, ez, baina hori baino askoz sakonagoa da; ez da soilik emakumezkoak direla, feministak dira eta dinamika berriak sortu dituzte. Azken urteetan Eskafandra, Lisipe... Eta duela hamar urte ez zegoen ia ezer; Sareinak eta kitto. Eta kontua ez da bakarrik emakumeak direla editoreak. Badago kontzientzia bat eta bultzada bat, eta beste leku batzuetan ikusi beharko litzateke... Bultzada hori nabarmena iruditzen zait eta azken urteetako albiste onenetakoa, gure literatura biziberritu baitu. Agian euskal literaturan, beti bezala, beranduago goaz arlo batzuetan, baina [Carmen] Balcells ez dut ikusten erkagarria hemen gertatzen ari den aldaketarekin.

#### LEHEN ENTZULE PARTE-HARTZAILEA

Ez, Balcells bera ez. Alfaguarari buruz eta beste handiez ari naiz. Hor emakumeak egon dira goian denbora askoan.

#### BIGARREN ENTZULE PARTE-HARTZAILEA

Beste kontu bat da, Beñat, zuk esan duzunarekin lotua, eta baita Har-kaitzek esan duenarekin ere, Madrilek zer argitaratzeko interesa daukan, ezta? Eta nik uste dut dela emakumeek idatzitako literatura. Eta zentrora begira dagoena edo Madrilerara begira dagoena ez da ari begiratzen *Babeliako* ez dakit zer, baizik eta ziur aski Eider Rodriguezen lanak Random Housen hiru edizio agortu dituela, Katixa Agirrek itzulpena atera duela ez dakit non, eta gero hortik ingelesera eta beste zortzi hizkuntzatarara itzuli dela. Eta interesa ez dela euskal idazleak argitaratzea, baizik eta idazle feministak edo tematika jakin batzuk eta ikuspegi batzuk argitaratzea. Hori bai da berria, nire ustez, azken lau edo bost urteetan gertatu dena, eta horrek ere pixka bat difuminatu duela euskal-espainiar kontu hori, ez dut esango feminismoa nazioartekoa delako, baina bai ardatzak beste batzuk direlako, tematikoagoak edo idazle profil jakin bat bilatzearekin lotutakoak. Hori merkatu interes batzuekin lotuta dago.

#### HIRUGARREN ENTZULE PARTE-HARTZAILEA

Zuk esaten duzu nazioartekoa ezetz, baina bai oso Mendebaldekoa. Azkenean *MeToo*aren ondoren etorri zen 2017 aldera Estatu Batuetatik

eta ordutik da halako *boom* fenomeno modukoa. Horren ondoren hasi zen hemen askoz gehiago zabaltzen, modan jartzen, popularizatzen... Moda zentzu onean eta zentzu guztietan, eta hasi zen askoz begi hobezagoz ikusten. Eta azken finean argitaletxeak negozio bat ere badira, ezta? Orduan diruarena ere ezin da ahaztu, zer saltzen den, zer ez... Ikuspegi ideologiko bat egongo da, jakina, baina, ideologikoki bat etorri arren, ekonomikoki galerak emango balitu, ez lukete horrenbeste bultzatuko beharbada.

#### LEHEN ENTZULE PARTE-HARTZAILEA

Bai, dirua ematen du. Baina... Azpiegitura feminista guztiak, akademiatik hasita. Oraindik ez dauzkagu gradu ikasketak, ez dago genero ikasketa gradurik hemen. Baina badauzkagu masterrak, badaude departamentu osoak, antropologia feminista ari da ematen argitalpen asko, eta badaude hor pertsona seinalatuak. Baina gauza batek kezkatu nau, eta da Harkaitzek esan duena. Benetan ados nago gure egituren... «lastozko» hitza erabili duzu, eta egia da askotan pertsona konkretuen eginahala dela eta ez dakidala orain arte oso azpiegitura sendoak eduki ditugun, zeren eta aldatu daiteke zure zentralitatea urte batetik bestera. Horrek zer pentsatu handia eman dit, gurearen airezotasun horrek, eta beharbada pertsona konkretuekin lotutako jarduerak. Baina, bueno, argitaletxeak hor daude eta sendoak dira.

#### HARKAITZ CANO

Ez. Ez dira sendoak.

#### LEHEN ENTZULE PARTE-HARTZAILEA

Ez dira sendoak?

#### HARKAITZ CANO

Ez. Ez dira hain sendoak. Akats handi bat da, nire ustez, pentsatzea euskal argitaletxeak estruktura sendoak direla, marmolezkoak direla, ehun urte iraungo dutela derrigorrez.

#### JUAN LUIS ZABALA

Beste galderarik edo komentariarik ez badago, hemen utziko dugu...

## ITXARO BORDA

Nik nahi nuen ohar bat egin. Lehen aipatu dugu kanon eta gustuen aldaketa. Lehen oso goian zeuden idazleen lanek ez dutela oraingo belaunaldiaren interesik pizten. Iruditzen zait mende erdi honetan gauza bat argi gelditu dela: idazleak idazten du bere belaunaldiarentzat. Batzuetan egiten dira belaunaldi-arteak baina belaunaldi bakoitzak bere idazle bat sostengatzen ahal du orain. Erran nahi du idazleak bere obra garatzen duela denbora batean. Baina orain sistema indartu delako, idazleak egiten ahal du bizi oso bat idazten, nahiz eta ez den horretatik bizi, baina idazten ahal du eta bere idazteko moldea, gaiak-eta aldatzen ahal ditu. Bada halako bilakaera bat, eboluzio bat idazlearen baitan. Hasi

---

### **Harkaitz Cano: “Idazleon lan kolektiboek sortzen duten interes akademiko zein mediatikoa hutsaren hurrengoa da”**

---

hamabost urtetan eta laurogeita bost urtetan azken liburua ateratzeraino. Hori antzinako belaunaldietan ez da ikusi. Ez da ikusi adineko emazte idazlerik. Orain baditugu Arantxa Urretabizkaia, Mariasun Landa, oraindik ere hor direnak idazten beren adinetik. Eta beren adinekoak harra-patzen dituzte, baina baita beren adinetik kanpokoak ere. Nik begi onez ikusten dut aldaketa hori. Gero egia da zentralitatea, periferiak, horiek guztiak nahasten doazela, nahiz eta, hasieran erran dudan bezala, batzuei ongi etortzen zaigun periferia horren permanentzia. Bai, bai. Hori nahi nuen erran bakarrik.

## HARKAITZ CANO

Bai. Nik hala ere, etorkizunera begira, *Egan* tartean egonda, esan nahi nuke zerbait aldizkari literarioei buruz. Egia da, lehen zuk [Itxaro Bordari zuzentzen zaio] esan duzun bezala, kanpoko errealitatea ezagutzen duzunean beharbada askotan horrek balio duela maitatzeko zeurea, ezta? Zer gertatu da guretzat erreferentziazkoak ziren aldizkariekin, demagun, *New Yorker*? Guk miresten genituen idazle iparramerikar askok hor idazten zuten. Aurreko astean irakurri nuen *New Yorker* aldizkarian greba abiatu dutela bertako langileek, piketeak eta abar, murrizketa bat egin dutelako eta hainbat langile kaleratuko dituztelako... Talde handi batek erosten zaitu eta esaten dizute: «Ez, ez, errespetatuko dugu zure ildo editoriala, zu lasai, oso ongi ari zara». Baina handik urtebetera, bi urtera, hiru urtera, badator murrizketa. Nahiz eta zuk milioi bat eta berrehun

mila ale saldu edo harpidedun izan, eta zure irakurleak mantendu, zure egitura eta zure ildo editoriala saldu dituzu jada.

Irakurketa baikor baten bila edo, literatur aldizkarietan bi eredu dau-de, nire ustez. Bat da literatura *infiltratzea* literarioa ez den aldizkari ba-tean. Hori litzateke *New Yorker*-ek egiten duena: kazetaritza da, kritika da, aktualitatea da, baina aldi berean sorkuntza ere bada, oso formula ameri-karra. Seguru aski hemen ez luke sekula funtzionatuko. Zu ari zara ira-kurtzen Donald Trump-i buruzko artikulu bat eta derrepente hor txer-tatzen dizute umorezko biñeta bat zerikusirik ez daukana ingurukoa-rekin, eta txertatzen dizute poema bat zerikusirik ez daukana inguru-koarekin. Eta hor badago zerbait niri kontzeptualki gustatzen zaidana, literatura errealtate handiago baten parte bat dela erakusten dizulako. Ulergaitza zen bezala, guretzat pentsatzea duela hirurogei urte Truman Capotek *Playboyn* argitaratzen zituela ipuinak. Eta guk esaten genuen: «Nola jaten da hau?» Baina gero pentsatzen zenuen: «Tira, berez litera-rioa ez den leku batean literatura badago, ongi etorria izan dadila».

Eta aldizkari bat egiteko bigarren eredia da gai bat hartu eta anbizioz hura agortzen saiatzea. Badakigu ezinezkoa dela. Baina alde horretatik, garai batean arreta minimo batez jarraitu izan dudana literatur aldizkaria *Granta* izan da. Hor bazegoen zerbait, bazegoen diseinu bat liburura gehiago hurbiltzen zena, bazegoen buru argi bat, editore bat, esaten zue-na: «Hartuko dugu gai bat, kontzeptu bat, hizkuntza bat, herrialde bat, eta jo eta agortu egingo ditugu aukera guztiak. Beharko ditugu bi urte eta erdi ale bakarra egiteko, baina gogoangarria izango da».

---

**Itxaro Borda: “Dena da literatura, literaturaren zentralitatea ukazina da, baina bideak ez dira beti berak”**

---

Eta pixka bat hitz egin beharko litzateke, hain zuzen, aldizkaritik liburura doan salto horretaz, zenbait argitaletxeri gertatu izan zaiena. Susa sortzen da, zergatik? Luis Haranburu Altuna editore kanonikoak ez duelako argitaratu nahi izan [Xabier Montoiaren] *Anfetamiña*. Beraz, argi-taratzen du Susak, ordura arte aldizkari bat izateko bokazioarekin sortu zenak. Amaiak aipatzen zuen lehen «ultraheterodoxo desesperatua» zela Mirande [Amaia Elizalderen hitzaldiari egiten dio erreferentzia]. Eta, gaur egun, non daude ultraortodoxo eta ultraheterodoxo desesperatuak? Ba ultraortodoxo autosatisfetxoak dauden leku berean, ziur aski, ezta? Instagramen.



## BEÑAT SARASOLA

Nik berriz diot, komunitatea sortu egin behar da. Duela hamar urte ez zegoen euskaraz testu teoriko feministak, batzuetan gogorrak, irakurtzeko publikorik, eta gaur egun badago. Sortu egin da. Sortu da ez bakarrik argialetxe bat sortu delako, baizik eta dagoelako sekulako lana, batzuetan kontzientea, besteetan inkontzientea, ekitaldiak, jardunaldiak mahai-inguruak... Komunitate oso bat joaten da sortzen eta azkenean, noski, zuk sortzen duzu argialetxe bat, sortzen dituzu testuak eta irakurleak daude. Asko, gutxi, bale, ez da izugarritzkoa, baina ni Susaren standean urtero egoten naiz Durangoko Azokan, eta Lisipek, adibide moduan esanda, sortu du komunitate bat, sortu du irakurle mota bat, agian beste belaunaldi bateko idazleak irakurriko ez dituen (momentuz), eta hori sortu egin da, eta agian hortik beste irakurketa mota batzuetara iritsiko da edo dena delakoa. Eta igual duela hamar urte esango genuen ez zegoela irakurle hori. Bueno, ba sortu egin da, eta nik uste dut literaturan badela beste adibide bat, askotan gutxietsi izan dugun literaturaren adibidea, hau da, bertsolaritzarena. Komunitate bat sortzen duzu, eta komunitatearen aurretik beste aukerak irekitzen dira. Baina hori ez dago berez, kalean ez dago publiko bat, sortu egin behar da.

## JUAN LUIS ZABALA

Baina horretarako gizarte joerek ere bat egin behar dute. Lagundu behar dute.

## HIRUGARREN ENTZULE PARTE-HARTZAILEA

Nik uste dut komunitatea ez dela sortu soilik bertako indarretatik... Bertsolaritzaren kasuan bai, baina feminismoaren kasuan ez zait iruditzen. Egin da indar bat bertan ere, egia da, baina indar handi bat egon da, ez hemen bakarrik, baizik eta Mendebaldean. Momentu honetan *mainstream*etako bat da. Horrek asko laguntzen du ildo hori indartzen.

## BIGARREN ENTZULE PARTE-HARTZAILEA

Bai, badago *MeToo* olatu bat kanpotik datorrena medio *mainstream*-etan.

## HIRUGARREN ENTZULE PARTE-HARTZAILEA

Bai, eta aurretik ere bazegoen.

## BIGARREN ENTZULE PARTE-HARTZAILEA

Baina hartzen badituzu, adibidez, Sareinak eta Elearazikoak, hor ikusten duzu 2006tik, gutxienez, mahai-inguruak, hitzaldiak, tailerrak... Hau da, ez dela hain espontaneo. Teleberria inauguratzea feminismoarekin hori bai dela 2019an gertatzen den zerbait. Baina nik uste dut Beñatek esaten duen komunitatearen zentzu hori askoz ere lehenagotik datorrela, eta gauza askoz ere ikusezinoak eta lan isilagoa eta jarraitua dagoela atzean, ez datorrela hain bat-batean, kanpotik eta modu espontaneoan.

## HIRUGARREN ENTZULE PARTE-HARTZAILEA

Ez, ez, eta feminismoa ez da milurteko honetan hasten. Esan nahi dudana da beste korrante batzuk ere badaudela, baina agian bultzada bat behar dutela maila horretara iristeko, eta jendea animatzeko horretara batzen.

## JUAN LUIS ZABALA

Irakurle taldeek egiten dute gaur egun lan hori, zuen ustez?

## LEHEN ENTZULE PARTE-HARTZAILEA

Bueno, eta idazle batzuek urtetan egin dute.

## ITXARO BORDA

Maiatzek urtean bi jardunaldi egiten ditu: mahai-inguru bat literatura sozialaren gai batez eta gero irakurketa bat edo liburu aurkezpen bat. Badugu komunitate txiki bat. Gehienak bilo-zuritan, hori egia da. Erran nahi dut badela komunitate bat, hogeita hamar bat jende biltzen da, orain Biltxokon egiten ditugu, leku berezi batean, Baionan, mintzaldi, solasaldi, aurkezpen horiek. Urtean bitan. Eta beti badugu gaia, gaur aipatu ditugun gai zombait, zeren eta literaturak beti ematen du eztabaidatzeko. Eta gero jendea gonbitatzeko ere.

## BEÑAT SARASOLA

Bueno, Eako poesia egunak zeuden garai batean, komunitatetxo bat sortu zuten.

## ITXARO BORDA

(H)ilbeltza ere bai.

## HIRUGARREN ENTZULE PARTE-HARTZAILEA

Baina ez dago modan. Hori popularizatuko duen indarririk ez dator, momentuz. Etorriko den...

## LEHEN ENTZULE PARTE-HARTZAILEA

Eta gero Fakultateetan esperantza handia jartzea, ba... Populuaren zer portzentajek ikasten du eta bukatzen du, eta dago hor pasioz? Falazia bat da.

## BEÑAT SARASOLA

Ez dago, ezta?

## LEHEN ENTZULE PARTE-HARTZAILEA

Orduan hor etorkizun guztia... Atzeraelikatzeke bai, balio du, hortik bizi garelako, baina... Egia da eraginkortasuna eduki dezaketela etorkizun batean, ezta? Ondo egiten baduzu, eman dezakete, eta badaude fokuak. Oso erraz detektatzen direnak, Euskal Herrian institutu eta eskola batzuetan badakizu zein dagoen irakasle eta zein dinamika lortu duen urteetan. Baina berriro izen-abizenetara goaz.

## HIRUGARREN ENTZULE PARTE-HARTZAILEA

Eta oso hauskorra. Pertsona bat jubilatzen da eta kitto.

## HARKAITZ CANO


Eganen hurrengo azalerako proposatzen dizuet, eta bestela inteligenzia artifizialarekin egin: Ruper Ordorika eta Bernardo Atxagaren *Dos Caballos* urdin hori. Hori da euskal literaturaren zalduneriaren sinboloa, eta hori da idazle-eskola batean erakutsiko nukeen lehenengo argazkia. Idazle izan nahi duzu? Ba, ongi etorri klubera! *Dos Caballos* bat hartu eta... zoaz!

## ITXARO BORDA

Bai, guk ere badugu argazki bat Maiatzen. Luzien [Etkezaharreta] eta ni gara, lehen Herri Urratsen, *Maiatz* aldizkaria saltzen. Hara, halako argazkiak baditugu.



Itxaro Borda, *Maiatz* aldizkaria saltzen, Senperen, Herri Urratsen lehen ekitaldian, 1984an. Berak hala uste bazuen ere, Luzien Etkezaharreta ez da argazkian ateratzen, seguru asko argazkia berak, Luzienek, egin zuelako.  
(Sinadura: Maiatz)



Pott Banda: Bernardo Atxaga, Ruper Ordorika eta Joxemari Iturralde,  
Pott Bandaren agerraldi batean.  
(Sinadura: Badok.eus)



Lubaki Bandaren agerraldi publiko bat: goian, Josu Goikoetxea, Harkaitz Cano eta Xabier Gantzarain; erdian, Manex Mujika, Arantxa Hirigoien eta Ander Izagirre; behean, Eluska Fernandez, Xabier Aldai.  
(Sinadura: Ander Gillenea / EUSKALDUNON EGUNKARIA)

## SORTZE LANAK

Euskal idazleen plaza izan da beti *Egan*, eta ale berezi honetan ere literatura sormenari lekua egin nahi izan diogu. Berriaz eskatutako sei lan bildu ditugu: Josu Jimenez Maia, Iñigo Astiz, Itziar Ugarte, Garbine Ubeda, Xan Idiart eta Eva Perez-Pons Andrade.

Euskal literaturaren etorkizunari buruzko gogoeta egiteko ahaleaginean, “euskal literatura *Egan* aldizkariaren lehen mendurrenean (2048an)” dute ardatz edo gai nagusi sei lanok.





Josu JIMENEZ MAIA

(I)

Ehun urte zer dira, finean, zer mende bat?  
Gogoratzen, duela hogeita bost urte  
“Aldizkarian idazteko esan didate!”  
Niretzat alegrantzia ardua bezainbat

Erronka onartuta, soneto bat, orobat  
Nuen idatzi, neurrian, erriman nik uste  
Mende bat du orain aldizkariak bete  
EGAN literaturari emana erabat

Nolako historia luzeko aldizkaria!  
Denon arteko lanaren ondorioz, saria  
Ehun urtez EGAN gure bidaide fidela

Bi mila eta berrogeita zortzian gaudela  
Akrostikoak dioena egia dela  
Tradizio literarioaren zaindaria

## (II)

Egan, Egan Egan aldizkaria eskuan  
goretsi dezagun soneto batez euskara  
aspaldi Shakespearek eratu zuen moduan  
neurtitzak aldizka ingelesen gogara

Errima txandakatuz doan ahapaldia  
Kapritxo dotore aberats alai ederra  
Ekartzeko hona garaiko belaunaldia  
Honaino ekarri gaituen jende zaharra

Urlia eta Berendia aipatu arren  
Nire ustez Sandia izan da nagusia  
Urte luzez zuzendaria aipatzearren  
Rapsodia honen zubia, sutargia

Tamainan datorkigu soneto klasikoa  
EGAN baita hogeita batgarren mendekoa

# Hilberriak

Iñigo ASTIZ

*Itziar Ugarteri*

Haiek dira orain  
baina  
gerturatzen doaz.

40 urte barru  
ulertu dut gaur.

Irudikatu zer izango den  
euskal literatura  
etorkizunean.  
Eta gutaz  
baino ezin izan dut pentsatu.

Gutaz diot  
eta zutaz ari naiz,  
Itzi,  
eta nitaz ere bai.

Haserre  
kontatu didazulako  
nola txertatu dituzten  
bi esaldi  
zure testu batean  
baimenik gabe.

Ez gaituzte  
beti errespetatzen.

Ez dakit hiltzean.

Elkarri buruz idatziko dugu.  
Hori badakit.

Nola, non ezagutu ginen.  
Eta funtsean  
elkar maite genuela,  
nahiz eta gero  
—oraindik ezin jakin  
zer—  
hau edo bestea.

Gutxi gorabehera  
orain  
haiei ikasi bezala.

40 urte barru  
ulertu dut gaur  
—gero jakin dudanez  
gaizki—.

Bitxia da  
zer bide zimurra  
duen laguntasunak  
poemetaraino.

Egunero  
hitz egiten dugulako,  
eta gaur arte  
sekula ez zaitudalako  
aipatu hemen.

## Etorkizuna II

Itziar UGARTE

Eskuetan utzi zidaten bart:  
*Ze mundu tristea ari zaigun gelditzen.*

Udaberritu guran baina orain  
nekez sartzen den izpirik poeman

beldur naiz —ezin dut zuzen baizik esan—  
garaiak atzekoz aurrera bihurritzen ikusteko.

Zerk ehuntzen du denbora ez bada hutsak.

Bitartean  
gaur  
astelehen gaua berriro

eta orduan egongo ez den  
norbaiten ondoan  
noa 2048. urterantz.

Bera zaintzera nator

baina elkar zaintzen dugu  
jakin gabe zenbat astelehen  
beharko diren gauzak aldatzeko.

Bai gauza izukaitza etorkizuna.

Esne basokada bana berotu dut.  
Hitzen lubaki hau aitzurtu.

Gero ere argiaren alde lerratuko gara,  
ez dut gehiagorako adorerik

lagunek, lurrunduko diren ahotsek  
irekiko dituzten bide zimur horietan.



# Eta azkenean, gerra

Garbine UBEDA  
Egan, 2048-09-31

Irakurleen Askapenerako Mugimendu Nazionalak eraso selektiboei ekingo diela iragarri du ohar baten bidez, eta jomugan jarri ditu sariketak, bestsellerrak, kupoak eta «egile-eskubideen ustela sustatzen duen errazkeria oro». Zenbait idazle «orpoz orpo» jarraitzen dituztela ere adierazi du erakunde klandestinoak: besteak beste, «XX. mendeko autore kanonizatuen imitatzaille astunak, *Linguae Vasconum Primitiae* ahotan hartzen duten handiuste jakin-makinak eta berrehun orrialdetik gorako harriak izkiriartzen dituzten merke-jarioak».

Zer-nolako ekintzak burutuko dituzten ez dute zehaztu. Alta, «sistema osoa kolokan jartzeko gaitasuna» behin baino gehiagotan frogatu dutela azpimarratu dute literalki azken paragrafoan, eta hori dela-eta aurreikuspenik katastrofikoena ere motz geldi litezkeen susmoa dago letren munduan. Ortografia zerbitzu publikoko polizia zientifikoak, esate baterako, Hitza-Pitza lehergailuaren zantzuak antzeman ditu lerroen artean. Esamoldeak silabaka eta egitura gramatikalak erdarakadaka zartatzen dituen konposatu kimikoa da Hitza-Pitza; *Histrionic Information Testing Ziped Amoxiciline* eta *Prosodic Ignite To Zooming Attack* nahastetik dator. Literatur generoen Ligako I+G+I arloko adituek, bestalde, hizki zaurgarrienen aurkako gorrotoko mezu kodetuak aurkitu dituzte han-hemenka barreatuta, eta berorien ziurtasuna bermatuko duten kopia sintetikoak lortu bitartean, honako gomendioa estu jarraitzeko gonbita luzatu dute: «Ez atera kalera H-rik, dieresia duen ü-rik eta ñ edo tt gisako bustidurarik, ezinbestekoa ez bada».

## Palindromo eskudroiak nonahi

Irakurleen Askapenerako Mugimendu Nazionalaren erasorako aldarriaren aurrean, Idazleen Elkarte Ofizialak lumen hartzera deitu ditu bazkideak, eta «erne eta prestu» egoteko agindu die denei, «aurrerantzean

ezingo delako deusik ere barkatu, eta are gutxiago etsaiari». Irakurleak arerio gisa harturik, hortaz, behin betiko baieztatu da guda asmoa. Elkar-tearen beraren indarraren erakusle, prosodiez, prosopopeiez, hiperbolez, palindromoz eta faksimilez lepo hornituriko eskuadroiak aterako dituela esan du, eta azkar batean beteko dituztela bazterrak: «Beranduenik, bihar goizetik aurrera». Egunotan agertu diren ahots kritiko eta disidenteei, berriz, ohartarazpen garbia egin die: «Zuzendaritzarekin bat ez datozen traidoreek odolkiak jasoko dituzte ordainetan».

H-rik gabeko egoak baretzearren, erreferendum ez lotesle bat egiteko aukera aztertzen ari dela ere azaldu du Idazleen Elkarte Ofizialak, betiere «egoari aurretik h-a jarri eta bere kolkotik txioka ateratzeko profitatzen ez bada». Bereari tinko eutsi dio alabaina: «Hau ez da ika-mika ergeletarako momentua, idazleen ala irakurleen bandoa aukeratzeko tenorea baizik, eta ez da epelkeriarik onartuko». Aipaturiko bi bandoen artean «hutsa» besterik ez dagoela gaineratu du, «huts hotz, sideral eta abisala» eta Idazkurleen Bazkunaren kasua ekarri du gogora. Bitartekaritzarako espresuki sortua, erakunde horrek kontrako bandoan egonaldiak proposatzen zizkien irakurleei zein idazleei, batzuek besteen errealitatea ezagutu, ulertu eta onar zezaten, zipoka aritu beharrean. Genero fantastikoaren iturrietatik kapital itzela jaso zuten horretarako, baita saiakera sustatzeko laguntza lerroetatik ere. Haatik, inoiz ez zuen behar besteko emaitzarik erdietsi, eta salaketa askoren atzetik, eta epaiketa prozesu luze baten ostean, Alfabetoaren Agintaritza Zirilikoak legez kanpo ezarri zuen, funts publikoen erabilera okerragatik.

## Liskarren jatorri iluna

Idazleen eta irakurleen arteko ezin ikusia ez da egungoa. Uste zabalduenaren arabera, duela hamar urte piztu zen txinparta, hain zuzen 2038an, Sarako Biltzarrak, irakurle faltaz eta idazle demasiaz, atek behin betiko itxiko zituela mehatxu egin zuenean. Irakurle Elkarteari, liburuak eskuratzeko gogo-grinen bahiketa egotzita eta liburu enblematikoen orriak erauzi izana leporatuta —horren frogarik ez da inoiz aurkitu—, erakunde honi ere letrismoaren aurkako legea aplikatu zitzaion eta izatea bera debekatu zitzaion. Orduko hartan bazkide andana bat galdu zuen Idazle Elkarte Ofizialak, nahiz eta Irakurleek ez zuten bat bera ere irabazi, eta batzuek eta besteek elkar gutxiesteko esan zituzten hitzak ehunka txosten, ikerketa eta unibertsitate tesietarako betelan bihurtu ziren. Alferrik, baina.



Erakunde klandestinoko iheslari batek —izenik ez du eman nahi izan— komunikabide honi esandakoaren arabera, ordea, 2038ko gertaera hura «izebergaren gailurra» besterik ez da, eta ez du konponezinaren benetako arrazoia erakusten. Haren ustez, latzagoak gertatu ziren 70 urte lehenago, hots, 1968an, «idazleek eta hizkuntzalariak haien mesederako arauak ezarri zituztenean Arantzazun, irakurleak ezertarako ere kontuan hartu gabe».

Iheslariaren aburuz, «orduan pasatu ziren marra gorri guztiak», eta geroztikakoak, Irakurleen Askapenerako Mugimendu Nazionala legez kanpo utzi izana barne, «egitate hura isilpean gordetzeko ahalegin gaiztoak» dira. «Baina orain, akabo», esan du iheslariak, eta idazle komertzialenen argazkiei seinalatuz, gerrarako aldarria berretsi du: «Zuenak egin du».

Herri xeheak omenaldi blindatuak eskainiko ditu datozen egunotan, orain arte eroritako liburuen alde.



# Sendagailuak orain

Xan IDIART

Ikasleek bezainbat erlojuari begiratu zion azken orduan Xubanek. Profesionaltasunez jokatzeko ohiturarik ez balu, aspaldi hasiko zatekeela hasperenka. Hasperenka zein aharrausika, nahiz eta bere asperdura agerian utzi beharko zuen horrela arituz gero. Eta irakasle gisa, ez zitzaion komeni erakustea bera ere erabat enoatzen zela euskal literaturari buruzko klasea ematen zuen bitartean. Barkatu! Eman BEHAR zuen bitartean, hain zuzen ere, euskal literaturaren programa Hirugarren Reicharen konstituzioa bezain malgua baitzen Seaskan 2048. urte honetan.

—Asteleheneko, Bernat Leheteri buruzko informazioak bilatu behar dituzue, erran zien konbikziorik gabeko ahotsaz ikasleei Xubanek.

Inork ez zituen etxeko lanak agendan idatzi, inork Maianek izan ezik. Medikuntza ikasketetarako emaitza onak behar zituen eta eskatutako lana egiten zuen beti. Ez gogotsu, baina egiten zituen. Astelehenean Bernat Leheteri buruz Maiane galdekatuko zuen, hark zuzen erantzunen eta klasea ongi joan zelako ustea izanen zuen Xubanek. Alabaina, atsotitzak zioen bezala: *usteak ustel*. Hogei urte zeramatzan euskara irakasten, eta hogei urte zeramatzan ikasleak aspertzen Leizarraga, Axular eta klika guztia aipatzerakoan. Etsituta zegoen, baina ofizioz aldatzeko kemenik gabe zenez, maite ez zuena irakasten segitzen zuen.

Alta, euskaraz eta euskal kulturaz amorratuta zegoen Xuban. Noizbait Euskal Herri euskalduna izatea zuen amets bakar. Gau eta egun defendatzen zuen ama hizkuntza. Baina garaia ez zuen alde. Herrikideek aspaldi utzi zioten euskara sustatzeari, eta ikastoletan lehen ez bezala, ikasleak erdaraz mintzatzea gauza arrunta bilakatu zen. Arrunta eta arazo mikorik gabe onartua. Gorrotatzen zuten hezkuntza sistemaren hizkuntza zen euskara, eta gurpil zoroa martxan zenez, autore garaikideak landu beharrean, hastio zuten hizkuntzan XV eta XVI. mendeko idazle zaharkituak irakurri behar zituzten, preseski, “modernoak” zirelako. Lurra zelai bat zela kontsideratzen zen garaira itzuli behar zen halako gezur galantak entzuteko, Xubanek ahaleginak eta bi zituelako ikasleei ulerta-

razteko Bernat Etxepare modernoa zela. Funtsean, berak ere ez zuen irakatsi behar zuen horretan sinesten. Euskara irakasle gisa, sekulako biraoa izanen zatekeena erratera ez zen ausartu. Orain arte bederen. Ukaezina zen idazle horiek balio literarioak zituztela, baina zein populu munduan oinarritzen zen bibliaren itzulpen batean bere literaturaren historia laudatzeko? Egia gordina aitortu behar zen beraz: euskaraz idatzi zuten gutxi horiek hartu eta eraikuntza nazionalaren mesedetan klasiko bihurtu zituzten.

—Xuban, ez ahantz asteartean lehen kontseiluak ditugula eta notak Pro Note software-n sartu behar dituzula.

Ilana lizeoko edozein izkinaren atzetik zain zeukalako inpresioa zuen aspaldidanik. Etengabe jalgitzen zitzaion egin behar zuena eta egin behar ez zuena oroitaraztera. Matematikako irakaslea zen hura, eta gehiago sinesten zuen xinaurrien berraragiztatzean, Xubanen irakasteko gaitasunetan baino.

—Bai, Ilana. Jadanik sartu ditut.

Ikasgela hutsari zeharka begiratu zion Ilanak, gaitzesle airean.

—Gela ez da garbia.

Bere baitan madarikazioka lehertu zen Xuban. Egunero azken orenean ikasle talde batek gela altxatu behar zuen, baina hain zen bere kurtsoaz aspertu non betebeharra gogoratzea ahantzi zitzaion. Noski, gazte purtzil horiek deus erran gabe eskapatu ziren.

—Gela ez dute garbitu, errepikatu zuen bigarren aldiz Ilanak silaba bakoitza ongi ahoskatuz, Xuban gehiago gogaitzearren.

—Badakit, Ilana, milesker. Orain plazer baduzu, bakarrik egon nahi nuke. Kopiak zuzendu behar ditut.

—Ez zaitut sinesten. Berriz ere berandu arte egonen zara idazten.

—Eta hala bada, zer?

—Lizeo bat da. Aski duzu etxean idaztea.

Ilanarekin kexatzen zen bakoitzean, *Emazteen fabore* olerkiari beste izenburu bat atzeman behar zitzaiola pentsatu ohi zuen Xubanek. Noski, halako ohar desegokiak behar bezala gorde ohi zituen bere baitan, egiazki arbiburua zela ez azaleratzeko.

Dena den, gauza jakina zen Xuban irakasle txarra izateaz gain, huts egindako idazle frustratua zela. Emazteari zin egin zion eleberrigile izateko ametsa abandonatu zuela. Horregatik egoten zen maiz lizeoan arrastirietan orain arte editore bakar batek argitaratu nahi izan ez zuen fikzioa sortzen, emazteak *looser* batekin ezkondu zela ez zezan pentsa. Hori eta... Argitxurekin izan zituen haurrak gorroto zituen.

Jendetasun arau guztiak hautsiz, ikasgelako atea zakarki itxi zuen Ilana agurtu gabe. Ondotik, bulegora itzuli, sailkatzailetik ikasleen kopiak atera eta lehen idazlana zuzentzeari ekin zion nagiki. *“Bernat Etxepareren maitasunezko koplak modernoak ote dira ala zaharkituak?”*

Eta hogeita hamar kopia horiek zuzentzeko kalipu osoa jadanik galdurik, ikaslearen izenari erreparatu zion. Maiane. Birritan pentsatu gabe, 20/20 nota jarri zion. Mediku izanzen zenean, depresioaren aurkako sendagailuak emanen zizkion behintzat.



# Poesiari utopian leku bat

Eva PEREZ-PONS ANDRADE

Bi mila eta berrogeita zortziko ekainaren seia, zapatua. Laurogei lagun inguru batu gara Arabako herri txiki bateko etxe okupatu baten urteurrenaren bueltan. Egitaraua oparoa da; kalejira herrikoia, poesia-errezitaldi irekia, bazkaria, mahai-ingurua eta kontzertuak. Antolatzaileek urteurrena gai batekin lotzea erabaki dute aurten, eta mezua zabaltzeko, hainbat formatu eta adierazpen artistiko aukeratu.

Azken urteotan, poesiari lekua egin zaio espazio autogestionatuetan, eta izaten ari den harrera positiboa da. Hasierako bertigoa nabaria zen. Nori interesatzen zaio poesia? Nork egiten du poesia? Norentzat? Non? Zein da poesiaren ahotsa? Zein toki du gorputzak? Genituen erreferente handiekin eta tradizioz zamatzen genuen poesia-formatu zurrunarekin, zaila egiten zitzaigun gure ahotsa, asmoa eta irudia galdera horien erantzunetan zilegitasun minimo batekin topatzea, baina, hala ere, frogatik egin genuen. Argi genuen gure berdinekin eta gure espazioetan egin nahi genuela poesia, euskal poesia, baina gune horietan ez zegoen ohitura poetiko hertsirik, eta bidea egin behar izan genuen. Eta hara sorpresa: euskal poesia ez dago soilik Gipuzkoan, aretoetan edo udaletxeetako programeetan. Herri mugimenduak hartu du beso zabalik, eta gaztetxeetako eta gune autogestionatuetako eszenatoki eta lorategi xumeetara heldu da luzaro geratzeko.

Poesiak ez du ahots bakarra. Irmoa da, baina baita ere traketsa, trabatzen den ahotsa, ez da ahots antzeztua eta aldi berean bai. Poemaren parte da poetaren urduritasuna, eta poetaren ahotsean identifikatzen ditu entzuleak bere urduritasun propioak. Enpatia eta deserosotasunak eragiten ditu neurri berean poesiak, eta intentsitateak sortu eta mugitu bere erritmo anitzetan; punkia, zuzena, motela edo katartikoa da. Poesia entzuten, ikusten, irakurtzen eta sentitzen da, begiak itxita zein zabalik. Infusio, zuku, garagardo zein ardo kopa bat eskuan gozatzen da poesia.

Poesia lizuna eta politikoa da, mundua zapartatzeko bide eta gotorleku. Gutasunaren beste espresio forma bat. Poetaren ahotsean aurkitzen du bere burua poesiarekin lotura handirik ez duen norbanakoak, emozio-natu egiten du haren bizipenak eta gatazkak beste batenak diren hitzetan topatzean. Lerro hautsira erakartzen du poesiak lerro hautsia ezagutzen ez zuen iguala.

Poesia transa da. Norma gainditu du. Ez dago gorputzik poesia deskribatzen duenik gorputz guztiak direlako poesia. Kontraesanean ehuntzen da poesia.

Langile klaseko maketo zaharren biloba euskaldun berriok eta poesiaren bastardook akatu ditugu poesiaren aitak. Ezagutzen ez ditugun gizon helduek jada ez digute esaten zelan irakurri behar ditugun gure poemak eta poeta gizon modernoek iraungitzeaz dagoen moda bat garela esateari utzi diote. Ez dira ausartzen. Poesia geure egin dugu, bazterreko elitismo sotil eta patriarkaletik askatu dugu.





IDAZLANAK AURKEZTEKO  
JARRAIBIDEAK



# Idazlanak aurkezteko jarraibideak

*Egan* aldizkari seihilabetekaria da. Aldizkariaren aro berriko xede nagusia literatura arloko ikerketa-artikuluak argitaratzea da. Sail horretan aldizkariak leku egin nahi die saiakera eiteko idazlanei eta baita ikerketa materialak (erreferentziazko edota gai zehatz baten inguruko bibliografiak, corpus argitaragabeak...) direnei ere. Orobat argitara emango dira literaturaz diharduten liburuen aipamenak. Beste diziplina bati atxikiak izan arren, literaturarekin ageriko lotura izan dezaketen lanak ere aintzat hartuko dira.

Literatura azterketen lerroa ez ezik sorkuntzarena ere zabalik du *Eganek*, eta poesia, narrazio laburrak eta itzulpenak biltzen ditu, aldizkariaren ibilbideari jarraituz.

Jatorrizko idazlanak aurkezteko jarraibide hauek irakurgai daude aldizkariaren webgunean ere, «bidalketak» atalean:  
<https://www.rsbap.org/ojs/index.php/egan>

*Egan* aldizkaria honako zerrenda, aurkibide eta datu-base hauetan dago: Aurkinet-Euskaldok; Dialnet; Euskal ondare bibliografiko digitalizatua; ÍNDICES-CSIC; Inguma, Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-basea; LATININDEX (2.0 Katalogoa. 2018-); MIAR; REBIUN; ROAD, Directory of Open Access scholarly resources; SUDOC; WorldCat.

## 1. Jarraibide orokorrak

- Idazlan argitaragabeak onartuko dira.
- Jatorrizkoak euskarri elektronikoan (DOC(X) edo ODT formatuetan) bidaliko dira; PDF bertsio bat ere bidal daiteke. Lanen bidalketak online egin behar dira, OJS plataformaren bidez: <https://www.rsbap.org/ojs/index.php/egan/submissions>  
OJS erabiltzeko zailtasunik izanez gero, bidali [egan.bascongada@gmail.com](mailto:egan.bascongada@gmail.com) helbidera.

- Ikerketa-artikuluak eta saiakera saileko lanak argitaratzeko, Erredakzio Kontseiluak bi kanpo-ebaluatzaileen iritzia jasoko du; gainerako idazlanek ez dute kanpo-ebaluaziorik izango. Artikuluaren testua anonimoa izango da. Egilearen datuak artikuluaren aparteko orrialde batean adieraziko dira: izen-abizenak, filiazioa (unibertsitatea, erakundea...), helbidea, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa.
- Urteko lehen alean argitaratzeko, jatorrizkoak martxoaren amaiera arte bidal daitezke eta bigarren alerako, irailaren 15a arte.
- Testuak euskara batuan idatzita eta ondoren zehazten diren arauetara egokituta bidaliko dira.

## 2. Artikuluaren egitura eta formatua

### 2.1. Egitura

Testua ikerketa-artikuluaren ohiko atalez osatua egotea gomendatzen da: sarrera (artikuluaren gaia, helburuak eta metodologia zehaztuz), artikuluaren erdiko atalak, ondorioak eta, amaitzeko, bibliografia eta eranskinak.

### 2.2. Formatu orokorra

- **Izenburua:** Times New Roman 14, letra xehe lodian, erdian lerrotatua. Azpian, letra mota berean, ingelesez idatziko da.
- **Laburpena** eta **gako-hitzak:** izenburuak Times New Roman 12, letra xehe lodian, ezkerrean lerrotatuak. Laburpenaren testua paragrafo bakarrean, eta ingelesez ere idatziko da. Gako-hitzak ere euskaraz eta ingelesez adieraziko dira, eta gehienez ere bost idatziko dira.
- **Testua:** Times New Roman 12, justifikatua, lerroarte bakuna. Paragrafoaren hasieran 1,25 cm-ko koska utziko da, eta paragrafotik paragrafora lerro zuri bat.
- **Atalak.** Maila hauek bereiziko dira: 1. Lehen maila (12, letra xehe lodia); 1.1. Bigarren maila (12, letra xehe lodia); 1.1.1. Hirugarren maila (12, letra lodi etzana). Guztiak ezkerrean lerrotatuta joango dira eta amaieran punturik gabe.

- **Ortotipografia**

- Komatxo moten mailaketa: “xxx «xxx» xxx” . Komatxo bakanak ( ‘ ’ ) hitz bakanen adiera edo itzulpenak emateko erabiliko dira.
- Puntua beti ixteko komatxoen ondoren idatziko da: “esan zuen”.
- Letra etzanez joango dira beste hizkuntza batean idatzitako hitz solteak, metalinguistikoki erabilitako terminoak, liburuen izenburuak eta aldizkarien edo egunkarien izenak. Halaber, letra etzanez idatziko dira izen-abizenen ondoan aipatzen diren goitzenak: Juan Jose Alkain, *Udarregi*; bakarrik doazenean, letra arruntez.
- Etzanean edo komatxo artean diren hitzen ondoko deklinabide-atzikia marratxorik gabe idatziko da: *Eganen*.
- Siglak: maiuskula txikian.

### 2.3. Aipuak

- Lau lerro baino laburragoak “komatxo” artean testuan bertan jasoko dira. Aipu luzeak aparteko pasartean idatziko dira, testuko letra-tamaina berean, 2 cm-ko koskarekin lerro guztietan eta komatxorik gabe. Aipuaren aurretik eta ondoren tarteko lerro zuri bat utziko da.
  - **Bertsoa** denean 2 cm-ko koskarekin sartuko da, baina “komatxo” artean. Bertsoen edo olerkien hitzak lerro betean idazten direnean, bertso-lerroak bereizteko zehar-marra erabiliko da eta alde banatan zuriunea utziko da: xxx / xxx.
  - Salbuespen gisa bestelako jokabideak ere onar daitezke, testuaren segidak edo bestelako arrazoiek hala eskatzen badute.
- **Aipu barruko idazketa**
    - Aipuaren barruko paragrafo artean lerro zuririk ez sartu.
    - Idatzi gabe utzi den testu zatia kako zuzenen artean hiru etenpuntu jarrita adieraziko da.
    - Jatorrizko testuan ez dauden hitzak eransteako kako zuzenak erabiliko dira.

- Egileak nabarmendu nahi dituen hitzak letra etzanez jarriko dira.
- Oin-oharretako aipu luzeak koskarik gabe eta komatxo artean idatziko dira.
- Aipuaren amaierako puntua erreferentziaren ondoren ipiniko da.
- *Azpimarra gurea, itzulpena gurea* moduko oharrak erreferentzia bibliografikoaren ondoren idatziko dira: (Biasi, 1998. Itzulpena gurea).

#### 2.4. Oin-oharrak

- Oharren deia zenbakien bidez egingo da, eta zenbakia puntuazio-markaren aurretik joango da.
- Orri-oinetan agertuko dira, eta ez testuaren bukaeran. Orri-oinetan letra-tamaina: 10.

#### 2.5. Erreferentzia bibliografikoak

APA arauak jarraituko dira erreferentzia bibliografikoetarako. Oinarrizko arauak azaltzen dira hemen. Xehetasun gehiago behar izanez gero, ikus:

[https://www.ehu.es/documents/2293351/2391784/normas\\_apatfg.pdf](https://www.ehu.es/documents/2293351/2391784/normas_apatfg.pdf)

##### 2.5.1. Testu barruko erreferentzia bibliografikoak

- Autorea-urtea sisteman antolatuko da, modu honetan: (San Martin, 2001, 195-196. or.).
- Autore ezberdinen aipamenak puntu eta komaz bereiziko dira: (Grésillon, 1990; Hay, 2002). Autore bakar baten lanak aipatzean, komaz banatuko dira: (Irigarai, 1953, 1954).
- Autorearen izena diskurtsoaren parte bada, aski da argitalpen urtea eta orriak adieraztea.
- Orrialde zenbakiak osorik idatziko dira: 316-319 (eta ez 316-9).
- Jarraikoak ez badira, komaz bereiziko dira: 5, 16.
- Liburukiak dataren ondotik jarriko dira, koma batez bereiziz: (Vinson, 1983, I, 5-46. or.).

### 2.5.2. Bibliografia

- Atal honetan zerrendatuko dira testuan zehar erabili diren erreferentzia guztiak, eta ez besterik, **Bibliografia** izenburupean: Times New Roman 12, letra xehe lodian, ezkerrean lerrotatua.
- Sarrerren artean lerro zuririk ez, baina bigarren lerrotik aurrera 1 cm-ko koskarekin.
- Hurrenkera alfabetikoan antolatuko da. Autore batek lan bat baino gehiago duenean, sarrera bakoitzean errepikatuko da bere izena. Autore baten lanak kronologikoki zerrendatuko dira, eta urte bereko argitalpen bat baino gehiago aipatzen bada, letrak ezarriko dira urtearen jarraian: 1981a, 1981b... Beste autore batekin edo batzuekin egindako lanak bakarka egindakoaren ondoren joango dira, alfabetikoki eta kronologikoki zerrendatuak.
- Deitura(k) letra xehean, hasierakoa(k) salbu. Izenaren iniziala. Autore bat baino gehiago dagoenean komaz bereiziko dira, eta azken autorearen aurretik “&” zeinua jarriko da: Deitura, I., Deitura, I. & Deitura, I. Hiru autoretik gora “et al.” laburdura erabil daiteke, letra arruntez.

- **Liburuak**

Deitura, Izenaren iniziala. (Argitalpen urtea). *Izenburua*. Argitaralekua: Argitaletxea.

Artze, J. (2013). *Bizitzaren atea dukegu heriotza*. Donostia: Elkar.

- Sailak eta bildumak argitaletxearen ondotik idatziko dira, koma batez bereiziz:

Kardaberaz, A.<sup>js</sup> (2004) [1761]. *Eusqueraren berri onac*. Bilbo: Euskaltzaindia, Euskararen lekukoak 23.

- Informazio gehigarria erantsi nahi denean, amaieran idatziko da kako zuzenen artean:

Bourdieu, P. (1992). *Les règles de l'art. Genèse et structure du champ littéraire*. Paris: Seuil. [Gazt. ed., Kauf, T. (1995). *Las reglas del arte. Génesis y estructura del campo literario*. Bartzelona: Anagrama].

- **Liburuetako kapituluak**

Deitura, Izenaren iniziala. (Argitalpen urtea). Kapituluaren izenburua. In Argitaratzailearen izenaren iniziala. Deitura (arg.), *Liburuaren izenburua* (xx-xx. or.). Argitaralekua: Argitaletxea.

Mitxelena, K. (1981). Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak. In A. Tovar et al. (arg.), *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak* (259-278. or.). Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

- Izenbururik gabeko sarrerak edo hitzaurreak kako zuzenen artean adieraziko dira:

Mujika, L. M. (1979). [Hitzaurrea]. In J. M. Lekuona (arg.), *Ilargiaren eskolan* (7-14. or.). Donostia: Erein.

- **Artikuluak**

Deitura, Izenaren iniziala. (Argitalpen urtea). Artikuluaren izenburua. *Aldizkariaren izena, zenbakia, orrialdea-orrialdea.*

Etxeberría, G. (2001). Euskal kultura eta literatura 50eko hamarkadan. *Egan*, 3/4, 5-8.

<<http://www.liburuklik.euskadi.eus/jspui/handle/10771/28548>>

- **Egunkariak**

Egunkari baten data osoa eman behar denean, egilearen atzetik urtea bakarrik idatziko da eta data osoa egunkariaren izenaren ondotik:

Sarasola, I. (2016). Gabriel Arestiren *Harri eta Herri*-tik desagerturiko bi poema. *Berria* 2016-02-23.

- **Argitalpen elektronikoak** < > artean: <<http://journals.openedition.org/lapurdum/1211>>.

- Argitalpenari **doi** identifikatzailea (*Digital Object Identifier*) esleitu bazaio, urla ordezkaten du: doi: xx.xxxx

### 3. Artikuluen ebaluazioa

Ikerketa-artikuluak argitaratzeko, binakako ebaluazio sistema (itsu bikoitza) erabiliko da, zehazten den prozedura jarraituz. Jatorrizko artikulua jaso ondoren, lehenik Erredakzio Kontseiluak aztertuko du, ebaluatzeko onartzen edo baztertzen den erabakitzeke. Artikulua aldizkariak ezarritako arauetara egokitu ez bada, atzera bota dezake Erredakzio



Kontseiluak. Hala gertatuz gero, artikulua egileari itzuliko zaio moldaketak egin ditzan. Edozein kasutan, behin jatorrizkoa jasota, egileak astebeteko epean erabakiaren jakinarazpena jasoko du.

Artikulua ebaluatzeko onartzen bada, bi kanpo-ebaluatzaileari bidaliko zaie azter dezaten. Haiak hilabete izango dute artikulua onartu, baldintzapean onartu edo baztertu erabakitzeko. Ebaluatzaileen iruzkin eta iradokizunak egileari itzuliko zaizkio eta hamabost eguneko epea izango du testu zuzendua bidaltzeko.

Argitaratu aurretik, egileak lanaren testu maketatua jasoko du eta astebeteko epea izango du egon daitezkeen akatsen berri eman dezan. Egileak zuzenketak bidali ezean, testua ontzat eman duela ulertuko da, edo aldizkariko arduradunak egingo ditu zuzenketak, horien gainean inolako erantzukizunik izan gabe.

Argitalpenaren ondotik, egileei aldizkariaren ale bana eta haren pdfa ere emango zaizkie.

